

Artzaia eta Sugea. Su-Ur adigai binomioa euskal pentsaera herritarrean

(The pastor and the snake. The conceptual Fire-Water ratio in popular Basque mentality)

Quijera Pérez, José Antonio

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-859X (2007), 9; 11-101]

Jaso: 06.02.02

Onartu: 07.03.01

Ikerketa honek euskal mitologian bidaia desberdina proposatzen du. Haren oinarri metodologikoa analisisa izanda, mito bilduma zehatz batetik abiatzen da sistemaren osagarriak eta haien arteko harremanak aztertzeko. Hurrengo urratsean, zatien jabetzetik osotasuna ulertzera zuzentzen da, sintesi ariketa batean. Bidaia honetan euskal folklore korpusa da oinarria. Bukieran, mito bildumaren giltza eskuratuta, konparaketa proposatzen da.

Giltza-Hitzak: Euskal mitologia. Su eta ur adigaiak. Sugea. Lamiak. Esnea.

El presente estudio propone un viaje distinto a la mitología vasca. Tomando el análisis como fundamento metodológico, se parte de una colección concreta de mitos para analizar los componentes del sistema y las relaciones entre los mismos. En un segundo paso, desde la captación de las partes se dirige a la comprensión de la totalidad, en un ejercicio de síntesis. El fundamento de este viaje es el corpus del folklore vasco. Al final, una vez obtenida la clave de la colección de mitos, se propone una comparación.

Palabras Clave: Mitología Vasca. Los conceptos de fuego y agua. Serpiente. Lamias. Leche.

Cette étude propose un voyage différent dans la mythologie basque. En prenant l'analyse comme base méthodologique, on part d'une collection concrète de mythes pour analyser les composants du système et ce qui les relie. Deuxièmement, à partir du captage des parties elle s'adresse à la compréhension de la totalité, dans un exercice de synthèse. La base de ce voyage est le corpus du folklore basque. Finalement, une fois obtenue la clé de la collection de mythes, on propose une comparaison.

Mots Clés: Mythologie Basque. Les concepts de feu et eau. Serpent. Lamies. Lait.

SARRERA

Herriaren kultura izpiritualaren barne bidaia desberdinak egin litezke. Mitologiaren aztarnei jarraituz, gizakiaren muinerantz hurbiltzen gaituena zoragarri-netariko da. Bidaia honek aintzineko euskal pentsamoldea ulertzea errazten digu, eta horrela gizakiaren sustraietara iristeko ateak zabaltzen zaizkigu. Alde horretatik ondorioak ugari eta aberatsak izan daitezke. Nolabait, geure nortasun sakonean murgiltzen gara. Horrexegatik beharbada, mitologiaren azterketak oso intimoak izatera iritsi daitezke, eta beste alorretan baino gehiago ikerlariaren sentipenak bere lana margotzen du.

Mitologia, laburki mitoen bilduma bezala ulertuta, erlijioaren oinarria kontzeptuala da, baina ez oinarri bakarra. Erritualari gehituta, bien artean herriaren korpus erlijiosoaren gunea finkatzen da¹. Haien arteko harremana sakona eta etenik gabekoa da, gutxienez elementu erlijiosoaren izatearen zengatiaren elikatzen duten heinean. Biak, bai mitoa bai errituala, irtenbideak dira azken finean, gizakiak bere kontzeptu sistemaren bidez lortu dituen irtenbideak.

Kontzeptu sistemaren bitartez aldagai guztiak jaso eta aztertzen dira: ezaugarri ekologiko eta biologikoak, fluktuazio historikoen ondorioak, psikearekiko ezaugarriak, etab. Arlo hauetatik guztietatik datuak bereganatzerakoan kontzeptu sistemaren oinarria zehazten da, hau da, une horretatik aurrera gizakiak analisia gauzatzeko eta, era berean, irtenbideen bila aritzeko erabiliko dituen eragingailu mentalak. Bestalde, sistemak berak, etengabe bere burua elikatzen du eta, batera ere, bere barnea aztertze lanetan aritzen da feed-back prozeduraren bitartez. Oinarrizko objektuetatik lorturiko informazioa eta erabakiak erabilgarriak dira hurrengoak arakatzeko, eta era berean, ondorengoko azterketarako baliabidea ere bada, aurreko asmaketa osoa babestua geratzen da, indartuta. Ondorioz, bi lerro zabaltzen dira: bata aurrera begiratzen duena, azterketa berrien prozeduran luzatua, eta bestea ziklikoa, sistemak berak bere burua elikatu eta babesteko sorturikoa, sistemaren beraren bi osagai.

Baina, sistemak berak argitaratutako erantzun hauek aldakorrek dira, gizakia eta bere ingurua aldakorrek diren moduan, esate baterako. Mitoa alda daiteke, desagertu, berria sortu, beste kulturengandik jasotako elementuak bereganatzen dituelarik adibidez. Kontzeptu sisteman aldaketak gertatzen direla esan nahi du arazo honek, eta azken finean aldagaiak aldaketarako presta daitezkeela ohartzeko. Katean bezala, oinarrizko aldagaietan gizakiari azaldu zaion aldaketak birmoldaketa eskatzen du, eta horren ondorioak azaleraino garraiatzen dira, ulermenaren kanpoko geruzetaraino.

Arazo hauengatik guztiengatik mitologia sistema biziduna dela esan liteke, aldaketak sufritzeko gai dena, zatiak desagertzean, elementu berriez osatzean,

1. Edozein erlijioaren oinarrizko osagarriak bi multzotan bereiz daitezke: alde baterik, kontzeptu osagarriak gertatzen dira, hau da, mitoa eta erritua (liturgia); bestetik, berriz, giza osagarriak, non jarraitzaileak (gogaideak) eta adituak (liturgi buruak) zehazten diren.

e.a. Mitoa ezabatzerakoan, edo berria sortzerakoan, prozedura berezia jartzen da martxan, gainera oso konplexua izaten dena, baina beti zergatia kontzeptu sistemaren memorian gordetzea bilatzen duena. Orduan, sistemak erabiltzen dituen mekanismoetan aldaketaren beharra inprimatzen da. Esparru honetan aritzeko, antropologia, psikologia, soziologia eta erlijio konparatuen zientziek esate handia dute. Mitoaren nortasun azterketak zientzia desberdinen elkarlana eskatzen du, auzolanaren moduan.

Euskal Herriko mitologia historiaren ikuspegi bakarretik aztertua izan da iraganean askotan, baina ondorio latzak lortu ohi dira gehienbat. Logikoa da historia ardatz bakartzat erabilia izan delarik, beste arloen ikuspuntuak baztertuz. Lana ez da inondik globala izan. Historiaren datuak laburrak dira gizakiaren psikea aztertzeko hain zuzen ere. Analisia gauzatzeko garrantzitsua den zientzia hori antropologoari lagungarria dakioke, zalantzarik gabe, baina inola ere ez azterketarako oinarri bakarra. Historiak berak dituen mugak antropologiara igaroz gero, azken zientzia hau metodo eta teknika berdinez mugatzen dugu. Azkenez, gizakiaren pentsaera mugatzen dugu denbora kronometrikoaren bidez. Oztoporik gabe, beste arlo eta metodo desberdinek ere joku honetan parte zuzena hartu behar dute.

Hizkuntzalaritza oso lagungarria izan daiteke mitoak aztertzerakoan. Logikoki, mitoaren euskarria hizkuntza da, nahiz eta muinak beste arloak beregana ditzakeen. Biak kontzeptu sistema berdinean kokatzen dira eta zuhaitz bereko emaitzen moduan azaltzen dira begien aurrean. Mitoa eredu edota jarribide bezala ulertuta, bere elementuei dagozkien balore semantikoeak eta mitoaren esanahiak adostasunean egon behar dute. Hurrengo orrietan aurkezten den analisis adostasun hau beti bilatzeak eta mantentzeak oso beharrezkoa dirudite. Metodologiaren giltzat hartuta, bide zuzena egiaztatzeko froga bihurtzen da.

Mitoak ipuinak izatera degrada daitezkeela badakigu. Berdin gerta daiteke errito mailan. Aintzinako erritualak izan zirenak haurren joku bihurtu dira askotan. Degradatutako materialaren azterketa ezin da aurrera eraman konparaketa lanetan ez bagara murgiltzen. Estrukturalisten tautegorisismoan ez badugu erori nahi, mitologia bera ez da nahikoa mitoaren esanahiari eusteko. Gutxiago oraingoz bere kanpotik. Arlo honetan, Marcel Détienne mitologoaren jarrera argitsua iruditzen da: mitologiaren esanahia ulertzeko, bere bitartez aritu behar da, hau da, sinbolismoaren hildoari jarraitu behar zaio².

Oso ezaugarri ezagunak dituen beste konparaketarako materiala eredu bezala erabiltzera behartuta gaude, beraz. Hau dela eta, horren babesean sineskizunak, errito eta jokaerekin batera, garrantzia handia hartzen dute. Sineskizun adibideek ipuina eta mitoaren arteko muga finka dezakete, inongo muga orokorrik ezartzea litekeena baldin bada³, eta era berean, gure aurrean kokatzen den ipui-

2. Détienne, M., "Repensar la mitología", In: "La función simbólica", 86 (Barcelona 1989).

3. Georges Dumézil ikerlari ospetsuarentzat ipuin eta mitoaren arteko desberdintasun garbia ezin da adierazi. Berak onartzen duen moduan, desberdintasun horren bila aritu da bere bizitza osoan, behin betirako ezertara iritsi gabe.

na mitotik datorkigun degradapen prozeduraren bidez, ala haurrak entretenitzeko bakarrik sortutako gauza den, jakin dezakegu.

Euskal Herriko ahozko literatura oso aberatsa da. Bertsolarien ahalmen kreatiboa ezaguna da eta etengabea. Zaharrek dakizkiten ipuin eta elezaharren ikuspegitik ere aberatsa da. Bigarren bide honetatik, bildumak osatzen ikerlari eta idazle batzuk aritu dira lehenago: Azkue, Barandiaran, Lekuona, Montyerio eta Websterek, esate baterako, gure ipuin, legenda, mito, asmakizun eta esaera zaharrak jasotzen jardun zuten. Horrelaxe, bilduma interesgarriak lortu dira, garrantzia handiko materialez osaturikoak.

Folklorearen beste arloetan gertatzen den arazoarekin berberarekin topo egiten dugu. Baliabide hauen azterketa sakonak ez dira batere ugariak, eta erabiliak izan diren metodo obsoletoek sinplismoaren putzura botatzen dituzte ondorioak behin baino gehiagotan. Mito, ipuin eta sineskizunen arteko harremanak testuinguruan berean aztertu gabe ezin dezakegu azal azpitik beharantz jarrai.

Mitoaren era, egitura eta ezaugarri formalak behatu behar dira, zalantzarik gabe, hauxe baita atalik argigarrieneraiko bat. Baina mitoetan berba azpitik izkutatzen diren sinboloen esanahiraino iristea aurrekoa bezain garrantzitsua da. Horretarako, erlijio konparatuen zientziak oinarria ematen digu mitoa fenomeno erlijiosotzat onartu ondoren. Bide horretatik mitoaren adierazpeneraino iritsi gaitzke, eta orduan errituala adieraz betetzen da gure ardurarik gabe.

1. MITOAREN AURPEGI GARBIA

1.1. Artzaina, esnea eta sugea

Gure ustetan, ipuin kategoria gainetik kokatu behar diren kontakizun bat baino gehiago aurkitzen dira Euskal Herriko kontu bildumetan. Lehenengo mailako izaki mitologikoak, jainkoak adibidez, agertzen direlarik, erraza da kontakizuna mitoen multzoan sailkatzea. Beste kasuetan kontakizun sortak ipuinen artean kokatu dira, azaletik ez baita mitologiaren inongo erlaziorik ikusten, edo gutxienez, kontakizunaren egitura formalak ez gaituelako mitologiaren bideetatik eramaten⁴. Adibide gisa, “Artzaina eta Sugea” ipuina jo dezagun, sakonago aztertu nahi duguna orrialde hauetan. Hona hemen Euskal Herriko kontakizun horren aldaerak.

Ataun (M1). Behatu behar dugun lehenengo kontua, nonbaitetik hastekotan, Gipuzkoako Ataun herrikoa da, Aralar eta Altzania mendikateak sakabanatzen dituen izen bereko haran atlantiarrean kokatutakoa:

artzainak Aralarreko Ormazarretan ardiak zaintzen zituen bitartean, “sugakume” bat aurkitu zuen. Ederra zela pentsatuz, bordara eraman eta esnea eman

4. Ez gaude ados C. Lévi-Strauss ikerlariaren teoriarekin. Bere ustez, munduko edozein irakurlek mitoa mitotzat hartzen duela beti. Kasu askotan, sistema erlijiosoarentzat mitoa denak, beste kultura desberdineko pertsonarentzat ez dauka ezaugarri mitologikorik, eta beste kategorian sailka dezake inongo oztoporik gabe.

zion. Hortik aurrera suga egunero etortzen zitzaion esnea edan nahian. Artzaina neguan herrira jaisten zen, eta udaberrian berriz mendira igotzerakoan txistuka deitzen zuen suga, animalia esnea edateko hurbiltzen zitzaiolarik. Artzainak ardiak saldu eta ez zen berriro bordara itzuli luzaroan. Behin batean, gizona lagunekin "Samielera" igo zen. Suga deitu, baina orduan "suga" handia agertu zitzaion. Esnerik ez zegoenez gero, artzaina lepotik inguratu eta ito egin zuen⁵.

Mutriku (M2). Bigarrena Gipuzkoako kostaldean kokatzen den Mutriku herrikoa da. Hizkuntzaren aldetik herri horrek euskalki bizkaitarra erabiltzen du:

herri honetako artzainak "subia" jaso eta elikatu egin zuen lruixako borda inguruan. Soldaduzkara joan zen. Handik itzultzerakoan, piztia arin hurbildu zitzaion eta hil egin zuen⁶.

Andoain (M3). Hori ere herri gipuzkoarra da, Beterrikoa hain zuzen ere. Bere inguruetatik, Aizkorrin sorturiko urak Oria ibaiak itsaso hurbilera garraiatzen ditu. Herritik gertu Ernio mendikatea agertzen da bistara. Mendi horien garrantziak artzantzaren mailan ez du ikusirik Aralar edo Aizkorri mendikateenarekiko, baina hala ere artzaiek ez dute inoiz lur hartatik huts egin:

Ernio artzainak "subia" hazi zuen. Horretarako esnea ematen zion, artzainak berak suga txistuka deitzen zuenean. Geroago, gizonak artaldea saldu eta alde egin zuen. Denboraldi luzea igaro ondoren artzaina mendira igo zen eta artaldearen nagusi berriarekin topo egin zuen. Berak hazitako suga handik ibiliko zela esan zion. Txistuka deitu zuen eta orduan suga etorri zitzaion. Esnerik ez zegoenez, artzaina ito egin zuen⁷.

Kortezubi (M4). Oraingoa herri bizkaitarra da, Gernika ondokoa eta itsasotik hurbil kokatua:

balnearioko karean "subia" egoten zen. Gizonak txistuka deitu eta suge hori hurbiltzen zitzaion. Horrek esnea ematen zion eta piztiak, edan ondoren, alde egiten zuen. Beste batean gizonak piztia txistuka deitu zuen, baina esnerik ez zeukan, gizona inguratu eta hil egin zuen⁸.

Arabako hurrengo aldaerak aberatsagoak dira alde batetik, *a priori* azaltzen zaigulako sugeei esnea gustatzen zaiela. Horrela, ipuinaren zergatia ulergarriago bihur daiteke. Bestetik, kristautuagoak aurkitzen dira gure ustez, emaitza bilatzean Ama Birjinak artzaina salbatzen duelako hain zuzen.

Saratsu (M5). Erriberako herri hori "Siete Villas" deituriko elkarteko partaidea da Arabako mendebaldean, Ebro ibaitik hurbil. Nekazarien herria da:

abeltzainak mendian behiak zaintzen zituenean, suga aberearen hankatik igotzen zela ikusi zuen, eta horrela titietatik esnea zuzenki zurgatzen zuela. Une

5. Barandiaran, J.M., "El mundo en la mente popular vasca", II, 124-125 (Donostia 1961).

6. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 125.

7. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 126.

8. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 126.

horretatik aurrera txistuka deitu eta sugeari esnea pitxarran eskaintzen zion. Guda sortu eta artzaina burrukara joan zen. Han luzaro igaro ondoren herrira itzuli eta bere emaztearekin zelaietara igo zen. Txistuka hasi eta arin suge handia etorri zitzaien kalte egiteko nahian, hainbeste denboran esnerik gabe uzteagatik. Bikoteak korrika alde egin zuen beldurrez, eta senar-emazteak Ama Birjinaren ermitan sartu ziren. Sugea sartzen saiatu zen. Bainan gizonak atea itxi, piztiaren burua harrapatu eta bertan hil zuen⁹.

Apinaniz (M6). Ega garaiko herrixka arabar horrek nekazaritzatik jasotzen du batez ere bere mantenua. Oraingoan ere, Ama Birjinaren eragina nabarmena da, aurrekoan behatu dugun moduan:

ahuntzak zaintzerakoan artzainak suge txikia ikusi zuen. Hartu eta ahuntzaren titietan jarri zuen, sugeak esnea zurga zezan. Orduz geroztik aurrera egunero esnea ematen zion, eta izena ere jarri zion: "Marisancha". Etorraraztekotan txistuka deitzen zuen. Urteak igaro eta ezkondu ondoren artzaina bere emaztearekin "Valvanera" deituriko santutegira zuzendu zen. Bidean, berriz sugea deitu eta orduan, zarataka, pitzia ikaragarria agertu zitzaien. Korrika alde egin zuten eta baseliza barruan sartu ziren. Sugeak sartzen saiatu, eta atean bertan lehertu zen¹⁰.

Hurrengo adibidea, hildo berdineko kontua, Nafarroakoa da, eta gainera, eza-gutarazi behar dugun Euskal Herriko azkena.

1. Irudia. Aipaturiko kontakizunaren kokapen geografikoa Euskal Herrian.



9. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 127.

10. Mugarza, J., "Tradiciones, mitos y antiguas leyendas en el País Vasco", I, 157 (Burgos 1981).

Gorriti (M7). Nekazal eta abeltzainen herrixka hori Nafarroako ipar mendebaldean ezkututzen da, mendi eta belardiz inguratua, Gipuzkoatik gertu. Herri honetako aldaera eta Salzedokoa, Araban, oso antzekoak dira, J.M. Barandiaranek azaltzen duen arabera. *Gorritin artzainak ez du lortzen bere burua salbatzea eta esne faltaren aurrean sugeak artzaina hiltzen du*¹¹.

Egungo Euskal Herritik kanpoan ere antzeko kontakizunak ez dira falta. Esate baterako, Errioxako Arnedillo herrian artzainak sugea elikatzen zuen, piztia esnezalea zela behatu ondoren. Gizona soldaduskara joan eta itzuli ondoren sugea deitu egin zuen. Piztia erraldoia agertu zitzaion eta Peñalbako Ama Birjina inbokatuta sugea hil zen¹². Horri esker gizonak bizitza salbatzea lortzen zuen. Antzekoa aipatzen da Cameroetan, baina oraingoan piztia esnezalea muskerra da, eta Lomos de Orioseko Ama Birjinaren bitartez munstroa hiltzen da, artzainak bizitza gordetzen duelarik¹³. Leon inguruko mendietako herrixketan antzeko kontakizunak irau du gaur arte: artzainak sugea txistuka deitzen zuen. Lurralde hartako kontakizunean piztiak gizona hiltzen du¹⁴.

Ondoko ipuina Segoviako Santa Maria la Real de Nieva herrikoa da (La Campiña deituriko lurraldean): sugea esnez elikatzen zuen artzainak soldaduzkara joan behar izan zuen, non bi urte eman zituen. Itzultzean, piztiak ez zuen gizona ezagutu eta eraso egin zuen. Horrek, ehiztariaren laguntza eskatu zuen suge erraldoia akabatzeko, baina azaldu zion untxia hil behar zuela. Ehiztariak piztia ikusita, Nievako Amabirgina deitu zuen, eta honen laguntzaz tiro batez hil egin zuen. Gaur egun, suge erraldoi baten azala, lastoz beteta, eliza barnean ikus daiteke, gertaera horren oroipena¹⁵.

Penintsulako iparraldean, Duero ibaia eta itsasoaren artean zabaltzen den lurraldean, gurearen antzeko kontakizunak ez dira batere arraroak, nahiko ugariak baizik. Beste aldetik, lurralde horretan ere sugeen esnezaletasuna behin baino gehiagotan aipatzen da kontuetan. Sugearekiko harremana beti kaltegarri bihurtzen da gizakiarentzat kasu horietan.

1.2. Metodologiaren gakoak

Aurreko materialen azterketara jo baino lehen, erabiliko dugun metodologiaren oinarritzko ideiak zabaltzeak oso egokia dirudi. Modu horretan, irakurlea bizkortasun handiagoz mugi ahal izango da testuan zehar, eta emandako urratsak ulergarriagoak izango zaizkio.

11. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 127.

12. Solano, J.M., "Etnología de las localidades de Antoñanzas y Peroblasco", 41-43 (Lodosa 1987).

13. Gil del Río, A., "Historia y antiguas leyendas de La Rioja", 398-399 (Zaragoza 1977).

14. Rua, F.J., eta Rubio, M.E., "La piedra celeste. Creencias populares leonesas", 111-117 (León 1986).

15. www.santamariadenieva.com/cultura.htm

Mito guztiek beren kanpoko era badute, hau da, mitoaren barnean kokatzen diren elementuak ezagutarazi, babestu eta era berean apaintzeko hizkuntzak emandako kanpoko geruza, berba bera azal bilakatua. Geruza honen bitartez egitura formala finkagarri bihurtzen da. Egitura honetan mitoaren elementuak harremanetan jartzen dira, eta zalantzarik gabe erlazio hauek ondo ulertzea beharrezkoa izaten da azal azpiko planu sinbolikoetan kokatzen diren beste elementuak ongi uler ditzagun. Baina aldaera desberdinak erabili behar ditugunez gero, egitura formalaren inguruan beste zenbait elementu mugitu daitezke.

Egitura formala mito guztietan zutabe batzuen gainetik eraikitzen da. Gure kasuan hauexek dira: *artzaina*, *sugea* eta *esnea*. Zutabe bakoitzaren bi azterketa desberdin eta era berean osagarriak beharrezkoak dira: alde batetik, bakoitzaren ezaugarriak kontakizun hauen kanpotik ikusita, hau da, Euskal Herriko korpus folklorikoaren aldetik begiraturuta (sineskizunak, beste ipuinak, mitoak, erritualak, etab.), eta baita hizkuntzalaritzaren aldetik ere. Horrela, zutabe bakoitzaren balore intrinsekua eta aniztasuna uler ditzakegu. Gero, bestetik, hiru zutabe horien arteko lotura aztertu behar da gure ipuin barnean era kontestualizatuan, lehenagoko barne-baloreak eratzeko nahian bagabiltza gure kasu konkretuan, zeharkako lerroen modura.

Sinboloen ikuspuntutik behatuta, hauxe aitortu behar da lehenengo: elementuak berberak sinbolismo desberdinak jaso ditzake. Edozein herritako mitologian arazo hau begi bistakoa da. Hierofaniak berberak balore sinboliko desberdinak jasotzen ditu askotan. Baina kontuz mugitu behar dugu bide horretatik, eta gure kontzeptu sistemaren mugetan gaingitu gabe aritu, hau da, aztertutako objektu sinbolikoak mito-sistema desberdinetan funtzio desberdinak beregana ditzake. Bilduma orokorretan denak aipagarriak dira, elkargarriak eta abar. Baina horrek ez du esan nahi euskaldunontzat objektu sinboliko horrek ere funtzio guztiak betetzen edo bereganatzen dituenik. Gure sistemarekin erlazionatuta daudenak zehaztu behar ditugu, gure errealitate sinbolikoan mugaturik, nahiz eta paradójikoa iruditu. Sistemaren berean, elementuaren funtzio sinbolikoak bat baino gehiago izan daitezke, baina haien terminoetan kokatu eta mugatu behar dira.

Kontzeptu sistema guztietan, herriaren logikan oinarrituak beti¹⁶, hierofania horren sinbolismo desberdinek haien artean nolabaiteko elkar puntua izaten dute. Ikerketan, elementu batzuentzat aurkako sinbolismoetara iristen bagara, eta ezin bada inongo erlazio baikorrik atera beste planu sinbolikoetan, gauzak bide onetik ez doazela pentsatu behar da, edo elementu batzuk ere faltatzen zaizkigula, adibidez, sineskizun mota batzuk ez zaizkigulako iritsi. Orduan, gure azterketa mugatua eta formalki bukaezina gertatzen zaigu. Hurrengo urratsak hipotesiaren mundura buruz behera bultzatzen gaitu. Azken arazo horren berri edukitzea ez da beti erraza izaten, baina bai susmagarria adibide askotan, eta konparaketa lan sakonaren bitartez pistak bila ditzakegu.

16. Kontzeptu sistema horrek erabiltzen duen herriaren logikaz ari gara mintzatzen, askotan ikerlariengandik urruti kokatua.

Kontzeptu sistematik sortutako elementu desberdin eta era berean aurkakokausitate erreferentzia ona izan dakiguke. Gure kasuan, “sugea” eta “sua/sugoi” artean laister sortuko den aurkakotasunak “suge” elementuari esanahia eman diezaioke. Aurkakotasun haietara, bai hizkuntzalaritzaren aldetik, zein korpus folklorikoren eskutik iritsi gaitzke (baina, beti era sendagoaz bi aldetatik elkarrekin, metodo globalaren arabera). Azken horretarako sineskizunek informazio garrantzitsua eskaintzen digute, aurkakotasunen egokitasunak frogatzen dizkigutelarik, jakina. Horrela, aurkakotasun asko lege etiko edo moral bihurtu dira. Hauxe gertatuko zaigu laister “su” eta “esne” elementuez mintzatzean.

Zutabeak eta haien arteko harremanen giltzak jaso ondoren gure ipuinak zentzu logikoa hartuko du, eta baliteke hortik aurrera “ipuin” hitza ez erabiltzea eta bai, ordea, “mitoa”.

Sarreraren aipatu den moduan, mitoa eta erritua erlazionatuta daude¹⁷. Gure kontakizunarentzat errituala bilatzea ez da batere erraza izango, ziuraski ez zailgulako aztarnarik iritsi, besterik ez. Baina urratsa luza dezakegu lan konparatiboaren bidez muga finkoak ezartzerakoan. Mitoak azaldu nahi duena ulertzea lagungarria izango da ardura berezi horretan. Derrigorrezkoa dagokigu mitoa sailkatzea, eta hortik aurrera konparaketa arazoetan murgiltzea.

Ondorengo ikerketaren filosofia giltza orokor eta generiko horietan finkatzen da, eta era berean mugatzen zaigu. Laburpen gisa, hauexek izango dira urratsak:

- 1) Kontakizunaren egitura formala ezagutu, lehenengo irakurketaren ondorioz. Horrela, hiru zutabeen arteko harreman fenotipikoak begi bistan gedituko zaizkigu.
- 2) Zutabeen ikerketa kontakizunetik kanpo egitea, hiru elementu horien jokakerak beste mito eta sineskizunetan uler ahal izateko.
- 3) Ikerketaren ondorioak gure iturburuko kontakizunera garraiatzea eta erabiltzea, barne-egitura ezagun eta ulergarria bihurtzeko.
- 4) Elementu bakoitza adieraz beterik, eta barne-egitura finkatu ondoren, mitoaren esanahia berreskurtzea.
- 5) Ahal den neurrian, mitoari dagokion era errituala antzematea.

Baliabide moduan, Euskal Herriko mito-kontu (M) eta sineskizun-errito-jokakera (S) ugari erabili beharko ditugu. Testua irakurtzerakoan behin eta berriz aipatzen direnez gero, eta ikur giltzetan ez gaitzezen gal, eranskinetan mito eta sines-

17. Erlitio zientziarentzat garrantzi handikoa den postulatu hau M. Eliadek oso sakonki garatu du. Haren baliabiderik interesgarrienak arlo honetan “Mito y realidad”, idazlanean aurki daitezke, batez ere I, II eta III ataletan (Barcelona 1981). Baita ere, E.O. Jamesen liburuan, “Introducción a la historia comparada de las religiones”, IV kapitulua (Madrid, 1973).

kizun horien guztien zerrenda azaltzen da, laburpen txikiez apainduta. Goazen aurrera.

1.3. Sarea

Lehen aipatu den moduan, oraingo ekintza kontu mordoaren irakurketa bereizketatua egitea da, aldaera guztien arabera, eta parte hartzen duten aldaerak behatuz. Orduan, gure materialaren lehenengo irakurketa sekuentzializatua horrelakoa izan daiteke:

1. Bi aldaeratan, Saratsu (M5) eta Gorritikoetan (M7) hain zuzen, azalpen interesgarria eskaintzen zaigu. Sugeak, esnea lortzeko nahian, abere emeen hanketatik gora igo daitezke, eta titietatik likidoa zuzen zurgatzen dute.

Sugeak esnezaleak direla argitzen zaigu, eta modu horretan adierazita ondorengo sarea ulergarri bihurtzen zaigu. Azalpen hau erreferentzia berezia da ulermena elikatzen duelako, eta ipuinetan horretarako kokatzen da (Euskal Herritik kanpoko beste lekuetan sineskizunetzat jotzen da, eta bizitzaren beste arloetan ere onartzen da, sugeak harrapatu nahi denean, adibidez). Nolabait, puntu hau sarrera gisa onar daiteke gure ipuinen egitura formalean, baina ez da beti derrigorrezkoa, dirudienez. Orduan, jasotako bi adibidetan bakarrik beha daiteke. Beste kasu guztietan, informazio berezi hori adierazi gabe mamira jotzen da (jakintzat ematen delarik, ote?), eta kontakizunak zentzu osoa gordetzen du hala ere.

2. Artzainak suge txikia edo sugekumea aurkitzen du eta esnez elikatzea erabakitzen du.

Artzainaren jokaera ulergarritzat jo daiteke, goiko azalpena onartzen delarik. Baina, hala ere, jokabide hau ez da arrunta, eta modu horretan nabarmentzen zaigu. Kontraturakotzat hartuta, sugeek esnea atsegin dezaten gauza bat da, baina jaso eta esnez elikatzea arkumea izango balitz bezala desberdina da, ordea. Ipuin horren berezitasuna da azken hau zehazki. Jakinmin izugarria izateaz gain, bidea zabaltzen da etorkizuneko harreman ez-arruntarentzat.

3. Une horretatik aurrera artzaina eta sugearen artean harremana sortzen da. Gizonak egunero esnea eskaintzen dio. Sugea ez bada agertzen gizonak txistuka dei egiten dio.

Harreman hau normaltasunaren aurka doa gizakiek ez baitituzte sugeak elikatzen. Sugea piztia akabagarria izaten da ordea. Beste aldetik, sortutako harreman ezohikoak komentsalismoaren itxura jasotzen du. Gizonak esnea ematen dio, baina piztiak ez dio inongo ordainketarik luzatzen bere babesleari, edo gutxienez horrela adierazten da kontuan. Jaso daiteken informazioaren bitartez, harreman horretatik artzainak ontasunik lortzen duenik ezin dezakegu susma formalki.

4. Arazo desberdinengatik, artzainak sugea denboraldi luzean lagatu egiten du. Epe honetan piztiak ez du esnerik lortuko gizonarengandik.

Etenaldi objektibo horren bitartez, bien arteko harremana hausten da zeharo. Kontu desberdinak direla eta, artzainak ezin diezaioke sugeari esnerik eskaini, beraz, erlazioak etena du. Orain ere hauxe da aipagarria: artzaina, kasu gehienetan berriro bere mundura itzultzen da, hau da, herrira, familiarengana, zibilizaziora hitz batean esanda. Bitartean, sugea mendian ahazten da, oihanean, bera bezalako izaki basatien erreinuan. Hasieran elkartu ziren munduak banatzen dira berriro. Etenaldi horre bidez, kontrako bi polo hauek haien jatorrizko lekuetara mugitzen dira.

5. Denbora igaro eta berriz biak batzen dira. Sugeak munstro itxura hartzen du, handia, arriskutsua, beldurgarria. Une horretan, ez dago esnerik eta sugeak gizona hiltzen du adibide gehienetan (M1, M2, M3, M4, M7). Beste bitan artzainak bere burua (eta emaztearena ere) salba dezake Ama Birjinaren bitartez (M5, M6).

Etenaldiaren ondorioa begi bistan dago. Esnerik gabe, ez dago harreman baikorrik. Hurrengo elkarketan artzaina hiltzen da, sugeak itota, edo gutxienez haren bizitza arrisku sendoan jartzen da. Beste aldetik, erlazioa mozturik, eta esnearen ukapenaren aurrean, suge txiki hura, guztiz maitagarria, munstro hiltzaile eta ikaragarria bilakatzen da.


1.3.1. Oraingo zenbait ondorio labur

Laburpen honen bidez egitura formalaren aurreko eskema finkatu egin dugu. Hemendik, berehalako zenbait ondorio lor ditzakegu:

a) Esnearen garrantzia egitura barruan handia da, bere bitartez artzaina eta sugearen arteko harremana gertagarria bihurtzen baita. Gizona eta piztiak materializatutako bi mundu aurkakoak ez lirateke harremanetan jarriko ez balitz esnearen bidez izango. Esneak haien arteko mugak gaindiaraztea bideratzen du.

b) Harremanak komentsalismo itxura jasotzen duela idatzi da lehen, gizonak eman eta piztiak hartu. Baina horien arteko jarraipen ahul hori haustera koan, ondorio latzak datozkio artzainari, hilko da eta. Komentsalismoa sortzen da, baina egoera hori hautsi ondoren komentsala babeslearen hiltzaile bihurtzen da.

c) Beste aldetik, esnea nolabaiteko katalizatzailetzat erakusten zaigu. Bere bidez harremana litekeena bihurtzeaz gain, likido zuriak parte hartzen duen heinean sugea ez da piztiatzat kontsideratzen, polita eta maitagarritzat baizik, zenbait aldaeretan jakinarazi zaigunaren arabera. Nolabait, katalizatzaile ezezkorra da, bilakaeraren prozedurari fretoa ezartzen diolako, hau da, sugea edo sugekumea ez da munstro bihurtzen. Azken batean, esneak berak lortzen du sugea arriskutsua ez izatea gizonarentzat, artzainaren babesa. Artzainarentzat, gauzak ondoko eskemaren arabera gertatzen dira:



Bukaeran, sugearerik harremanak heriotza dakarkio gizonari. Esneak bien arteko elkarketa gauzatzen du, baina parte hartzen duen neurrian eta garaian bakarrik. Beraz:



1.3.2. Hurbilpen geografikoa

Ondoko arazoak hurbilpen geografikorako mugimendua eskatzen digu. Kontakizunen jatorrizko lekuak mapan kokatzen baditugu, hauxe beha dezakegu: Gipuzkoa eta Bizkaiaiko aldaerek, Atlantiko aldekoek hain zuzen, amaiera berdina barneratzen dute. Hemen artzaina sugear hiltzen du. Araban, ordea, Ama Birjinaren bitartez sugear hiltzen da. Nolabait azken horiek kristianizatuagoak aurkitzen dira, kristautasun aldetik irtenbide baikorra ematen da eta. Hala ere, beste aldaeretan arazo hau ez da nabaria, eta hasierako elementu gehienek irauten dute freskoagoak. Kristautasunean sugear hartzen duen balore sinbolikoa oso ezaguna da. Ama Birjina eta sugearen arteko borrokaren gaia oso ugari erabili ohi da ikonografian, esate baterako. Beti sugear alderik txarrena eraman du burruka mitiko eta kosmogoniko horretan. Beste aldetik, kristautasuna lehenago finkatu zen Euskal Herriko hego aldeetan, beste lurraldeetan baino. Garaia bada, hain zuzen ere, zutabeen esparru sinbolikoei hasierako begirada emateko.

2. SUGEA

2.1. Aurkako munduak

Artzaina eta sugear irudikaturiko munduak desberdinak direla, eta era berean aurkakoak, lehen aipatu da, baina oraingoz ideiarene mamian sakondu gabe. Kontrakotasun horiek nola zehazten dira, bada?

Kulturalki artzainaren mundua zibilizazio eta ordenaren eremua da. Alde batetik, artzaina, beste gizakiak bezala, leku zibilizatuan bizi da: bordan, nekazariak baserrian egiten duen bezala. Ordea, sugearen bizilekua haitzuloa da, lur barruan, eta horrelako lekuetan kokatzen da bere ekintzetarako Euskal Herriko sineskizun-korpusaren arabera, nolabait esateko, ez-zibilizatuak diren lekuetan. Haitzuloarekin batera lur gaineko urak ezarri behar ditugu, laister ikusiko dugun moduan.

Artzaina zutik mugitzen da, bere abereak bezala: behiak, ardiak, ahuntzak. Sugea lur gainetik narrazten da. Lehenengoa gizaki eta haren munduaren ibilke-

ra berezkoa da, zibilizatua berriz. Bigarrena ez, ordea. Arazo hau oso sartua dago herri-pentsaeran¹⁸. Narratzen diren izakiak arriskutsuak dira, kaltegarriak edo gutxienez mesprezagarriak. Ulergarria denez, ideia hori ez dago euskaldunongan bakarrik ezarria. Mendebaldeko Europa osoak pentsamolde berdina onartzen du. Hona hemen sugearen gaiztakeriazko nortasunaren adibide bat:

(S1). Zugarramurdiarren ustez, Mondarrain mendian urre meatza aurkitzen da, baina inor ezin da hurbildu suge, zakur eta horrelako piztia gaizto eta deseratuez babestuta dagoelako¹⁹. Sugea kaltegarria da eta haitzuloe-tan bizi da.

Euskal Herriko pentsaeran, beste aldeetan bezala, sugea kaltegarria da gizakiarentzat, eta mina ekar dezake beti. Errealitate mailan horixe ez dela inondik egia badakigu, hau da, ez da parekotasunik kultura eta errealitatearen artean. Gure Herrian bizi izaten diren narratzi gehienek ez dute inongo minik sortzen. Alderantziz, zelai eta baratzetan aritzen diren parasitoak jaten dituzte. Baina, herri-pentsaeraren mailan sugea arriskutsua da.

Bestalde, goiko sineskizunean sugea eta zakurra parekatzen dira, parekotasun kulturala hau ere, jakina. Zakurra etxe eta artaldean zaindaria izan daiteke, baina piztia kaltegarritzat ere onargarria da euskal pentsamoldearentzat, zenbait kontakizunek adierazten duen moduan.

Itzul gaitezen berriro sugearen eremura. Gauzak horrela izanez gero, euskaldunok piztia horretatik gure burua babesteko trikimailu kulturalak asmatu ditugu. Adibidez, bere hozkadaren aurkako sendabideak hauexek dira:

(S2). Leitzan, sugeak kosk egiten badu, "Salbea" alderantziz otoitz egin behar da sendatu nahian²⁰.

(S3). Elorrio, Dima, Baztan, Arroa, Garazi eta Haltsun, kosk egin dionari zauria irekitzen zaio labanaz gurutze eran²¹.

Kristautasunaren ikus puntutik sugeak balore ezezkorra jasaten duela arazo zeharo ezaguna da. Orduan, erlijioa ere sendabide bilakatzen da, zenbait erritoren bitartez.

Piztia honi buruz mintzatzerakoan badaude debekatuta diren zenbait hitz, errespetagarriak direnak, hitz tabuatuak hain zuzen. Tabua hautsita, irtenbide erlijiosoetara jo behar da berriz:

18. Gizakia bertikaltasun osoaren nagusia, eta ondorioz egoera bertikal sinbolikoaren ikurra. Bitartean, sugea planu horizontalaren jaberik esanguratsuen.

19. Barandiaran, J.M., "De etnografía de Navarra", 30 (Nafarroa 1987).

20. Azkue, R.M., "Euskalerrriaren Yakintza", I., 438 (Madrid 1989).

21. Azkue, R.M., "Euskalerrriaren ...", I, 438.

- (S4). Sugeaz mintzatzean ezin da “hil” hitza erabili. Hau ez bada kontutan hartzen, gizakiak harri gainean minganez hiru gurutze marraztu behar ditu, eta baita ere harriari hiru musu eman²². Mingainak sartu du hanka, berak egin behar du penitentzia, orduan.
- (S5). Sugea “hil” erabili ordez badaude beste aukerak Euskal Herriko leku askotan. Esate baterako, “sugea amaitu, sugea kalitu, sugea hautsi, akabatu”²³.
- (S6). Sugeari “suge handia” ezin zaio deitu, “suge mortala” baizik. Horrela pentsatzen da Gipuzkoako herri batzuetan²⁴.
- (S7). Norbaitek hiru suge aurkitzen baditu, bekatuan dagoela uste dute Nafarroako zenbait tokitan²⁵.

Sugearen koskari aurre egiteko, baratzuria erabiltzea beste sendagaitzat onartzen da. Baratzuria, mota askotako gaixotasun eta gaiztakerien aurka erabili ohi da Euskal Herriko medikuntza herritarrean:

- (S8). Diman, norbaiti kosk egiten badio, baratzuria ematen zaio zaurian²⁶.
- (S9). Zuberoan, zauria baratzuriz “erre” behar dela uste dute²⁷.
- (S10). Sakelan baratzuria eramaterakoan ez dago arriskurik sugearekiko, Nafarroako leku batzuetan sinesten duten moduan²⁸.

J.G. Frazerren hitzetan “magia homeopatikoa” deritzan teknikaren aldetik beste sendagaiak sortzen dira:

- (S11). Sakela barruan suge azala eramaten bada honek ez duela minik egingo uste dute Nafarroa eta Zuberoan. Era berean, sugearengandik ihes egiteko gorantz joan behar da, ez beherantz²⁹.

Sugea hiltzeak ontasuna dakarkio erailtzaileari:

- (S12). Sugea erailtzean Zerura igotzeko eskailera irabazten dela pentsatzen da Gipuzkoan, eta Bizkaian, berriz, barkamena lortzen da³⁰.

22. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

23. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

24. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 439.

25. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 440.

26. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

27. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

28. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

29. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 438.

30. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 437-438.

(S13). Ursuaranen, sugea hil ondoren kredoa otoi egiten zen eta horrela purgatoriotik arima bat askatzen zen³¹.

Aurreko sineskizunek hauxe azaltzen digute: sugea piztia madarikatua da, arriskutsua, era guztietako izaki ukakorra. Erailtzea komenigarria bihurtzen da, eta modu horretan ondorio onak lor ditzake erailtzaileak. Ez da interesgarria hiru suge ikustea, gertaera horrek gizakia bekatuan dagoela azaltzen duelako (suge zelataria!). Sugeetatik babesteko erabilgarriak diren metodoak erlijiosoak dira, sugeari balore erlijiosoa ematen baitzaio, baina ezezkorra, jakina. Orduan, kristautasunaren errito eta otoi zehatz batzuk erabilgarriak dira. Ez du balio edozeinek, eta finkaturiko pautak aurrera eraman behar dira.

Sugea esnezalea dela aipatzen da gure kontakizunetan, eta horrela sinesten da Euskal Herritik kanpo ere: esnea zurgatzen du zuzenki abere emeatatik. Horretarako, hanketatik igotzeko gauza da, edo artzainak esnez elikatzen du. Baina, esnezaletasun hori noraino iristen da? Hona hemen beste sinesmen interesgarria:

(S14). Sugea piztia ikaragarria da. Amak haurrari titia ematen badio, hura hurbiltzen da eta esnea lapurtzen du. Sugeak, bere buztanaren muturra haurraren ahoan sartu eta, bitartean, amaren esnea zurgatzen du. Horrela gertatzen dela pentsatzen da Ipar Euskal Herriko leku askotan³². Sugearen nortasunean berriz agertzen zaigu esnea (eta kaltezaletasuna ere bai).

Amari esnea zurgatzeko gauza bihurtzen da gure sugea, eta umeari elikadura kendu. Amek badakite hau, eta kontutan izaten dute. Ipuinean, artzainarentzat maitagarri eta ederra izan daitekeen piztia ez da modu bereberean behatzen pentsaera herritarren ikus puntutik. Lapur bihurtu daiteke gizakiarentzat, ama eta haurrari esnea kentzen. Horrelako ekintzetara iritsi daiteke piztia, eta hauxe ere ez bakarrik euskaldunengan. Sineskizun berbera beha daiteke Europako leku askotan³³.

Jo dezagun beste puntu batera orain, eta horretarako hizkeraren ereduari behatuko diegu. Gizakiaren mintzaera hitza da. Hori, orduan, elementu zibilizatua da gizonarentzat bere nortasunetik sortzen baita. Bestalde, euskal pentsaerarentzat sugearen hizkera txistua da:

31. Azkue, R.M., "Euskalerraren ...", I, 437-440.

32. D´Abbadie D´Arrast, "Charlas sobre el País Vasco: la mujer y el niño", 214 (Donostia, 1959).

33. Galizian bertan sineskeria berdina adierazten da eremu herritarrean: sugeei esnea asko gustatzen zaie, eta horrexegatik etxeetara isiltasunean sartzen dira. Orduan, emakume edo behien esnea zurgatzen dute, hauek konturatu gabe. Haurrak ez dezan egin negarrik, sugeak isatsa ahoan sartzen dio. F.M. Antón eta M. Mandianes, "La serpiente y los habitantes del agua", 111 or., "El agua. Mitos, ritos y realidades" idazketa eta hitzaldi bilduman, 1992ko Granadako Mintegia (Barcelona, 1995).

(S15). Sugea azala aldatzerakoan norbaitek larru zaharra lapurtzen badio, piztiak txistuka azaltzen du adostasun eza³⁴.

Sugeak zerbait adierazi nahi duenean, txistua erabiltzen du hizkera moduan. Horrexegatik artzainak sugea txistuka deitzen du ipuinetan. Gizona piztiari bere hizkeraz zuzentzen zaio eta horrek, jakina, kodea uler dezake. Zalantzarik gabe artzainarengana hurbiltzen da, txistua airean, eta fluxu komunikatibo gisa dagoenean.

Artzainaren eremua baikor eta zibilizatutzat ematen da, berea delako, berak sorturiko mundua eta harreman egitura. Horren aurka sugearena hedatzen da, piztia basatia, arriskutsua eta kaltegarriarena. Aurkakotasun horiek konpara ditzagun ondoko laukiaz:

Artzaina(k)	Sugea(k)
Bordan bizi Lur gainean kokatua Zutik ibili Onuragarria Sugea laguntzen du Hitza darabil	Haitzuloan bizi Lur azpian kokatua Arrakasta ibili Kaltegarria Artzaina hiltzen du Txistua darabil
Zibilizatua Baikorra	Ez-zibilizatua Ezekorra

Artzainaren jarrera, sugearen aurrean, onuragarritzat hartu behar dugu. Zergatik, bada? Piztiari mina egin ordez, jaso eta esnez elikatzen duelako. Alderantziz orain, sugeak ez dio ontasunik ekartzen artzainari, ez hasieratik, gutxiago oraingoz amaitzean. Bai, ordea, kaltea esnearen faltaren aurrean. Une horretan, bere babeslea erailtzera irits daiteke.

Bi izaki hauek azaldutako munduak aurkakoak direla nabaria da. Kulturalki ikusita, artzainarena baikorra eta sugearena ezezkorra. Logigoki “zibilizatu” eta “ez-zibilizatu”, “baikorra” eta “ezezkorra” hitzak subjektiboak dira zientifikoki, baina euskal pentsaeraren mamian baloreak horrela bete eta banatzen dira, sineskizun-korpusaren bidez ohar dezakegun moduan.

Euskal kontzeptu sistemarentzat animaliak hiru multzotan sakabanatzen direla baieztatzen du M. Azurmendik: lehenengo multzoan “ganadu etxetiarra” dugu (behi, ardi, oilo, zerria, adibidez). Etxean lagungarriak dira, jan eta lan egiten dute, saldu eta erosten dira, eta jangarriak dira gainera. Bigarren multzoan “txakurra eta katua” kokatzen dira. Kontrako jarrera erakusten dute egoera desberdinetan. Hirugarrenean “basapiztiak” aurkitzen ditugu. Ez dute lanik egiten etxeokontzat, lapurrak dira, gizakiaren etsaiak, askotan ehizatzen dira eta bes-

34. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, I, 440. Sugeak egarria era berdinean azaltzen duela idazten du Azkuek.

tetan akabatu behar dira³⁵. Zalantzarik gabe, sugeak hirugarren multzoko elementuen nortasuna jasaten du. Piztia talde horren kategorian zeharo murgiltzen da, eta gainera hango ezaugarri guztien aitzindaria kontsidera daiteke.

Baina, bi mundu hauen artean zubia ezartzen da gure ipuinetan. Artzaina eta sugearen arteko harreman ez-kaltegarriak sortzea gauzatzen da esnearen bidez, kotranaturazko harreman eta jokaera. Sugeak esnea hartu edo gizonak eskaintzen diona onartzen du. Orduan, gizonarengana hurbiltzen da minik ekarri gabe esnea dagoen unean. Berriro aipatu behar da: harreman hori kontraturazkoa dagokigu, eta bakarrik ipuinaren munduan sorgarria da.

Kontakizun honetan bai esnea eta bai txistua artzainarengandik sortzen dira sugearekiko harremanak finkatzeko. Artzainak eman behar ditu urratsak elkarre prozeduran. Ondorio gisa, hau azal dezakegu: aurkakoak diren bi mundu horien arteko harremana gertagarria da esnea eta txistua tartean daudelarik.

Idea berbera, ondoko eskemaren bitartez azal daiteke. Artzaina (zibilizazioa) eta sugea (izadia) elementuen artean txistu eta esnezko zubia eraikitzen da. Sortzen den harreman fluxuak erdiruntz jotzen du, hurbilpena baieztatuz.



2.2. Sugearen nortasuna

Egitura formala ikertzerakoan artzaina, sugea eta esnearen arteko goi azaleko harremanen mugak eta eraginak marraztu dira. Horrela, lehenengo bi elementu kontraturtasunean aurkeztu zaizkigu. Harremana finkatzen duen zubiak bi zutabe ditu: esnea eta txistua. Haien sinboloak agortu gabe gelditzen diren arren, gure “esne bideak” fruitu ugari eskaini beharko digu oraingoz. Era berean, sugeaz mintzatzen ez dugu amaitu.

Euskal Herriko pentsaera tradizionalarentzat eta oraintsu badakigunaz at, zer da “sugea”? Bi aldaeretan kristautasunaren aztarnak nabariak dagozkigula lehen esan dugu. Beste aldaeretan egitura zaharragoek iraun dutela behatzen da. Sugearen haginkadaren aurkako sendabideek sineskizunetan iraun dute, baina, lehen bezala sendabide batzuk kristau aztarnak jasaten dituzte eta besteek ez horrenbeste, ala ezer ez. Azken horien bidez gure aintzinako pentsaeran murgil gaitezke. Era berean, paraleloki hizkuntzalaritzaren hildotik jarraitu behar dugu aurreko guztia frogatzeko hasieran. Azken hau lortu ondoren, planteamendua babestu eta indartuta geratuko da.

35. Azurmendi, M., “Euskal nortasunaren animaliak”, 276 (Donostia, 1987).

Euskaraz, piztiaren izenak aztertu ondoren, bai sineskizunetan lortutako ondorioak eta bai hizkuntzalaritzak berak luzatzen dizkigunen artean adostasunak aurkitzen badira, bide egokian mugitzen ari garela onar dezakegu. Gauzak ez bazaizkigu horrela gertatzen, oker goazela pentsa genezake. Sineskizunetan informazioa zehatz eta konkretua da, zuzenki erlazioetan baitira ideia desberdinak. Hizkuntzalaritzaren aldetik, ordea, anbiguotasunean aritzea arrunta izan ohi da. Bide honetatik eskaintza desberdinak aurkezten bazaizkigu, korpus erlijiosoaren aldeko jarrera erakusten duena izango da gurea. Horrela, erlijio sistemen bilakaera eta hizkuntzalaritza parekotasun logikoan hedatuko lirakete kontzeptu sistema berdinetik baztertu edo alderatu gabe.

2.2.1. Hizkuntzalaritzaren emaitzak

Serpe lurtarra izendatzeko izenik erabilgarriena “suge” da, baina hitz hori ez da narratzi honentzat erabilgarria izaten den bakarra euskaldunongan. Beste aldaera eta aukerak ere badaude:

Suge: euskararen euskalki guztietan arrunta³⁶.
Suga: Gipuzkoan³⁷.
Sube: Goi Nafarroa, Bizkaia, Behe Nafarroa eta Gipuzkoan³⁸.
Subi: aurrekoaren aldaera.

Ondoko terminoak konposatuak dira, non aurreko osagaiak aurrizkiztat hartzen diren:

Sugarrasta: testu gipuzkoarrean³⁹, suge + arrasta.
Sugetzar: arrunta euskalki guztietan⁴⁰, suge + tzar.
Sugegorri: Gipuzkoan⁴¹ (suge mota), suge + gorri.

Beste narratzi mota batzuk izendatzeko “suge” hitza eta bere aldaerak ere erabiltzen dira, adibidez, “sugelinda” eta “sugelindara”⁴², “subekandela” eta “subemandil”⁴³. Era berean, botanika arloan zenbait landare sugeaz erlazioetan du herri-pentsaerak hizkuntzaren bitartez: “sugamats” eta “sugartaburu”⁴⁴, “suge-bedar”, “suge-gerezi”, “suge-idar”, “suge-ilhar”, e.a.⁴⁵. Hitz konposatu hauek guztiak landare mota konkretuak izendatzeko erabiltzen dira.

36. Azkue, R.M., “Diccionario vasco-español-francés”, II, 234 (Bilbo 1969).

37. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 233.

38. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 232.

39. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 233.

40. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 234.


41. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 234.

42. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 234.

43. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 232.

44. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 233.

45. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, II, 234.



Baina, jo dezagun berriz hasierako puntura. “Su” izena errotzat aurkitzen dugu, atzizki batzuei lotuta: “ge”, “ga”, “be” eta “bi”:

Erroak, zalantzarik gabe, suaren ideia dakarkigu burura, hau da, sugearen izenak suaren irudia deitzen digu alegiazko eremura. Baina, ideia hori ez dago beterik oraingoz, edo gutxienez ez da hor amaitzen. Orduan, hitz horietan suarekin gertatzen dena, hau da, “su” kontzeptua nola osatzen den, atzizkiek ezagutarazi beharko digute: “ge”, “ga”, “be” eta “bi” atzizkien esanahia jakin behar dugu suaren kontzeptua osatzeko. Horretarako, atzizki hauek daramazkiten beste hitzak aztertzea komenigarria izango da ikerketarako bide bezala:

“ge”. Oso ugariak dira. Hona hemen adibide batzuk:

Minge: mutua (mingainik gabe)⁴⁶.

Jakinge: tutik ez dakiena (jakin gabe)⁴⁷.

Argige: ilunpean (argirik gabe)⁴⁸.

Alge: egitea ezin duena (ahal izan gabe)⁴⁹

Beldurge: beldurrik sentitzen ez duena (beldurrik gabe)⁵⁰.

Gargaige: pekatuan dagoena (gargairik gabe)⁵¹.

Donge: erlijiorik gabea (Deun gabe)⁵².

Elduge: heldua izatera iristen ez dena (heldu gabea)⁵³

Elge: “elduge” bezalakoa⁵⁴.

Soinge: materiari gabea, gorputzik gabea⁵⁵.

Izarange: sortu gabea, egin gabea⁵⁶.

Sinisge: sinesmenarik ez duena⁵⁷.

Lange: lur landu gabea⁵⁸.

46. Mugica, P., “Diccionario castellano-vasco”, 1.231 (Bilbo 1965).

47. Mugica, P., “Diccionario ...”, 994.

48. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1277.

49. Mugica, P., “Diccionario ...”, 879.

50. Mugica, P., “Diccionario ...”, 998.

51. Mugica, P., “Diccionario ...”, 998.

52. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.000.

53. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.004

54. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.004.

55. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.011.

56. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.012.

57. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.012.

58. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.013.

Zeinge: mugatu gabea⁵⁹.
Kaltege: mina hartu ez duena⁶⁰.
Senge: emakume soildua (umeak izan ezin duena)⁶¹.
Tolesge: tolesgabea, amarru gabea⁶².
Eskerge: eskergabea, esker gaiztokoa⁶³.
Oige: ohiturarik ez duena⁶⁴.
Kutsuge: garbia, kutsatu gabea⁶⁵.
Erruge: errurik ez duena⁶⁶.
Bazterge: mugarik ez duena⁶⁷.
Aldage: alda ezina⁶⁸.
Igige: mugikorra ez dena⁶⁹.

“ga”. Oso ugariak dira baita ere:

Deunga: “donge” bezelakoa⁷⁰ (erlijiorik gabea).
Donga: “donge” bezelakoa⁷¹ (erlijiorik gabea).
Indarga: babespiderik gabea (indarrrik gabe)⁷².
Gozaga: gozotasunik ez duena (gozorik gabe)⁷³.
Eskerga: esker gaiztokoa (eskerrik gabe)⁷⁴.
Lotsaga: lotsagabea (lotsarik gabe)⁷⁵.
Kolorga: margorik ez duena (kolorerik gabe)⁷⁶.
Itsurga: itsusia (itsurarik gabe)⁷⁷.
Ulega: burusoila (ulerik gabe)⁷⁸.

59. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.014.
60. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.014.
61. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.021.
62. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.026.
63. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.026.
64. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.027.
65. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.029.
66. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.029.
67. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.030.
68. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.005.
69. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.010.
70. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 202.
71. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 205.
72. Mugica, P., “Diccionario ...”, 996.
73. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 365.
74. Mugica, P., “Diccionario ...”, 588.
75. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 554.
76. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 312.
77. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 441.
78. Azkue, R.M., “Diccionario ...”, I, 357.

Aierga: grinarik gabea⁷⁹

Itxurga: itxura gabea⁸⁰.

Esgerga: pertsona eskergabea⁸¹.

Moldanga: kankaila, moldakaitza⁸².

Ibilga: mugi ezin daitekeena⁸³.

Egintzaga: bete gabea gelditzen den gauza⁸⁴.

Melenga: saporerik gabe⁸⁵.

Artega: Lasaitasunik gabe⁸⁶.

Longa: geldoa, mugimendurik gabea⁸⁷.


“be”. Atzizki hau daramatenak ere oparoak dira. Esate baterako, “gabe” bukaera daramaten hitz guztiek (edo “kabe”): “lotsagabe” “ordaingabe”, “araungabe”, “adingabe”, “naigabe”, “ezurgabe”, “atsegabe”, “erantzukigabe”, “oharkabe”, “ustekabe” e.a.⁸⁸

Erabe: alperra (erarik gabe)⁸⁹.

Gokabe: arima gabea⁹⁰.

Zenbait euskalkitan, aurreko hitzen (edo antzeko hitz multzoen) laburtzape-nak arruntak dira, eta zeharo erabilgarriak: “lotsabe”, “ordainbe”, “adinbe”, “jan-be”, “dirube”, “ezkondube”, e.a.

Euskal hiztegietan antzeko adibide asko aurki daitezke. Hizkuntzalaritzaren hildotik gure lana astun bihurtu gabe, “ge”, “ga” eta “be” (eta honen aldaera “bi”) atzizkiek azaltzen dutena nabaria da: laguntzen duten hitzaren esanahiaren hutsa edo falta. Atzizki hauek beste atzizki osatuagoetatik eratorriak dira, “gabe” eta haren aldakiak hain zuzen ere: “bage”, “baga”, “kabe”, “ba(ko)”, “ba(ga)rik, e.a.



79. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.015

80. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.024.

81. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.026.

82. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.026.

83. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.031.

84. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.032.

85. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.035.

86. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.046.

87. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.005.

88. Mugicaren hiztegian “i” hizkiaren atalean oso ugariak dira, 991-1.055.

89. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.371.

90. Mugica, P., “Diccionario ...”, 1.005.

Honen segida dena, hizkuntzalaritzaren ondorio moduan, erraz ohargarria da. “Su-ge”, “su-ga” eta “su-be(bi)” hitzen balore semantikoa hauxe da: surik gabea, surik ez duena, sua faltan izaten duen izakia⁹¹.

“Su” izena eremu morfosemantikokoaren (EMS) gune semikoa (GS) dagokigu, eta orduan bere baitan kokatzen da erritmo analogikoa. “Su” ideia ingurutik hitz mordo handia zabaltzen da, euskal hiztegietan nabarmena izaten dena. Baina, erritmo hau ez da fluktuatzen zentzu berberean EMS-aren planu guztien zehar eta objektu guztietan. Euskararen eratorpenaren teknika dela eta, zenbait objektuk GS-aren ideia, erritmo analogikoa, ez dute baieztatzen, ukatzen dute baizik, gorago behatu ditugun atzizkiez azalgarria den moduan. Hala ere, hitz hauek ere EMS-aren elementuak dira, baikorrak bezalakoak baina beste norabidetik fluktuatzen direnak.

Bestalde eremu berdinetatik abiatu gabe oraingo, aztergai den GS berbera garraiatzen duten hitz batzuetan zalantzak ager daitezke esanahiaren aldetik, eta ondorioz aurkakotasun semantikoetara iritsi gaitzke. Behaketa sakonagoak argia eman behar digu. Hona hemen zenbait adibide:

“Sugei”: erre daitekeen edozer gauza. Baina, “sugai” hitzaren aldaera da, eta ez dauka ezer ikusirik “su-ge” (su-gabe) hitzarekin, nahiz eta “g” agertu.

“Sugeldo”: ikatz kondarrak sutean, su-geldo (gelditu). Berriz “g” hau beste kategoriakoa da.

“Sugal”: suteka (etxeka), “sukal” hitzaren aldaera.

Horrelako hitzetan okertasunak agertzearen, haien azterketa, bai deskonposaketaren bidez, bai eratorpenaren bitartez, esanahia gure ideiatik baztertzen da (su-gabe), nahiz eta EMS berdinen objektuak izan.

Idea garrantzitsu hau sineskizunen bidez frogatu eta gero osatu behar da. Era berean, korpus erlijioso eta hizkuntzalaritzaren harremanen bidez adostasuna agertzen den ala ez baieztatzea beharrezkoa da. “Suge” hitzaren balore semantikoa “surik gabe” baldin bada, sineskizunen bidez “sudun” esanahia jasotzeko ez luke inongo logikarik izango. Ordea, azaldu dugun hipotesiak sentidu osoa lortuko luke sineskizunek sugea eta ura zuzenki eta zalantzarik gabe harremanetan jarriko balituzte, sugea eta suaren aurkako kontzeptua.

“Suge” hitzak aipatzen duena ez da izakiaren izena, honen kalitate bat baizik, hau da, surik ez izatea. Nolabait, beste lurraldeetako deidadeen izen tabua-

91. Antzeko hitzak “su”rekin aurki daitezke aurkako esanahiaz, adibidez “sugate” (Azkue, “Diccionario ...”, II, 234). Baina orduan hitzaren deskonposaketa ez da su-gate, su(g)ate baizik. Azkuek berak azaltzen duen adibidean hori eta antzekoak “suete”, “suete”ren aldakiak dira. Kasu honetan “g” horrek balore fonetikoa darama, besterik ez. Berdin gertatzen da beste hauetan: “su(g)atze”, “su(g)eldo”, e.a.

tuaren antzera, deidadea izendatzeko horren kualitateta edo ezaugarri berariazkoa erabiltzen da⁹².

2.2.2. Sineskizun korpusetik jasotako emaitzak

Suge, ile eta uraz Azkuek ondoko sineskizunak jasotzen ditu:

- (S16). Ilea urez betetako ontzian utzita, suge bihurtzen dela pentsatzen dute Euskal Herriko leku askotan. Sineskizun berdina dago zaldieen ileetat. Baina Bizkai eta Gipuzkoako toki batzuetan sineskeria hori zehaztu egiten da: emakume eta behorren ileak baldin badira aipatutakoa gertatzen da bakarrik⁹³.
- (S17). Sugeak zaldi ileetatik datozela uste dute Elorrio, Dima eta beste nonbait⁹⁴.
- (S18). Bizkaian, hormetako zuloetan emakumeen ileak utzita, suge bihurtzen dira⁹⁵.
- (S19). Ezpeletako biztanleak bere behorren buztan ileak ebaki eta uretan bota zituen. Egun batzuk igaro ondoren suge bihurtu ziren⁹⁶.
- (S20). Norbaitek gizaki edo behorren ileak irentsiko balitu, sugeak haziko litzaizkioke bere barnean⁹⁷.
- (S21). Bizkaiko zenbait lekutan ileak uretan utzi ordez, ez daitezen sugeak bihur, sutara botatzen dituzte⁹⁸.

Sugeek ileetan dute jatorria (ez diogu “jatorri bakarra”). Ilea uretan utzita suge bihurtzen dira. Ilea, sugea eta uraren artean adostasuna dagoela ikus daiteke horrela. Nola finkatzen da elkar erlazio hori?

Ileak sugearen umekiak dira eta uretan hazten dira suge bihurtu arte. Eraldakuntza horretarako ura beharrezkoa da. Aitzitik, ile/sugeak sutan desegiten dira.

Baina leku batzuetan oraingoz gehiago sakontzen dute sineskizun horietan: ileek emakume edo behorrenak izan behar dute, emeak biak. Orduan, nolabait emakume eta behorra parekatzen ditu kontzeptu sistemak egoera horretan. Ez gara sartuko orain parekotasun honetan, azalpena gehiegi ez luzatzeko asmoz,

92. Frazer, J.G., “La rama dorada”, 307-309 (Mexiko 1979).

93. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 80.

94. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 80.

95. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 80.

96. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 439.

97. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 439.


98. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 439.

baina ondoko ideia gorde dezagun buruan oraingoz: emakume eta sugearen artean korrelazioa dago, emakumearengandik sugeak lor baitaitezke uraren bitartez.

Hots! Honek ez du esan nahi emakumearen balore sinboliko guztiak aukera honetan bakarrik fluktuatzen direnik, egoera konkretu batean emakume eta sugearen artean azaldutako harreman intimo eta berezi hori dagoela baizik. Hau dela eta, harremana noraino eraman daiteke? Sineskizun-korpusak bide zabala irekitzen digu aurrean:

- Emakumearen ileak suge bihur daitezke baldintza batzuen arabera.
- Emakumearen ileak sugearen umekiak izan daitezke, aurreko baldintzak ematen direnean.
- Suge umekiak uretan hazten dira (baldintza bat ura da).
- Suge umekiak emakumearen zatietatik sor daitezke, (ileetatik hain zuzen ura tartean dagelarik).

Ondorioa begi bistan dago: emakumea eta sugea harremanetan kokatzen dira egoera konkretu honetan, hau da, uraren bitartez. Ondoko hirukiak harreman honen ideia azaldu nahi digu. Erpinetan elementu bana kokatzen da. Goi-koan elkarketa ahalgarri bihurtzen dena, hau da, ura, eta oinarrietan, beheko planuan azken finean, estuki heltzen direnak, sugea eta emakumea:



Euskal Herriko pentsaera herritarrean, beste leku askotan gertatzen den moduan, sugea pitzia emea da, eta suge arra izatekotan nolabait azaldu behar da haren egoera, emearentzat, ordea, beharrezkoa ez dena. Zenbait hiztegitan “sugoi” hitza “culebro”tzat itzulita aurki daiteke, hau da, sugearen arra. Hitz hori bere termino guztietan aztertzen badugu, balore semantiko horretara mitologiaren bitartez iritsi dela beha dezakegu, pitzia mitologiko horrek gizon itxura beregana dezakeelako. Baina, “goi”-“koi” atzizkien azterketa linguistikoak ez dakar esanahi hori. Hala ere, behin baino gehiagotan bi irtenbide hauek nahastu egin dira, eta orduan ondorio latzak lortu dira. Hasierako irizpideak, bata linguistikoa eta bestea mitologikoa, ez zeuden ondo oinarrituta.

Baina, emakumea eta sugea noiz pareka daitezke? Haien artean ura aurkezten delarik, lehen esan dugun bezala.

Bestaldetik, sugea emea izanez gero, logikoki emeen ileak sugeak bihur daitezke, hau da, emakume edo behorrarenak, naturan berberean aurkitzen direlarik. Ura da katalizatzailea bihurketa horretan. Sugea eta uraren arteko harremana ez da mugatzen goiko sineskizunen bilduma laburrean, ezta gutxiago ere. Harreman horren beste adibideak badaude euskal kontakizunen artean. Hurrengoan ere ikus daiteke:

(M8). Jai egunean San Pedro eta Jesukristok mezetarako kanpaiak entzun zituzten. Elizara joan zitezene esan zuen Jesukristok, baina Pedoren ustez elizako apaiza ez zen ona eta ezetz erantzun zion. Ibiltzerakoan, Pedrori edateko gura sortu zitzaion. Inguruetatik iturri berezia aurkitu zuen: sugeari ahotik ura zerion. Beldurrez baina beharrez, ura edan, eta Jesukristok hauxe esan zion: “orain sugearengandik ura edanez eta lehen ez zenuen elizan sartu nahi apaiza ona ez zelako”⁹⁹.

Sugeari ura dario, iturritik bezala, baina iturri egokirik ez, apaiz hura bezain txarra dirudienez. Hona iritsi nahi genuen bide honetatik (gaiztakeriaren ikurra izateaz gain): sugearen nortasunean urak alde garrantzitsua hartzen du. S21.an aipatzen den bezala, leku batzuetan ileak sugeak ez daitezene bihur sutara botatzen dira. Oraintxe ikusi dugunarekin adostasunean kokatzen da sineskizun hori. Sugeak ez du bereganatzen inongo erlazio baikorrik suarekin, han suntsitzen baita. Bai, ordea, urarekin, non hazten den. Suak sugakumeak hiltzen ditu; aitzitik, sugearen ahotik ura sortzen da.

Sugearen nortasunaren beste elementua ikus dezagun orain. Piztiaren karaktere ztonikoa bere ezaugarrietatik sortzen da: arrastaka dabil, lurrazalean eta haitzuloetan bizi izaten da, e.a. Emakumearen karaktere ztonikoa oso eza-guna da sistema erlijioso askorentzat, Euskal Herrian ere, eta emakumearen balore sinboliko horretaz Azkuek informazio interesgarria jasotzen du:

(S22). Baztanen, pilotaz jolastean frontoian, pilota lurrera iristen bada gizonarengan jo ondoren, jokaldiak balio du eta jolasten jarrai daiteke. Baina emakumearengan jotzen badu eta gero lurrera erori, ez da ontzat ematen eta jokua geldiarazi behar da, bi aldiz lurrean jotzen duela kontsideratzen baita¹⁰⁰.



2. Irudia. Jainko eme sugeduna (Knossos jauregia, Kreta).

99. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, II, 438-439.

100. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 244-245.

Gizona airea da eta pilotak jotzen badu, airean kokatuko balitz bezala onartzen da. Baina, emakumea lurra da, eta orduan pilotak lurra bi aldiz ikutu du, bi bote. Orduan, lurra eta uraren artean nolabaiteko harreman finkorik ba al dago? Erantzuna baietza dela aurreratu behar da. Laister murgilduko gara parekotasun horretan.

2.3.3. “Suge” hitzaz beste hipotesia

2.3.3.1. *Ikuspuntu topologikoa*

Azterketa linguistikoa ez legoke amaituta beste hipotesiak ez bagenitu aztertuko. “Suge” hitzaren ordez, kontutan izanda herriko hizkeran “sube” edo “subi” oso erabiliak direla, ondorengo pasarteetan beste aukera linguistiko bat gure helburua da. Honen arabera, “sube” izan liteke jatorrizko eredia, eta handik “suge” eratorritakoa.

Hipotesi horretan, hitzaren zatiketa hauxe izango litzateke: “su” gehi “be”. Berritri, suaren ideia dakargu mahaira, eta lehen bezala atzizkiak erroa zentzuz bete beharko luke.

Euskal toponimian “be” atzizkiaren esanahia oso ezaguna da: beheko zerbait, zerbaiten behean edo azpian kokatzen den baserria, zelaia, larrea, e.a., adibidez. Askotan, “be” ordez “pe” erabiltzen da esanahi berdinez¹⁰¹. Hona hemen zenbait adibide:

- **Harbe**: Haitza azpian¹⁰².
- **Itzalpe**: Itzal azpian¹⁰³.
- **Etxabe**: etxe azpian.
- **Itsaspe**: itsaso azpian.

Bide horretatik sorturiko balore semantikoa hau da: suaren behean, edo azpian, kokatzen dena.

Halaber, “beheko” edo “beko” aurrizkiaren balorea har dezake zenbait kasutan ere. Aurrizkia bera atzizki bezala ere ager daiteke. Adibidez, “etxe”z osaturiko hiru forma hauek beha ditzakegu: “beko etxea”, “etxebekoa”, eta “etxabe”. Nahiz eta kasu bakoitzaren esanahia matizatu, bi irudi nagusitzen dira, behean kokatzen den etxea, eta etxe azpian dagoen zerbait. Lehenengoak indar handia jasaten du toponimian, eta oso nabaria da kuantitatiboki. Gure hitzera itzultiz, honeraino iritsi gaitetzke: beheko sua, edo su azpiko zerbait. Bien artean lehenengo aukerak bide zabalagoa luzatzen digu. Interesgarriagoa da, gure ustez. Eta hau, zergatik? “Su azpian” ideiak ez du jokatzeko korpus folklorikoaren aurka, baina ezta ere adostasunean, hau da, testuinguru desberdinek ez dute inongo harremanik eskaintzen suga eta su azpiko edozergauza artean. Ez dutela zeri-

101. L. Villasantek atzizkia jasotzen du bere “Palabras vascas compuestas y derivadas” liburuan, 115-117 orrietan (Burgos, 1981).

102. Villasantek, L., “Palabras ...”, 115.

103. Villasantek, L., “Palabras ...”, 116.

kusirik esan liteke euskal pentsaera herritarrarentzat. Gaur egun erabil ditzakegun kontakizun, ipuin edota sineskizunek ez dute bultzatzen halako harreman kontzeptuala.

Beste aldetik, bigarren esanahia dela eta, antzeko egoeretan aurkitzen garelaita aitortu behar da: “beheko sua” ideia ez dago ados korpus folkloarekiko, nolabait sua jasaten dugulako eredu honetan, eta sineskizunek azaltzen diguten arabera, ez dago surik sugeetan, eta badago, ordea, ura, hau da suaren aurkako kontzeptua. Nolabait, hipotesia bere baitan hiltzen da. Ez du etorkizunik ez dugulako inongo adostasunik erakusten korpus folklorikoarekiko, eta bai, ordea, aurreko orrietan aurkeztu dugunak, zeinek zeharo murgiltzen den kultur herritarren ekoizpenean.

Zilegia lekiok norbaiti “sube” eta “sugoi” aurkez aurke jartzea, hitzen eitenगतिक hain zuzen. Laister ikusiko dugun bezala, “suge” eta “sugoi” aurkako kontzeptuak dira, eta era berean osagarriak, baina beste arazoengatik. “Sugoi”ren esanahia ezin daiteke “su gainean” izan, berak sua baitarama, bere nortasunaren osagaia da, su hegalaria bera, eta ez su gainean kokaturiko zerbait izateगतिक. Eta era berean, “beheko sua”ren kontzeptua deuseztatu dugu korpus folklorikoaren bitartez. Orduan, “beheko sua eta goiko sua” onartzerik ez dago.

2.3.3.2. Sugea eta ehiza

Iparraldeko T. Peillen etnologoak, bere “Animismua Zuberoan” liburuan euskal munduko animalien sailkapenean aritzen da, eta horretarako folkloaren bideari nahiz linguistikoari jarraitzen die. Aipatutako azken hildotik abiatuz, zenbait erro islatzen ditu, geroxeago sineskizun-korpusa eta arkeologiak emandako datuekin adosten dituenak, esate baterako “ar”, “be” edo “ze” bere liburuko 2.c atalean, edota “or” hurrengoan¹⁰⁴.

Euskal kulturtzale horren iritzian “ar” erroa darakusten animalien izenak, Historiarrre garaian elikadura moduan lehenengoz ehizatutako animaliei dagozkie. Horra hor, adibidez, “ardia”, “ahuntza”, “arsto”. “Haragi” hitzari erro berbera dagokiola jakinarazten du etnologoak: “ar-gai” edo “ar-ki”. Beranduxeago, gurearengandik hurbilago kokatu behar den bigarren denboraldian, gizakia ehizatzen hasi zen animalien izenetan “be” eta “ze” erroak beha daitezke. Zehazki, “be” aurrizkia dagokienak emeak dira, “behia” eta “behor” adibidez, “ze” aurrizkia daramaten izenak arrenak direlarik, “zezena” eta “zaldia” bezalakoak¹⁰⁵. Jarraitu baino lehen, sailkapen horren inguruan sorturiko akatsa adierazi behar da, zientzilari guztiak ez datoztelako ados, puntu zehatz batean hain zuzen: Euskal Herrira, ardia oso berandu iritsi zaigulako, Neolito amaierako azken denboraldian¹⁰⁶. Peilleten hipotesia interesgarria izan daitekela onartu behar da, baina ez dagokigu oraintxe aztergai jasotzea.

104. Peillen, T., “Animismua Zuberoan”, 51-56 (Donostia, 1985).

105. Peillen, T., “Animismoa ...”, 51-52.

106. Azurmendi, M., “Euskal ...”, 123.

Gure arazoa berriro heltzekotan, aurreko atalean bezala, orain “su-be” hitza ekarri behar dugu hona. Alde batetik, nolabait “be” horrek emetasuna dakarrela adierazten du etnologoak, eta hor adostasun behagarria kokatzen da. Gure azterketan zehar sorturiko ideia garrantzitsuenetariko bat horixe baita: sugea emea da kontzeptualki, eta emetasunaren muduarekiko zerikusi handia beraganatzen du.

Alkizako baserrian aspaldian jakinarazi zidaten bezala, zelaietako udarako lanetan harrapatutako sugea jangarria omen da, eta behin burua kendu eta zuri-tuta, dastatu ohi zen. Euskal Herriko, eta kanpoan ere, leku askotan, harrapatu-riko sugea lagunaren artean jatea ez da harrigarria izan, ezta ere eguneroko elika-dura, jakina. Baina hortik abiatuz, sugea ehizagai bihurtzen, edo aintzinean bihurtu zaigula baieztatzea ez da hain erraza gaur egungo datuekin. Leku asko-tako kultura primarioetan, gaur egun oraingoz sugea elikagaia da. Euskaldu-nontzat ere horrela izan den ala ez, ez da inolaz ere gure helburua oraintsu.

Oraingoan “be” atzizkiaren esanahiak sua ez duenez gero inondik ukatzen, hipotesi horretatik balore semantiko berri bat lor dezakegu gure sugearantz, hau da, animalia emea eta sutsua, edota emea den sua, edo, azkenez, luzapen lin-guistikoaren bitartez, behar bada, sugea emeen suarekiko zerbait dela esan liteke.

Esanahiari hortik dario kamerra, hain zuzen ere. Berriz gure topoa sutan dago. Gure sineskizun-korpusak ez dio ezartzen sugeari inongo sutsutasunik; aitzitik, sugea eta urak harreman estuak erakusten dizkigute elkar. Euskal fol-kloreak sugea eta ura aurkako izakiak direla erakusten du zalantzarik gabe.

Hala ere, azken balorea ez da eremu latzean hiltzen. “Be” atzizkiak sugearen emetasuna baieztatzen du, eta hori ongi etorritzat eman liteke.

c) “Sube” hitzaz jarraitzen, eta T. Peillenek jasotako datuen arabera, Zuberoa aldean “be” erroa bereganatzen duten animalia-izenak emakumearen ardurape-an gelditzen dira, edo gutxienez, geldi daitezke (behia eta behorra). Beste alde-tik, “ar” errozko animaliak gizonarengan bakarrik hedatzen dira, artzaieen eskue-tan hain zuzen, emakumeei nolabait debekatuta dagozkienak (ardia)¹⁰⁷.

Emetasuna begibistan gelditzen da berriro, baina, era berean, suaren ukape-na ez dugu inondik behatzen. Su emea, emeen sua?. Berdin zaigu, azken finean suaren izatearen baieztapen kontzeptuala delako. Folklorean, suarekiko sugeak ez duela inongo harreman baikorrik adierazten, eta bai ordea ur ztonikoarekiko, gogoratu behar dugu berriro.

2.3.4. Laburpen gisa

Gure lana aurrera bultzatzekotan ondorio erabilgarri batzuk finkatzea inter-resgarria da, errezago mugituko baikara hemendik aurrera klabe batzuk erabiliz. Horretarako, ondoko laukia proposatzen dugu:

107. Peillen, T., “Animismoa ...”, 52-53.

- (L1). **Sugea:**
- Suaren aurkako izakia
 - Ur lurtarrekin intimoki erlazionatuta
 - Emea
 - Emakumearekin erlazionatuta ura dela medio
 - Ztonikoa
 - Esnezalea
 - Kaltegarria (heriotza ekar dezake)
 - Txistuka hitz egiten du

Laukia, orainarte lorturiko informazioaren arabera sorturikoa da, datu gehiagoren aurrean, aurrerago osatu beharko dena.

Euskal Herrian eta kontzeptu sisteman berean, ba al dago sugearen kontrako beste izakirik, hau da, sugearen baloreak bira emanda izango zituenik? Hau egia balitz, batak bestearen aurka karisma osoa lortuko luke, biak elkar osatuko balirateke era berean eta, halaber, gure hipotesia babestu eta indartuko litzateke.



3. Irudia. XI mendeko manuskritoa (Vatikanoko Liburutegia).

2.3. Serpe uranikoak

Euskal pentsaerak Mari deidadeari senarra, edo maitalea, ezartzen dio: Sugoï, Sugar edo Maju, hiru izen hauekin ezaguna baitzaigu irelu ar hori. Sugea-

ren izenaz gertatzen den moduan, agertutako hiru izen hauek deidade berdinen aipamen desberdinak zirela laister ulertu zuen J.M. Barandiaranek¹⁰⁸. Eta zalantzarik gabe arrazoian aurkitzen zen ikerlaria, mitoek adierazten duten moduan, hau da, hiru izaki hauen inguruan euskaldunok asmatu ditugun kontakizun eta sineskizunen arabera. Hona hemen batzuk eta haien ikerketa.

2.3.1. Sugoi, Sugar eta Maju

“Sugoi” ireluari buruz zenbait mito jasota daude Barandiaran eta beste ikerlarien bildumetan. Izen horren inguruan sortzen diren kontuak ez direla oso ugarriak aitortu behar da, eta egoera hau ere azal daiteke, berez adierazgarria baita. Adibide batzuk jaso ditzagun, bada:

(M9). Dimako Balzoi haitzuloan bi anaiak Sugoi aurkitu zuten serpe erraldoi itxuraz. Anai txikiak, harrika buztana moztu zion piztiari, baina besteak ez zuen txikiaren jokabidea onartu. Beranduago, anai zaharrena Balzolarra bapatean garraiatua izan zen, eta han gizon ezezagun bat aurkitu zuen. Honek, beretzat kutxa bat urre eman zion, eta anai gaztearentzat gerrikoa. Txikiak oparia jaso, baina ez zuen gerrikoa jantzi nahi. Orduan, zuhaitz inguruan kokatu, eta bapatean zuhaitza sutan hasi zen¹⁰⁹.

Sugoi irelua ezin dugu mendekatitzat hartu. Justiziaria da, kontakizun horren eta beste batzuen arabera. Anai zaharren jokaera saritzen duen bitartean, gaztearen gaiztakeria zigortzen du. Jarrera honek anbiguotasuna erakusten du, aktitude baikorra eta ezezkorra elkarrekin bereganatzen baititu. Baina hau ez da zeharo egia; matizatu behar da.

Hizkuntzaren aldetik eta Roslyn M. Frank lingüista iparamerikarraren urratsei jarraituz, “su” GS-ak sorturiko EMSan berberan sakondu behar dugu orain. “Sugoi” hitzean bi elementu elkartzen direla beha daiteke: “su”, eremuaren GS-a eta erritmo analogikoaren garraiatzailea suarekin zuzenki erlazionatuta dagoe-lako mitoak azaltzen digun moduan (ireluak sua erakar dezake), eta bestea “goi” atzizkia, hau da, “goikoa”¹¹⁰. Bigarren honek izaera uranikoa ematen dio “su” erroari. Orduan, “goiko sua”ren aurrean aurkitzen gara (eta ez “su gainean”). Beste aldetik, “Sugoi” arra dela badakigu, gizonaren antza har dezakeelako (M9) mitoan (eme itxura ez du, berriz, inoiz hartzen izate honek euskal folklorean).

J.M. Barandiaranek, esate baterako, “sugoi” izena itzulzerakoan “culebro” azaltzen du, hau da, sugearen arra. Baina linguistikak ez gaitu bideratzen puntu berdinerara, “goi” eta “koi” atzizkiak aztertzen baditugu. “Sugoi” arra dela mitologiak adierazten digu, piztia horrek serpe arraren itxura hartzen baitu. Aitzitik, “goi” atzizkiaren esanahiak ez digu arraren ideia ekartzen. Hori ez da bere eman-kizuna. Arazo hau garrantzitsua dela iruditzen zaigu ondorengo azterketa ondo

108. Barandiaran, J.M., “Diccionario de mitología vasca”, 190 (Nafarroa 1984).

109. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 190.

110. Frank, R.M., “En torno a un mito: el euskera y el indoeuropeo”, 171.

finkatuta geldi dadin. Sugoï izenarekin aipaturiko mitoak (M9) informazio hau adierazten digu:

Sugoï: –Arra (serpe/gizona)
– Uranikoa (-goi-)
– Sutsua (-su-, sua dakar)
– Justiziaria (anbiguotasuna)

Irelu horri buruz sorturiko kontakizun bilduman hildo berdineko informazioa lortzeko gauza al gara? Eman dezagun beste urrats bat.

“Sugarra” izenez mito eta sineskizunak ugariagoak dira eta bere deitura zabalduagoa aurki daiteke Euskal Herrian. Ondoko ipuina ere interesgarria da gure azterketa honetan. Honen bitartez, Bizkaiko Jaunen lerro familiarra hasten da.

(M10). Eskoziako Erregea Mundakara iritsi zen. Han bertan herri berria eraiki, eta lo egiterakoan Sugarra serpeak erregingaiarekin lo egin zuen. Geroago neskak haurra eduki zuen: Jaun Zuria, Bizkaiko Lehenengo Jauna¹¹¹.

Eskozia ere mundu mitiko bilakatzen da euskaldunontzat kontu honetan, itsasotik urrutian entzundako erreinuaren oroipen eta dei lainotsua.

Ondorengo sineskizunetan Sugarraren nortasunari beha dieziokegu. Ireluaren bizimodua, jarrera eta ohiturak azaltzen baitira, eta datu bat ohargarria dela hain zuzen ere: izakia euriarekin harremanetan eratzen da. Nolabait, euriaren sortzaile edo arduraduna da.

(S23). Sugarra zerutik ibili ohi da suzko igitai itxuraz. Euria dator irelua agertzen denean¹¹².

(S24). Deabru hegalaria dela diote Betelun, suzko itxuraz, Balerditik Elortaldera joaten da¹¹³. Hemen “Suarra” deitzen diote.

(S25). Haitzuloetan bizi izaten da. Haren bizileku batzuk hauexek dira: Ataungo Agamunda, Kurutzegorriko Sugaartzuloa, Arratetako Sugaartzuloa, Balerdiko Haitzuloa¹¹⁴.

Hizkuntzalaritzaren aldetik, izaki honen izenaz ba al dago zeresanik? Eranztun baikorra, zalantzarik gabe. Izena aztertzerakoan berriz bi elementu aurki-

111. García de Salazar, L., “Cronica de las Siete Casas de Vizcaya” (1.454). Barandiaranek jasota: “Diccionario ...”, 131.

112. Barandiaran, J.M., “Euskal Herriko mitoak - Mitos del Pueblo Vasco”, 97 (Donostia 1988).

113. Barandiaran, J.M., “Euskal Herriko mitoak ...”, 97.

114. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 189.

tzen ditugu: “su” (lehen bezala mitologiaz baieztatuta irelu hau suzko eraz mugitzen delako), eta “(g)arra”. Atzizkian “g” hau fonetikoa izan liteke, eta “arra”k adiera osoa emango lioke erroari. Horrela “su-arra” dela agertzen zaigu. Su arra izango zen, orduan, izakiaren deiturazko balore semantiko osoa jasoko zuena. Hain zuzen ere, horrela deitzen zaio leku batzuetan; era berean, “su-garra”ri behatzen badiogu. Sugarrak sutetik airera abiatzen dira. Gure Sugar irelua sugarraren moduan garraiatzen da zerutik, sineskizunek azaltzen duten arabera.

Bigarren esanahietara jo dezagun orain. “Sugoi” hitzetik ateratako balio semantikoa “sukoi” tik datorkigu, hau da, suzalea, sua duena edo atsegiten duena. Bestalde, “suarra” eta “sugarra” ren bigarren balio semantikoa “sukarra, suharra” hitzetatik dator, hau da, sutsua, sukorra, barruan sua daramana, e.a. Lehenengo eta bigarren balio semantikook elkar osatzen dute, esparru ideologiko berdinean mugitzen direlako. Beste aldetik, garrantzitsua iruditzen zaigu goiko aukera berriro adieraztea, ahalezko beste banaketa: su-garra, hau da, suaren garra. Suzko itxuraz garraitzen delarik airean, azken balio semantiko horrek adostasun osoa erakusten du mitoarekiko, lehen aipatu dugun moduan.

Sugarra eta izen horren aldaeraz jasotako mito eta sineskizunek haxe azaltzen digute:

Sugarra: – Arra/Serpe
– Uranikoa (airetik mugitzen da)
– Sutsua (-su-, sua darama)
– Goiko ura (euria)

Orain arte, Sugoi eta Sugarra ireluei buruzko informazioak adostasunean geratzen dira.

“Maju” izenaz mito eta inguruko sineskizunak aztertzea interesgarria izan daiteke, oraintxe aipatu ditugunarekin oso antzekoak baitira konparaketa egiterakoan. Ondorengo biek Maju eta Mari intimoki elkartzen dituzte. Haien amodiozko besarkadatik euria dator, euri emankorra, edota ekaitza, hau da, bikotearen gogorkeria sexualaren neurriko fruitua:

(S26). Mariren senarra Maju omen da, eta suzko antza hartzen du emaztearengana airez joateko. Bi irelu hauek elkartzerakoan euria hasten da. Elkarketa hau oso gogorra izan daiteke, eta orduan, ondorio gisa kazkabarra erortzen da¹¹⁵. Horrela uste dute Azkoitian.

(S27). Zarautzen, elkarketa hau ostiraletan gertatzen dela pentsatzen dute, Maju Mariren ilea orraztera hurbiltzen denean¹¹⁶.

115. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 189.

116. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 131.

Haxe da informazioa: Maju arra da, goitik mugitzen da (airetik) eta suzko itxura hartzen du. Halaber, euria dakar, edo kazkabarra, egoeraren arabera. Hemen ere anbiguotasun matiz bat azaldu behar da: berak ez du bilatzen ontasun edo gaiztakeriarik. Euria eta kazkabarra ez dira inongo ordainketarik mese-de hipotetikoaren truke, azken hau ez dagoelako inondik. Gizakiarekin pentsatu gabe sortzen den ondorioa da. Mariren eskutik, euriaren jabea da (emankortasuna). Berez, kazkabarra kratofanizatza jotzen da.

Jokaera horretatik, ondoko informazioa lor daiteke:

Maju: – Arra
– Uranikoa
– Sutsua
– Goiko ura (euria/kazkabarra, anbiguotasuna)

Orain arteko egiturazko parekotasunak ikusgarriak dira, nahiz eta elementu bakoitzaren agerpen formalak itxura desberdinak izan, egoera desberdinetan ere. Su mota berezia erabiltzen ari gara, zerutarra hain zuzen. Su hau ez da ezezkorra bere termino guztietan. Nolabait anbiguotasunean mugitzen da pittin bat, hau da, era berean euri emankorra ala kazkabarra ekar dezake, baina azken buruan izaki arraren emankortasunaren ondorioa da. Ezin dezakegu esan irelu uraniko hau ezezkorra denik, berak ez baitu inolako kalterik egitea bilatzen eta gizakiak prozesuan ez du parte hartzen inondik. Ia ez dago harremanik gizona eta ireluaren artean.

Lehen aipatu dugun moduan, parekotasun hauek ez dagozkigu arraroak, Sugoi, Sugar eta Maju deidadearen aipamen desberdinak besterik ez direlako. Izenak leku askotan erabili ohi diren deiturak besterik ez dira, Euskal Herriko irelu askorekin gertatzen den bezala. Urratsak luzatzean eta laburpen gisa ondokoa idatz dezakegu:

(L2) Sugoi = Sugar = Maju: – Arra/serpe
– Uranikoa
– Sutsua
– Goiko uraren jabea
– Justiziarria (anbiguoia)

Euskal mitologian agertzen diren irelu asko haitzuloetan eratzen dira, gure aintzineko korpus erlijiosoan lurrarekin harreman sakonak oso nabariak direlarik. Baina, oraintxe aztertu dugun izakiak harreman berezia airearekin dauka. Nolabait goiko irelua da, airean mugitzen baita (ez da inon aipatzen lur gainetik garraiatzen denik leku batetik bestera), edo era berean, kontzeptua izendatzeko hitzean “-goi” atzizkia agertzen delako.

“Sugoi” eta “sugar” hitzek, “suge” adibidean bezala, ez dute aipatzen inongo izen berekoirik, izakiaren kalitateak baizik. Izen tabuatuen itxura jasaten dute.

Logikoki, sugearen nortasuna eta Sugoirena konparatzea hurrengo urratsa izango da (hemendik aurrera “Sugoi” izena erabiliko da serpe uranikoa aipatze-

rakoan, erreztasunerako bat hartzeagatik). (L1) eta (L2) aurrez aurre jartzean, haietatik sortutako nortasun ezaugarriak aurkakoak direla ohartzen dugu erraz, eta era berean osagarriak. Ikus dezagun:

(L1) Sugea	(L2) Sugoi
Emea	Arra
Ztonikoa	Uranikoa
Suaren aurkakoa	Sutsua
Beheko ura	Goiko ura
Gaiztoa	Ongarria/juztiziaria

Nahiz eta “ura” agertu bi zutabeetan, mota desberdineko urez ari gara mintzatzen, lurrekoa bata (ztonikoa) eta zerukoa bestea (uranikoa). Euskal pentsaerarentzat bi ur mota egon direla adierazteak beharrezkoa dirudi, korpus folklorikoaren arabera. Arazo interesgarri hau aurrerago aztertuko dugu sakonago.

Bide honetatik, zehazki puntu honetara iritsi nahi genuen: “sugea” eta “sugoi” aurkako kontzeptuak dira (eta osagarriak ere), baina oinarri bakar eta berdinetik abiatutakoak. Nortasun karaktereak kontrakotasunean aurkitzen dira, baina biek serpe itxura jasaten dute (bata lurtarra, bestea zerutarra). Eta gainera, bien izenak, nahiz eta aurkakoak izan haien esanahietan, “su” hitzaren EMStik abiatzen dira zeharo, aurkako norabideetara hain zuzen.

Ez dugu bukatu oraingoz hildo honetatik. Sugea piztia arriskutsutzat jotzen dela ikusi dugu lehenagoz. Baita ere, metamorfosiaren bidez munstro itxura hartzen duela eta esne faltaren aurrean artzaina hiltzen du eta, edo gutxienez honen bizitza arrisku handian jarriz, hau da, sugeak mendebaldeko dragoi klasikoaren antza hartzen du, hiltzailea, baina dragoi ztoniko-neptunikoa (surik eta hegalik gabea).

Sugoi ireluak serpe erraldoi antza jasaten du, baina kasu honetan uranikoa (sutsu eta hegalaria), eta gainera ez zaigu agertzen hiltzaile eta kalte egile moduan. Bai, ordea, anbiguotasunean igeriketan: euri emankorra eta kazkabarra elkarrekin erakar ditzake, urrezko oparia eta opari zigortzailea une berean eskaintzen ditu (justiziaria), e.a. Beste erlijioetako deidade uraniko ar nagusiak, izen tabuatuz hornituak kasu gehienetan, justizariak eta euriaren jabeak direnak (deidade eme nagusiaren eskutik), antzeko anbiguotasunezko eremuan mugitu ohi dira. Baikorrak izan daitezke, baina zenbait kasutan kaltegarriak beraiek bilatu gabe (kazkabarra ur emankorraren ezezko aurpegia zaigu, landareak hondatzen baititu, esate baterako), eta era berean oso urruti aurkitzen dira gizakiarengandik¹¹⁷. Mari euskal mitologian deidade nagusia izanez gero, honen senarra bigarren planuan kokatzen da, gizakiarengandik urruti. Urruntze hori dela medio, Sugoi buruz sorturiko, edo gorderiko mitoak urriak dira. Baina,

117. Eliade, M., “Tratado de historia de las religiones”, (Madrid, 1974). Baliabide ugari II kapitulu: “El cielo: dioses uránicos, ritos y símbolos celestes”.

Sugoi eta Mariren fruitua nabari da: euria¹¹⁸ eta ur zerutarrarekin zerikusia duten beste fenomeno meteorologikoak.

Orduan, bi dragoi eredu desberdin sortzen dira euskal pentsaeratik, bi serpe mota: bata urtsu, ztoniko eta hiltzailea; bestea sutsu, uranikoa eta baikorra/anbigua/justiziaria.

Sugoi eta sugearen izenetan “su-” erroa aurkitzen dugu, biek suaren inguruko ideia azaldu nahi dutelako, baina bakoitzak adierazten duena kontrako aldean dago. Sugoi eta sugea harremanetan jartzen dituen kontakizunik ez da eza gutzen euskal mitologian. Biak aurkakoak badira, nola edo hala tentsioan egon beharko lukete, eta hau ez da nabaria korpus mitologikoan. Zergatik ote?

Sugoi irelua sutsua da, “sua” kontzeptutik abiatzen delarik, hau da, “suduna” dagokigu. Suaren ikerketan murgiltzen bagara, aurreko galderaren erantzuna bila dezakegu.

2.4. Sua

Suaz, Euskal Herriko errito ugari jaso dira etnologoek egindako bildumetan, solstizioetako jaietan batez ere. Jai hauetako erritual asko arruntak dira gure mugetatik kanpo ere, kasu askotan morfologia berbera bereganatzen dutelarik. Sua eta bere inguruko mitoek garrantzi handia hartu dute sistema erlijioso gehienetan¹¹⁹. Irakurleak baliabide desberdinak aurki ditzake gai honi buruz. Edozein modutan, solstizioetan suaz sortutako erritualak ez dira azterketa honen helburua¹²⁰, eguneroko sua baizik, etxe barnean eta beste gauza batzuen artean egosketaren arduraduna dena, hain zuzen ere, su familiarra.

Orduan, lanaren une honetan, gizakiarengandik hurbilen aurkitzen den suaren jarrera aztergai bihurtzen da, hau da, etxeko suaren bihotz eta nortasunetik sortzen den sineskizun eta jokaera bilduma. Su honen balio erlijiosoa ezaguna da. Horra hor, bestela, bere inguruan gauzatzen ziren errito asko: jai egun zehatzetan, su berri bedeinkatua etxera ekartzen zen, protokolo egokiaz, eta su zaharra botatzen zen. Ohitura hori oso zabaldua izan da Euskal Herria osoan. Gabon gaueko sua, edo Eguberrikoa, maila berdineko su sakratuak izan dira hainbat eta hainbat lekutan. Hildo berdinetik, etxeko sua erlijiosoki agurtzen zen etxeetan gauzez oheratzean. Suak ez zuen atsedeenik hartzen, aurrerago ikusiko dugun moduan, gauzez haren lan garrantzitsua bete behar zuelako, hau da, etxekoak babestu behar zituen. Gauaren etorrerarekin batera, beti jarduera berezia gauzatzen zen sukaldeko suarekiko:

(S28). Nafarroako Arraioz herrian, esate baterako, gauzez oheratzerakoan sua errautsez estaltzen zenean, laratza jotzen zen, ondokoa esaten zen

118. Eliade, M., “Tratado ...”, 111-115.

119. Su inguruko errito asko Frazerrek bildu zituen “La rama dorada” liburuan, batez ere LXII, LXIII eta LXIV kapituluetan. LXII atalean Europa osoko eredu ugari beha daitezke.

120. Euskal Herriko San Juan eguneko suteei buruz, ikus J. Garmendiaren “Ritos del solsticio de verano”, bi ale (Donostia 1987 - 1988.)

bitartean: “Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santu Jaunaren izenean. Amen”. Zuberotan, ohitura berdina aurkitu egin da, eta han, errautsa gainean bertzuna lagatzen zuten. Barkozen, gauza berbera egin, baina orduan pala eta espintzetak gurutzearen moduan uzten zituzten suaren gainean¹²¹.

Egunero etxekoek ikusi eta suaren inguruan erabili ohi duten sineskizun eta errito interesgarriak elkartzen dira, eta eremu honetan Euskal Herria aberatsa da. Ondoren, horietako adibide batzuk ikus ditzagun:

(S29). Etxera iturritik ekarritako ura ez da edan behar, gutxienez zer den ikusi arte. Horrela uste dute Bizkaian, eta beste leku askotan ere¹²².

(S30). Erreka eta iturriko ura gauzez etxera ekartzen denean ilentia (makil edo ikatza sutan) ur barnean sartu behar da. Horrela, uretan aurkitzen diren irelu, gaiztakeriak, e. a. desagertzen dira. Batzutan, eskuaz gurutzeari ur gainean irudikatzen da¹²³.

Euskal herritar pentsaerarentzat, iturri eta erreketako uretan zenbait gaiztakeria ezkututzen dira, eta suaren bitartez ur mota hau onargarri bihurtzen da. Ondoko sineskizunak antzeko ideia dakarkigu burura. Uraren egoera hobetzeko errito kristaua egiten da:

(S31). Erreketako urak haurrei minik ez diezaien sor, ur gainean hiru gurutze egiten dira. Lehen, erritual honek pertsona helduentzat ere balio zuen¹²⁴.

Beheko uraren kontrakoa goiko ura da, euskaldunok “ur goiena” deitu duguna. Izen horretaz baliaturik errito askotan etxez etxe jaso edota banatuta izan den ur sakratua da. Batez ere, Urtezahar gauerdian hartuta abestiaz apaindurik, ur zaharraren lekua bete behar zuen. Horrela egin da Euskal Herriko hainbat eta hainbat lekutan. “*Ur goiena, ur barrena*”, abestietako esaerak hauxe adierazten digu: goiko ura etxe barnean sartu eta erabiltzeko gauza da, ona dagokie etxekoei. Zalantzarik gabe, sakratua delako, eta goitarra¹²⁵.

Lurrera eroritako elikagaiak ezin dira zuzenki hartu berriro, ezer gertatu ez balitz bezala. Hemen ere, suak haren jokaldi egokia egiten du, beti gizakiaren alde, jakina:

121. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 261, 8-a,b,c.

122. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 62.

123. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 263

124. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 263.

125. Ikus: R.M. Azkue, “Euskalerrriaren ...”, I, 262-263.

(S32). Sukaldeko lur gainean erortzen diren janariak sutegiko suari erakutsi behar zaizkio jasotzerakoan, batez ere eroritako horiek jateko asmoa baldin badago¹²⁶.

Etxeko sutegian, egurraren erreketan sorturiko ikatzak maila goreneko balore erlijiosoak jasaten du. Zenbait gaixotasun kulturalen aurka burrukatzeko erabilgarria eta gauza da. Era berean, sorginak baztertzeko dituzte:

(S33). Sutegiko ikatza sakratua da. “Begizko”aren aurka “kutunak” egiteko erabiltzen da¹²⁷.

(S34). Bataiatu gabeko haurrak babesteko, gerriko azpian ikatza gordetzen zaie. Horrela, sorginek ezin diete kalterik egin¹²⁸.

Gauean, gaiztakeriaren ireluen garaietan, suak etxeak babesten zituen. Ondoko erritua, benetan eder eta alegizkoa, etxe amaren eskuetan geratzen zen ardura zen. Horrek zamaturizko esaera ozenki adierazten zuen, eta gero, beti bezala, otoitza zuzendu:

(S35). Gauez, jende guztiak sukaldetik alde egitean, ohera zuzentzen zenean, amak esaldi hau esaten zuen: “Sua batzean, sua batzean, infernuko guztiak gure etseti urteiten, mila aingeru sartzeiten”¹²⁹. Bizkaiko ohi-tura hori bezalako asko zabalitzen ziren Euskal Herriko hamaika lekutan, hau da, oso jokaera arrunta eta zabaldua izan da.

Orduan, etxe suak lan orokor bat eramaten du aurrera: garbitu, purifikatu, orokorki esanda. Iturriko uretan aurki daitezkeen gaiztakeriak desagertarazten ditu, lurrera eroritako janaria purifikatu, begizkotik eta gaiztakeriarekiko ireluetatik babestu.

Bestalde, lurra eta urarekin kontaktua izan duten gauza batzuen egoeraren aldaketa interesgarria iruditzen zaigu, hain zuzen ere gorputz barruan sartu behar diren elikagaiak sufritzen dutena. Kontaktu honen bidez gaiztakerietaz kutsatzeko arrisku handia jasaten dute. Aipatzen den ura, iturri eta erreketako ura da. Sineskizun horietan ez da inoiz hodeietako ura aipatzen, euria hain zuzen. Beheko uretan, iturri, ibai eta erreketan, gaiztakeriaren bizilekua kokatzen da eta horrexegatik suak purifikatu behar dira. Beste aldetik, goiko ura emankorra da, deidadeak emandako oparia (Euskal Herrian ere, beste hainbat lekutan bezala, lurrerako uraren faltan, eskaerak egin ohi dira, euri emankorra Jaungoikoari eskatuz). Hitz nagusitan, ur ztoniko gordina ezezkorra da, ur uranikoa baikorra den heinean. Aurrean gehiago sakonduko dugu arazo honetan.

126. Barandiaran, J.M., “Euskal Herriko mitoak ...”, 246.

127. Barandiaran, J.M., “Euskal Herriko mitoak ...”, 246.

128. Azkue, R.M., “Euskal Herriaren ...”, I, 66.

129. Azkue, R.M., “Euskal Herriaren ...”, I, 260.

Etxeko suak ez ditu bakarrik jakiak purifikatzen, etxean bizi izaten diren pertsona eta abereak ere bai. Ondoko sineskizunetan azken jokoera hau nabaria da:

(S36). Pertsona berria etxera ekartzerakoan familiaren partaide moduan bizi izateko, honek sutondo inguruan ibili behar zuen (etxeko norbait ezkontzerakoan, esate baterako). Katu berriaz berdin egiten zen. Horrela onartua izan da Gipuzkoako Goierriin, eta Zuberoan¹³⁰, adibidez.

Sua ere “salatari” bihurtzen da etxekoen alde. Horrela, kanpotar den norbait etxera hurbiltzen dela jakinarazten du, edo albisteak datozela, esate baterako. Era berean, pertsonen bekatuak jagolea da:

(S37). Sua zartaka aritzen bada, ezezagun edo pertsona arrotza etxerako bidean da¹³¹; Pirinioko bi aldetako Nafarroan sinesten zutena.

(S38). Zuberotarren ustez, sua txinkaz aritzen denean, berriak datoz etxera¹³². Horrelaxe, zenbat zarta, hainbat gezur.

(S39). Nafarroan ere, hainbat zarta, horrenbeste bekatu¹³³.

Gizaki kanpotarra ez zen etxean bizi izateko sartzen su inguruan ibili arte, purifikaziozko erritoan suaren bitartez pertsona onargarri bihurtu arte, eta orduan arrisku gabea etxekoentzat (San Juan jaietan, antzeko errittoa egiten da, jendea sute gainera jauzika aritzen denean, purifikapena bilatuz, sinboloen mundu alorrean). Katua ere onartzen zen baserri eta etxeetan, etxe barruan bizi behar zuelako bere lana egin zezan. Beste abereak, zakurra ere bai, etxetik kanpo bizi izaten ziren, nahiz eta etxearentzat lan egin, eta ez ziren etxe barnean sartzeko. Orduan, katuak etxe barruan bizi behar zuenez gero, purifikatzeko asmatan su inguruan ibilarazten zitzaion, adiera bereko errittoa.

Sugoiaren sua ez da ezezkorra inoiz, edo gutxienez ezin dugu hau inondik hausnartu mito eta sineskizunen arabera. (M9) Mitoa berrikusten badugu zenbait oharretan, hauxe gogora dezakegu: gerriko sua, Sugoik anaia gaztearentzat emandako oparia, anaia horren ekintza txarraren aurka zigorra da, gaiztakeriak merezi duena. Beste hitzetan, arazo ezezkorraren aurrean sua kokatzen da, su garbitzailea, irelu justiziariaren eskuetan lana egiten duen tresna. Beste kasuetan su morfologikoa da, (S23), (S24) eta (S26).an beha daitekeen moduan. Horren ondorioz euria dator.

Etxeko sua ongarria da familiarentzat. Ontasuna dakar eta era berean gaiztakeria desegiten du, etxekoak babesten dituen heinean. Etxeko sua ztonikoa

130. Barandiaran, “Euskal Herriko mitoak ...”, 245.

131. Azkue, R.M., “Euskal Herriaren ...”, I, 260.

132. Azkue, R.M., “Euskal Herriaren ...”, I, 260.

133. Azkue, R.M., “Euskal Herriaren ...”, I, 260.

dela gogora dezagun berriro, solstizioetako suteetakoa bezalakoa. Pertsonengandik surik hurbilena da, egunerokoa, janaria, beroa edota argitasuna lortzeko erabilitakoa. Goiko sua, uranikoa, ez da ordea eguneroko gauza euskal pentsaeran, baina horren eragina bai da nabaria egunero, euri emankorra dakarrelako, eta alde horretatik goiko suak ezaugarri baikorra jasan dezake, anbiguotasunezko esparruan zabaldua kazkabarraren jabea ere baita (justiziaria esan beharko genuke hobeto).

Ondorio bezala hau esan dezakegu: euskaldunon kontzeptu sisteman bi ur mota kokatu dira. Bata uranikoa, euriaren ura, emankorra eta ongarria era orokorrean. Bestea ztonikoa, iturri eta erreketako ura, gaiztakerien bizilekua. Bigarren hau purifikatu behar da erabilgarri bihurtzeko, hau da, zibilizatu behar da zibilizaziora erakartzeko, nolabait esateko. Purifikapen hura suak egiten du. Goiko ura garbia da jatorriz sua duelako, edo su mota berezitik abiatzen delako (deidade sutsuaren eskutik dator). Beheko urak ez du surik, ez da izaki sutsuaren ondorioa, eta orduan arriskutsua da, korpus folklorikoak garbi adierazten digun neurrian. Suaren bidez arazo hau konpondu egiten da (etxeko su lagun eta ongarriaren bidez). Berriro suak haren lana egiten du, purifikatzaile gisa.

Orain, aurreko kapituluan zabalik gelditu den galderaren erantzuna aurkitzeko egoera hobean gaude. “Su” kontzeptu mitologikoan, euskal pentsaeran, ez du bakarrik sortu mito eta sineskizun-multzoa bere inguruan, ireluen izenak baita ere. “Su” kontzeptuak Sugoi deituriko deidadea eman du (eta ez alderantziz), “goiko sua”, baina baita sua bera deidadetzat hartuta ere kontzeptuaren fruitua da (euskal pentsaeran sua irelua dela gogora dezagun), eta maila horretako traetera bereganatzen du. Sua, etxeko sua den deidadea, beheko sua dagokigu nolabait. Biek urarekiko egite bereziak dituzte, termino guztietan ulertu behar direnak. Goikoak euria dakar; behekoak, aitzitik, ibai, erreka eta osinetako urak purifikatzen ditu. Biak baikorrak eta lagungarriak dira. Sugea “ur lurterra” kontzeptuarekin korrelazionatzen dela ikusi dugu lehen, baina zalantzarik gabe bere izenean “sua” kontzeptuak esanahi handia garraiatzen du, “suge” hitza suaren eza delako azken batean. “Sua” euskal mitologian sortzaile eta moldagilea izan da. Sua zein Sugoi “su” kontzeptuaren emankizunak dira, logikoki biak suaren ezaren kontra aurkezten dira, biak sugearen beste aldetik ezarrita, baina sua eta sugearen arteko kontrakotasuna oraingoz sakonagoa da, primarioagoa: alde batetik sua bera kokatzen da, eta bestetik sua ukatzen duena, hau da, sugea, bata bestearen aurka.

Uraren atea itxi gabe, eta arazoa ahaztu gabe, beste bide bati jarraitu behar diogu orain. Sutik sortzen den irudikapena zeharo baikorra da. Hona hemen hurrengo galdera: ba al dago, orduan, su ezezkorrik euskal pentsaeran?

2.5. Herensugea

“Herensuge” eta bere aldakiak direla eta, “suge” hitza bereganatzen duten konposatuak izanik, eta mito sistemaren aldetik orain arte behatu dugunarekin zerikusia duenez, honetaz atal bat irekitzea interesgarria izan dakiguke.

Sistema mitologiko askotan dragoiek badituzte balore baikor eta ezezkorrak izaki berebean. Beste aldetik, dragoia izaki zeharo baikorra den lurralde eta kulturak ere badaude. Esate baterako, txinatarrentzat dragoia erreketako ura eta euriaren jabea da. Piztiak sua botatzen duenean, euri emankorra bidaltzen du. Bere suak euria dakar. Beste aldetik, sistema erlijiosoan berean, dragoia arbaso zibilizatzailea da. Hark gizarteari gauza bat baino gehiago erakutsi dio, musika tresnak egiten eta erabiltzen, esate baterako, Asiako zenbait lekutan piztia psikoponpoa izateaz gain. Budistentzat, “Naga” deituriko dragoia ur ztonikoaren jabea da, ur mota horietan murgilduta bizi da eta. Emankortasunaren bultzatzaile eta ongarria da komunitatearentzat (egia esateko, aurrebudismoaren deida-dea da, ondoko sistemara garraiatuta). Tradizio kristauarentzat, aitzitik, piztia mitologiko hau gaiztakeriaren ikurra da, beti serpe ikaragarria, hiltzailea. Aurrekristautasunean, israeldarrentzat dragoia indar ezezkor eta kaotikoen aurkezlea zen. Kristautasunak erabilitako dragoi eredua judaismoan bilakaturikoa da, eta hura Ekialde Hurbileko aintzinako kulturetan moldatutako munstro kaltegarria, botere ezezkorren ikurra, esan dugun moduan.



4. Irudia. San Migel eta dragoia
(Rafael, 1505).

Haren aurka aingeru eta zaldunek burrukatzen dute, piztia ala haiek amaitu arte, edo hiltzaile madarikatua gutxienez lur sakratutik baztertu arte. Horrela, dragoiaren aurka burrukatzen duena froga inizatikoan murgiltzen da. Munstro ikaragarria erail ondoren, hiltzailearengandik sortzen den gizakia, berriztat kontsideratzen da, froga gainditu duela eta. Zenbait mito eta kontakizunetatik at, haurren ipuinetan egitura berdinak iraun du gaur arte.

Euskaldunontzat, Herensugea botere ezezkorren jabea da aldaketa edo beste aukerarik gabe, kristau tradiziozko lurralde guztietan gertatzen den bezala. Beheko kontuak, oso ezaguna, Euskal Herrian dragoiaren jarrerarik arruntena azaltzen digu:

(M11). San Migeleko leizean bizi ohi zen “Iraunsuge” ren kondaira oso eza-guna da Euskal Herrian. Hona hemen Ataunen kontatzen den mitoaren laburpena: Aralarreko San Migel basiliza leize ganean eraikia zegoen. Han “Iraunsuge” deitzen zen serpe madarikatua bizi izaten zen. Goseak, inguruetako herrietara zuzentzen zen, jendea hil eta jate nahian. Herritarrek egun bakoitzean pertsona bat lekura bidaltzea erabaki zuten. Halako batean neska gazte bati txanda egokitu zitzaion. Neska haitzulo aurrean zegoenean Goñiko Jauna agertu eta neskaren lekua hartu zuen beretzat. “Iraunsuge” azaldu, eta gizon nobleari San Migel etorri zitzaion. Honek ezpataz piztia erail zuen eta jaunaren penitentziatzko kateak hautsi zituen¹³⁴.

Hemen, dragoiaren itxura adierazten zaigu: serpea da, baina neurri erraldoietako. Era berean, bere ezaugarri bat jakinarazten da: haren elikagaia gizakia bera da.

(M12). Hurrengo Ainhoako kondaira da: Herritik hurbil kokatzen zen leizean zazpi buru zituen serpe erraldoia bizi zen, “Erensugea”. Jendea irensten zuen. Orduan, urtero neska bat haitzulora bidaltzea erabaki zuten herritarrek. Halako batean erregearen alabari txanda tokatu zitzaion. Eguna iritsi eta neska leize aurrean lotu zuten. Leku hartan artzai bat bere zakurrearekin agertu zen eta neskaren atzealdetik eseri egin zen. Laister “Erensugea” azaldu eta zakurrak piztia erail zuen. Neska askatu eta “Erensugea” ren zazpi buru madarikatu haiek ebaki zituen mutilak¹³⁵.

(M11) eta (M12) kontakizunen egiturak berdinak direla beha daiteke errez:

1. Herensugeak jendea hil ohi du, eta jakitzat hartu.
2. Tarteka, neska bat (ezkongabea) bidaltzea erabakitzen da.
3. Neska piztiaren aurrean dagoenean, gizona, heroia agertzen da.
4. Gizonaren bitartez Herensugea hiltzen da.

Munstroak gizakiak jaten ditu, baina haren gosea otzantzeko beti neska gaztea bidaltzen zaio, ezkongabea. Jarrera honek, eredu berdineko kontakizun askotan behagarria dena, beste lekuetako neska gazteen pubertaroko mitoak (eta zenbait errito) gogorarazten dizkigu, non neskei esaten zaien munstroaren hazparretan lagatuko direla, edota honek jan egingo duela, neskatoaren ikara eta harridurarako.

Euskal Herrira itzultziz, ziurraski mito berdinen aurrean aurkitzen gara bi adibide hauetan, leku bakoitzean tratamendu espezifikoak eman zaizkielarik. Bi kasuetan kontakizuna beste mito osatuagoaren zatia da, edo hobeto esanda, mito bikoitzaren zatia da: (M11).an nahigabeko gurasoen hilketaren semearen esku-

134. Barandiaran, J.M., “El mundo ...”, I, 30-32.

135. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, II, 131-134.

tik, eta (M12).an erregingaiarekin ezkontzeko zailtasunak gainditzeko ekintzak. Bigarren adibidean, gainera, informazio gehiago azaltzen zaigu: piztiak zazpi buru ditu. Beheko kontuan, Herensugeak gizakiak jan ordez, abereak irensten ditu, berriro ere mina eta kaltea sortuz. Haren aurka burrukatzen da, eta itxura kosmogonikoa eskuratzen duen borroka horretan zibilizazioa garaila sortzen da.



5. Irudia. San Jorge eta herensugea (Ucello, 1379-1475). Herensuge, neska birjina eta zaldunaren mitoa oso zabaldua dago Europa osoan. San Jorgeren irudia oso erabilia izan da borroka mitiko hori azaltzeko.

(M13). Hona hemen Atarratzeko kontakizuna: Basaburuko mendietan “Herensügia” izeneko piztia bizi omen zen, Ahuzkiko haitzuloan hain zuzen. Artzaie abereak jan ohi zituen. Orduan, munstroa amaitzea erabaki zuten herritarrek, eta horretarako txahal larrua bolboraz bete eta piztiari eskaini zioten. Honek jan, eta berehala lehertu egin zen. Airetik itsasora zuzendu zen uretan itota desagertzeko¹³⁶.

Ondoko kontua aurrekoaren antzekoa da, zuberotarra ere. Oraingo aldaeran, besterik ez baita, zazpi burutako dragoia herritarrek hiltzea lortzen dute. Piztia, berriro, itsasora zuzentzen da:

(M14). Harkaitzeko zuloan zazpi burutako “Heren-sugea” ezkutatzen zen. Orduan, artzaiek hiltzea erabaki zuten eta horretarako zuloan bolbora jarri zioten, janarizat. Piztiak jan egin zuen, eta arin itsasoraino joan zen, han bertan lehertzeko¹³⁷.

136. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, II, 134-135.

137. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 360.

Hurrengoan, dragoiarekiko ohikoa izan den beste ezaugarria aipatzen da berriro: zazpi buru ditu, Apokalipsi liburuak jakinarazten duen moduan. Beste aldetik, behin lurrean hazi ondoren, eta haren lan mingarria aurrera eraman eta gero, itsasoratzen da, “itsasgorrietara”, ilunabarreko ur gorrietan ezkutatzeko.

(S40). Piztiaren zazpigarren burua sortu ondoren sutan hasten da eta hegan eginez Itsasgorrietara zuzentzen dela esaten dute Ezpeletan¹³⁸.

(S41). “Herensuge” edo “Herensube” serpeari, jaio ondoren, zazpi buru sortzen zaizkio urtez urte, inor ez badu ikusten gutxienez. Leku bakartietan bizi da, eta zazpigarren burua agertu ondoren, su itxuraz eta trumoi zarata eginez itsasora zuzentzen dela uste dute Zugarramurdin¹³⁹.

Oraingoz, sineskizun eta kontakizun bilduma baztertuko dugu, beste bidetik jarraitzeko asmotan informazio gehiagoaren bila. Jo dezagun orain hizkuntzaren arlora. Euskal Herrian piztiarentzat erabili ohi diren izenak hauexek dira¹⁴⁰:

a) Arruntak euskalki gehienetan: – **Erainsuge**
– **Erensuge**

b) Bizkaian: – **Ersuge**

c) Gipuzkoan: – **Iraunsuge**
– **Iraunsube**
– **Iransarbi**
– **Iransuga**
– **Iransuge**
– **Egansuge**
– **Igensuge**

d) Nafarroan: – **Ersuge**
– **Erensube**

e) Lapurdin: – **Ersuge**
– **Erensube**

g) Behe Nafarroan: – **Edeinsuge**

h) Zuberoan: – **Hensuge**
– **Edaansuge**

Izen hauek konposatuak dira: alde batetik “suge” eta haren aldakiak aurki daitezke. Orain “su” izenaren EMS-tik abiatuz gero, bigarren mailako eremu morfosemantikaren aurrean aurkitzen gara, hau da, EMS nagusitik hitza doakigu eta

138. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 78.

139. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, I, 440.

140. Mugica, P., “Diccionario ...”, 678.

berez EMS eratorria oinarritzen du. Osagarriaren ikuspegitik behatuta beste aurrizkien aurretik aurkitzen gara, gutxienez lau taldeka elkar daitezkeenak:

- **Irain, Iraun:** haserre, sumindura.
- **Egan, Igen:** hegan egin.
- **Er, Erre, Ere(n), (H)ere(n), (H)er(ain), Erre(n):** erre egin.
- **Eden, Edein:** zomorro edo sugeek xixkatu (edendu = pozoindu).

Orokorki esanda, balore semantiko hauek mito eta sineskizunetatik lortzen dugun informazioarekin adostasuna adierazten dute: serpe mota berezi honek hegan egiten du kontakizun askotan; humore txarrekoa, hiltzailea izatera iristen da; haren haserre azaltzen du eten gabe; sua bota dezake bere gorputzetik; eta edengarria da. Hizkuntzalaritzaz eta mitoetaz lagundurik izaki hauen ezaugarriak horrela finka daitezke:

- (L3). **Herensugea:**
- Serpe gaiztoa, gaiztakeriak egiten ditu
 - Hegan egiten du
 - Sutsua da, sutan jar daiteke edo erre
 - Zazpi buru dauzka (adibide askotan)

J.M. Barandiaranen ustez, Herensugea irelu berriagoa izango zen Euskal Herrian, honuntza kanpotik erakarria, eta orduan Sugoiren papera betetzen jardungo zuena¹⁴¹. Modu orokorrean, orain arte azaldu dena adostasunean aurkitzen da euskal ikerlari ospetsua zenaren hipotesiarekin. Hala ere, zenbait ohar eta behaketa adierazteko garaia da. Horretarako, ordezkatzearen mugak finkatu behar dira zehazki, hau da, Herensugearen nortasun ezaugarri guztiak hurbiletik aztertu behar dira. (L2) eta (L3) laukiak konparatzen baditugu, parekotasun batzuk azaltzen direla aitortu behar da. Baina, esate baterako, Sugoik nortasun uranikoa dauka, eta arlo honetan Herensugeak jarrera desberdina darama. Airetik bere burua garrai dezake, baina itsasora zuzentzeko, hau da, beheko uretara (“itsasgorria”, itsasoa gaiztakeriaren bizi lekua izan daiteke, beste ur ztoniko motak bezalakoa). Espreski Sugoik ez dakar minik, justizia baizik edo ur ongarria, eta Herensugearen eragiketa mina egitea da, hain zuzen ere gaiztakeriaren ikurra izaten dela. Sugoiren eskutik euri emankorra dator (ekaitza ere, maitasuneko suharraren ondorioz). Herensuge deituriko izakiarengandik ezin da inongo gauza onik itxaron, heriotza baizik.

Sugoi goiko urarekin zuzenki erlazionatuta dago, ur uranikoarekin hain zuzen, eta era berean deidade eme nagusiaren senartzat onartzen da askotan. Ez dugu horrelakorik ikusten Herensugean kasuan. Azken hau beheko urarekin erlazionatuta aurkitzen da beti, ur ztonikoa, izaera ezezkorrez osatua, itsasoko urak egoera berdinean aurkitzen direlarik. Beti izaki bakartia da.

Era berean, eta neurri handiagoan, Herensugeak elkar puntu gehiago erakusten du sugearekiko, hau da, serpe lurtar kaltegarria (eta, halaber, ur ztonika-

141. Gure ustez, gaur egun ezagutzen dugun euskal mitologiaren nahastearen iturburuak kristautasunaren sarrerarekiko zerikusi handia dauka, baina ez bakarra.

rekiko fluxu etengabea). Hauxe nabarmentzen da (L1) eta (L3) laukiak konparatzen baditugu.

Herensugea kristautasunarekin Euskal Herrian sar zitezela baliteke (Herensugeaz aipatu diren mito eta sineskizunek ez dute desberdintasun sakonik Europa osoan piztia horri buruz agertzen diren beste mito eta sineskeriekiko). Aurreko deidadeen nortasuna ahazterakoan eredu erlijioso berriaren aurrean, eta haien artean itxurazko adostasun batzuk izanez gero (esate baterako, biak serpeak dira, sutsuak, hegalariak), ez zen zaila izango haien artean nolabaiteko kutsadura sortzea.

Era berean, “herensuge” hitz konposatuak “suge” darama atzizkitzat, egoera berrirako hitz moldaketa adieraztean. Irelu berriak serpe itxura zeukalako izango zen bereganatze hori, eta baita sugea bezalako izaki arriskutsua delako ere. Sugoiren kasuan gertatuko zen moduan, sugearen nortasun mitikoa ahazterakoan sinkretismorako urratsa emanda zegoen. Eredu zaharren desagerpen-prozedura horretan, Herensugeak, irelu berria, bai Sugoia eta bai Sugearen ezaugarriak sinkretizatu zituen, bata eta bestearen ezaugarriak bereganatzean, euskaldunon dragoi berri, orokor eta osoaren agerkera jasan arte. Horrela, dragoi berri honek kristautasunak finkatutako dragoiaren itxura osoa jasaten zuen heinean, euskal pentsaeraren aurreko bien paperak nolabait irauten zuten beste era batean. Kristautasunak ekarritako elementu erlijioso berriak eta lehenagokoak nahasketan aurkitzen dira hemen ere. Horrela, herensuge izenez sorturiko izakiak mito eta sineskizun askotan bi aurrekoen papera bete zezakeen, rol trasbasea eta moldaketa.

Euskal kontzeptu sisteman su ezezkorra dagoela irudi daiteke, Herensugearen sua zehazki. Baina, goiko hipotesiaren arabera, ez dezagun ahaz su ezezkor hark berriagoa izateko aukera asko duenik euskaldunontzat, orain arte aipatu dugun azterketaren ondorioz, kristautze prozeduraren hasierako uneetan sartutakoa ziurraski, eta bitartean lehenagoko elementu erlijiosoen artean ez da aurkitzen suarentzat balore ezezkorrik¹⁴². Alderantziz ordea, euskal pentsaera zaharrentzat suak beti balore baikorra, purifikatzailea, izan du¹⁴³.

142. Azkuek berak jaso zituen jokaera batzuen bitartez, sua hiltzailea izan zitekeela pentsagarria da: Norbait erail nahi bada, nahikoa da ermita barnean kandela piztuta ezartzea. Horrelako erritoko (horrela dei badaitezke), munduko leku askotan behagarriak dira. Gaur egungo “budu” deituriko teknikan erabiltzen da zentzuan berean. Baina hemen sua ez da hiltzailea. Badago parekotasun metaforikoa pertsonaren bizitza era garraren artean (horretarako kandelaren garra oso aproposa da). Gar hori amaitzean, pertsona hiltzen dela azaltzen da (magia homeopatikoa, Frazerren hitzetan). Garrak sinbolikoki lana egiten du: sua=bizitza. Baina sua bera ez da hiltzailea. Jo dezagun adibide zehatz batean: Aste Santuan, “Aizaro” deituriko ofizioan, Kristoren heriotzari zetorkion unean kandela guztiak itzaltzen ziren, eta eliza iluntasunean murgiltzen zen. Baina, ofiziantek berak ez zuen nahi, ezta sinbolikoki ere, Kristo hiltzerik. Erritoko mitoaren oroipena da, non suak ez zuen inongo partetik hartzerik (Kristoren heriotzan, esan nahi dut). Kandelak eratxikita irauten zuen Gabon-gauatik Aste Santu arte. Suak berak ez du heriotza ematen, ikurra besterik ez da horrelako kasu guztietan.

143. Margo gorria, suarena hain zuzen, matiz ezezkorrez erabili ohi da euskararen zenbait egoe-ratan, baina suaren gorritasuna ez da aipatzen sineskizun-korpusean. Hori ez da bere ezaugarri aipagarri edo kontsideragarria bere jardueretarako. Euskararen “gorritasun” hori beste nonbaitetik dator. Beste aldetik, eta suaren ontasunaren termino guztiak behatzeko, ondokoa ikusi behar dugu atal hau

2.6. Sugea: laburpena

Urrats gehiago eman baino lehen, orain arte azalduak izan diren puntuetatzen laburpena finkatzea beharrezkoa zaigu, hau da, ondorioen zerrenda erabilgarriago bat prestatzea. Gure asmoarentzat sugearen nortasuna ulertzea premiazko arazoa zen, eta orduan hortik hasi behar dugu.

Sugea serpe lurtarra da, lurreko urarekin zuzenki erlazionatuta dagoena, eta orduan izaki ztoniko-neptuniko gisa agertzen da mito eta sineskerietan. Emea da beti, eta emakumearekin estuki erlazionatuta aurkitzen da, batez ere ur lurtarraren bitartez, eta emeen ileak direla medio. Ez dauka inongo ezaugarri sutsurik, eta beti suaren aurka kokatzen da. Balore erlijioso subliminala bereganatzen du, jakina, eta horrela onartzen da korpus mitikoan. Bere nortasunaren ezaugarrien artean ezezkortasuna zeharo nabaria da. Kaltegarria da, hiltzailea askotan.

Honen aurkako aldean Sugoi kokatzen da. Azken hau serpe arra da beti, eta Mariren senartzat onartzen da maiz. Airetik mugitzen da eta nortasun uranikoa bereganatzen du. Sutsua da, eta era berean goiko uraren jabe edo sortzaile bat da (ez bakararra), zerutik datorren euri emankorrarena. Mitologiaren eskutik, deidadea da zalantzarik gabe, eta orduan balore erlijioso intrintsekoa jasaten du. Bere nortasuna ezaugarri baikorrez osatuta dago.

Gure kontzeptu sistema zaharrean bi dragoi mota agertu dira: bata ztoniko-neptuniko eta ezezkorra, eta bestea uranikoa eta baikorra. Hirugarren bat, Herensugea serpe ikaragarria, berriagoa da euskal pentsamoldean, ziuraski kristautasunak ekarritakoa, eta orduan judaismoaren eredia bereganatzen du Euskal Herriko kontakizunetan (Europako beste



6. Irudia. Suge jainko emea haren umeari titia ematen (Irak, V. milurteko K.a.).

utzi baino lehen. Euskal Herriko esaera zaharrak sua eta ura konparatzen dituzte, eta gainera bien arriskuaren berri ematen dute: "Ura eta sua belaunaz behetik", esate baterako. Kontu handiz aritu behar da horrelako esaerak aztertzerakoan, ez direlako kulturalak, errealitatearen ahoskapena baizik. Suak begizkotik gizakia babestu edo erreketako ura purifikatzea, sugreak txistuka hitz egitea, Sugoi deituriko irelua izatea, eta orri hauetan hainbat eta hainbat alditan aipatzen ari diren sineskizunak erantzun "kulturalak" dira, hau da, subjektibitate herritarrean ondorioak prozedura mental luzearen bitartez. Sugeak ez du hitz egiten, ez dago inolako Sugoirik zeruetan, suak ez gaitu babes-ten begizkotik, begizkorik badago, e.a. Aipaturiko esaerak, metafora ederraren bitartez uholde eta sutearen arriskua erakusten digu; hori zeharo errealitatea da, eta ez irudimen kontzeptuala. Ura eta sua txikiak badira (belaunetik behera), gizakiaren kontrolpean egon daitezke. Handiak badira, oso arriskutsuak errealitate mailan, eta kontuz ibili behar dela haiek erabiltzean ulertzen da. Besterik ez (eta gutxiago ezta). Bi kategoria horiek ez dira konparagarriak, gutxiago oraingoz nahasgarriak zakuan berean. Ez ditzaun nahas bi kontzeptzio desberdin hauek.

leketan bezala). Azken honek aurreko bi irelu horiek sinkretizatzen ditu itxuraz: sutsua eta era berean urtsua, uraniko eta telurikoa, baina beti kaltegarria, hiltzaila inongo ezaugarri baikorrik gabe, kristautasunean dragoia irudikatzen den moduan.

Bi ur mota aipatu dira behin eta berriz: beheko ura, ibai, iturri, osin, erreka eta haitzuloetakoa, likido kaltegarria izan daitekeena, edo gutxienez irelu arrisku-tsuen bizilekua, ez bada gaiztakerairen mamia bera. Beste aldetik, goiko ur emankorra dugu, zerutik datorren euria. Horren ondoan, sua beti da baikorra, gizakiaren alde jolasten baitu egoera guztietan. Purifikatzailea da. Soil soilik, Herensugearen sua kaltegarria da, baina irelu horren arazoa desberdina da, lehen aipatu den moduan, ez delako zuzen eta era bakarrean sortu euskal pentsamoldetik. Azken hau kontzeptu kanpotarra dagokigu neurri handian, gure aintzinako ideia erlijiosoekin sinkretizatua.

3. ESNEA

3.1. Esne bidea

Gure kontakizun multzoan esnearen garrantzia agerian gelditu da. Horren bidez bi mundu kontrakoak elkargarriak dira, elkar aurki dezakete, eta gainera esneak jokuan parte hartzen duen denboraldi zehatzean.

Euskal kontzeptu sistemak esne adigaia nola erabiltzen du?. Galdera honi erantzun zuzena eman ahal izateko, eta gaian murgiltzeko baliabidez, esneaz ondoko sineskizun eta jokaerei beha diezaiegun:

(S42). Esneak irakitean, ontzitik gainezka egiten badu sutan erortzeko, suari gatza bota behar zaio. Horrela, behiaren titia ez dela hondatuko Gipuzkoa eta Bizkaiko leku askotan sinesten dute¹⁴⁴.

Esnea ezin dela sutan erori azaltzen zaigu sineskizun horretan, esnea eta sua ezin dira elkartu. Jokaera honi ez bazaio jarraitzen, eta esnea suarekin elkartzen bada, hau da, esnea “erretzen” bada, behiaren titiak hondatzen dira. Baina, arazo horren aurrean irtenbide kulturala prestatu egin da: sutan gatza bota behar da. Esnea bero daiteke (berotuta/epelduta ateratzen da behiaren errapetik), baina ezin da erre.

Joera hau ez dagokio euskal pentsaera herritarrari bakarrik. Beste kultura desberdin askotan oso onartua eta hedatua da esnea eta sua ezin daitezkeela kontaktuan egon¹⁴⁵. J.G. Frazerren iritziz, magia homeopatikoa bidez paradigma esanguratsu hori ulergarri bihur daiteke, hau da, esneak suarekin topo

144. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, I, 246.

145. Frazer, J.G., “Folklore en el Antiguo Testamento”, XXIV kapitulua: “No cocerás el cabrito en la leche de su madre”, 484-506.

egiten badu, sutan erortzen delarik esate baterako, esnea erretzen da eta erre-keta hori behiaren errapera garraiatzen da, esnea aberearen titietatik sortzen baita. Orduan, esnari gertatzen zaiona errapeari ere gertatuko zaio¹⁴⁶. Ideia, termino hauetan azalduta, ez da batere txarra, baina, hala eta guztiz ere, simple xamarra dela pentsatzen dugu. Sakonago aztertu behar da, beraz.

Antropologo estrukturalisten erantzuna beste bide desberdinetik zuzentzen da. Horien ustetan, ezta eta esnea ez lirateke ez elikagai gordinak, ez elikagai egosiak, haien terminologia erabiliz. Anbiguitasun bipolarrean mugituko lirateke biak antzeko beste zenbait elikagai bezala (kopuru gutxitan), gizakiaren esku-sartzerik gabe zuzenki jangarriak direlako¹⁴⁷.

Frazer ikerlari eboluzionistaren hipotesia aurreko planu sinbolikoan erabilgarria da, baina laburregia da, eta ez du erantzun osoa ematen. Bigarren irtenbidea hobeto zorrotzu da, baina ez da iristen arazoaren muineraino. Gure iritziz, esnea ezin da kokatu anbiguitasunean, benetako egosketa sufritu baitu, baina ez gizakiak egindako egosketa, abereak berak bere barnean, hau da, hesteetan egindakoa baizik. Gehiago sakondu behar dugu ideia honetan.

Jangarriak diren substantzien artean bi multzo nagusi sortu ohi dira estrukturalisten azterketatik. Lehenengoan, elikagai naturalak agertzen dira, hau da, zuzenki izadiak emandako substantziak. Inongo transformaziorik pairatu ez dutenez gero, gizakiak ez ditu onartzen jangarritzat lehenago ez badira prestatzen. Esate baterako, zituak eta hazi gehienak (garia, garagarra, artoa ...), haragi eta arrain gordinak, belarra, e. a. Nolabait, izadiko jakiak dira, zibilizatu gabeak. Gizakiak landu behar ditu onargarri bilakatu arte. Beste multzoan, kulturalak diren elikagaiak eraten dira, gizakiaren eskusartzeaz jangarri bihurtzen direnak normalki suaren bitartez, bai erretzerako, egosterako edo antzeko transformazio artifiziale eta eraginaren bidez. Adibide gisa, oraintxe bertan esandako kategorian honelako elikagaiak dagozkigu: ogia, haragi errea, barazki egosia, e.a. Gure ustez, hirugarren multzoa ere badago (estrukturalistek axiomatikoki erabiltzen duten bipolaritatea hautsiz¹⁴⁸), jatorriz naturalak izanez elikagai kultural bihurtzen direnak gizakiaren lanik gabe. Hauek, ezta eta esnea esate baterako, beste maila berezi bateko egosketa sufritu dute, ez suaren kontaktuan, jakina. Trataera berezi eta ulertezina sufritu ondoren aberearen barnean, bere hesteetan gizakiak ukitu gabe, elikagai aparta hauek deidadeen janaria izatera iristea ulergarria da.

Oraintsu aipatutako transformaziorako prozedura hori behaketan egon da sistema erlijioso askotan. Azken talde honetako jakiek, esnea eta ezta, "basatiak" dirudite, izadikoak, gizonak ez dituelako ukitu edo maneiatu, eta halere, jangarriak inongo oztoporik gabe.

146. Frazer, J.G., "Folklore ...", 494-495.

147. Ikus: C. Lévi-Strauss antropologoaren "Lo crudo y lo cocido" lana.

148. Euskal pentsaera herritarrentzat, kontzeptuak ez dira beti bikoteka agertzen. Behin baino gehiagotan hirukoteak beha daitezke. Antzeko ere beste kulturetan adierazten da. Era berean, kontrakotasunak osaketa bihurtzen dira. Estrukturalismoaren metodologia zehatz hori ez da erabilgarria sistema guztietan, ez gutxienez kritika sakonik gabe.

Gure kasuan, zeharo naturala (ez-zibilizatu) den belarrak behi barruan transformazio jasan du, eta prozedura horren produktua den esnea horren egoerara gizakiak bultzatu gabe iristen da. Horrexegatik esnea eta ezta goi mailako elikagai kulturalak dira (zibilizatuak, jakina, eta oraingoz gizakiaren zibilizazio gainetik koka daitezkeenak, hau da, sakratuak, gainera, sistema erlijioso askotan), prozedura horretan ez dagoelako beste inoren eskurik, eta jainkoen elikagai bihurtzen dira, bakarra askotan, eskema erlijioso ugarietan beha dezakegun moduan.

Sua eta esnearekiko bezalako jokaerarik ez dago eziaz, hau da, ez da inon aipatzen ezta ezin daitekenik erre. Zergatik hau?. Erantzuna oso simplea izan daiteke: ezta ez da ezertarako eta ezergatik erretzen (berotzen ezta ere, normalki) haren prozeduran, ez da inondik suarekin elkartzten. Hori ez da beharrezkoa gizakiak jan dezan, eta erretzeak ez luke inongo logika kulturalik izango (jakina da ezta temperatura altuegitan berotzeak haren propietaria osansutsuak desagerrarazten dituela). Orduan, taburik sortzea ez da batere beharrezkoa. Ez badago beharrik, beraz, ez dago taburik. Hona hemen esnearen ezaugarri kultural bat:

Lehenengo ezaugarria: esnea, transformazioaren ondorio ergonomikoa, ezin da erre (berotu eta egosi bai, behetik horrela sortzen baita hain zuzen). Non dago horren zergatia? Lehenengoz egosita, eraldatuta dago eta ez du suaren inongo laguntzarik behar. Nola edo hala, badago "erreta", abere barnean sufritu duen maila goreneko "erreketa", hots, surik gabekoa! Bere nortasunarengatik, elikagai sakratutzat hartzen den likido hori suak desegin dezake, eta hori ez da egokia. Tabua agertzen da bere ingurutik, baina arazoa ez da amaitzen hemen. Kontrakotasun horren beste zergatia ondoko parrafoan azaltzen da.

Esne eta suaren artean kontrakotasuna sortzen da. Esne eta uraren artean adostasunik ba al dago?. Abiapuntu izan diren mitoetan (M1-M7) sugea piztia esnezalearen gisa aurkezten zaigu. Sugea serpe urtsua dela ez dezagun ahaz, ur ztonikoaren kategorian kokatzen dena gainera. Era berean, esnezale bakarrik ez dira sugeak euskal mitologian. Lamiak ere, ur ztonikoetako deidadeak, esnezaleak direla aurreratu behar da. Puntu berezi hori laister saiatuko gara argitzen. Horren ondorioz, esnea ur lurtarrekin harremanetan aurkitzen da, haien arteko kontaktua gertatzen delarik, gutxienez ireluen mailan. Azken jarrera hau oso logikoa da kontzeptu sistema homogeneoaren barnean. Suaren aurkakoa dena urarekin harremanetan egotea normaltasun osoan kokatzen da. Hemendik, egiturazko beste ezaugarri kulturala adierazten zaigu:

Bigarren ezaugarria: esnea, ur ztonikotik hurbil edota kontaktuan egon daiteke. Bien arteko harremana bidezkoa da.

Urratsez urrats, esnearen nortasuna bere osagarri kulturaletan finkatzen ari gara. Baina bidea ez da oraingoz amaitu. Aurreko parrafoetan sortzen den ondorio bat aztergai bihurtzen da orain: esnearen balore erlijioso intrintsekoa.

Sugearentzat zentzu erlijiosoa lortu dugu aurreko kapituluetan. Arazo horretan ez gara berriz errepikapenean sartuko. Lamiaren gainaturazko balorea, uretako deidadeak bezala, zeharo ezaguna da eta mito bilduma askotan aztertua

izan da, nahiz eta inguruko elementu batzuk airean geratu orain arte. Euskal pentsaeran, parekotasunean aurkitzen diren bi deidade horien elikagai berezia esnea da, lamientzako eskaintzetan esnea premiazkoa delarik¹⁴⁹. Bestalde, eta lehen aipatu den moduan, sistema erlijioso ugarirentzat esnea jainkoen elikagaia da, bai Grezia klasikoan, bai Erroman, Kristo aurreko Israelen, Afrikako kultura batzuetan, e.a.¹⁵⁰.

Gure ustez, esnearen balore sakratua (eta eztiarena ere), haren sorkuntza prozeduraren ondorioa da (baina ez bakarria, elikagai berezi horiek egoera desberdin horretara eramaten dituzten beste arrazoiak badaude), gizakiak bultzatu edo lanegin gabe gertatzen delako. Prozedura hori deidadeen esparruan erortzen da zeharo. Gainera, likido zuria da. Zuritasunak, euskararen mailan, garbitasuna eta purifikapenerako ideia darama askotan¹⁵¹. Esnea zerbaitengatik “garbia” baldin bada, barne egosketaren ondorioa delako izango da. Eta “garbia” izan behar du deidadeen jaki bihurtzeko.

Hirugarren ezaugarria: egoera zehatz batean, esnea elikagai sakratua da, balore erlijiosoaz betetakoa.

Orduan, eta bilakaera honen guztiaren ondorioz, zer da esnea euskal kontzeptu sisteman eta mitologiaren munduko elementutzat hartzen denean?: ur ztonikoaren hurbil eta une berberean sutik urruti kokatzen den elikagai sakratua, egoera mitologikoetan. Eskematikoki informazio hori honela idatziko dugu:

(L4). **Esnea (k)**: – Barne egosketaren ondorioa da
– Erre ezina den elikagaia, suaren aurkako lekuan kokatzen da
– Ur ztonikoen kontaktua jasan dezake
– Elikagai “garbia”, “zuria”, “purifikatuta”,
– Sakratua, deidadeen elikagai edaria izan daiteke

3.2. Lamia esnezaleak

Kapitulu hau lamiei zuzendua dagokie. Lamien ipuinak behin baino gehiagotan zenbait elementutan aztertutak izan dira, edo gutxienez ikerketa desberdinetan erabiliak. Guri bakarrik ideia nagusi eta orokor batzuk interesatzen zaizkigu, oraingo egoeran azpimarratzeko eta kontutan eramateko: lamien sexua, haien nortasun ztoniko-neptunikoa, jarrera sua eta gizakiaren aurrean, esnezaletasuna, hizkera, eta haien gauezkotasuna. Has gaitezen lehenengo idatzitako puntuarekin, ondoko sineskizunaz baliatuz:

149. Lamiei eskainitako oparietan esnea eta esnekiak kontakizun askotan agertzen dira.

150. Greziako mitologian, Zeus haurra esne eta eztiz elikatzen zuten. Erroman, Ceres eta Palas deidadeei esnea eskaintzen zitzairen, esate baterako. Adibideak, ehundaka eman daitezke.

151. Azurmendi, M., “El fuego de los símbolos”, 55 (Donostia 1988).

- (S43). Lamia eta izen honen aldaerek identifikatzen duten deidadeak emeak dira Euskal Herriko leku gehienetan, eta baita ere horrela azaltzen da mito eta sineskizunetan¹⁵².

J.M. Barandiaranen egiaztapen hau Euskal Herrian zehar zabaldutako ustea da, eta mitoak behatzerakoan begi bistan gelditzen da. Emakumezko itxuraz, desberdintasun fisiko bat ezkututzen dute gizakien aurrean agertzen direnean. Irakurleak erraz aurki dezake punto honetaz informazio ugari euskal kontu eta sineskizun bildumetan. Horregatik, bada, ez da beharrezkoa gehiago luzatzea. Oraingoan, ideia hau gorde dezagun:

3.2.1. Lehenego ezaugarria: lamiak emeak dira

Non bizi dira lamiak? Hona hemen erantzuna:

- (S44). Euskal Herriko lamien bizilekuak erreka, ibai, osin, aintzira eta haitzulo asko dira. Itsasaldeko herrietan, itsasoan ere bizi direla uste dute¹⁵³.

Lehen bezala, Barandiaranek jasotako baliabide hau zeharo zabaldutako sineskizuna da Euskal Herria osoan. Errioxako iraganeko euskarari buruz zenbait lan interesgarri kaleratu dira gaur arte, zeinetan “lami”z osaturiko euskal toponimoei denbora eta arreta eskaini zizkien. Errioxan (Ebro ibaiaren bi aldeetan, jakina), “lami” daramaten toponimoak, kopuru dexentean gainera, ur ztonikoarekin erlazionatuta daude salbuespenik gabe. Euskara Errioxan aspaldian galdurik aurkitzen da, eta toponimo hauek galeraren unetik iritsi zaizkigu, beste hizkuntzan murgilduak fosilak bezala, aldaketa handirik gabe¹⁵⁴.

Hildo berdinetik jarraituz, kontu anitzetan lamiei zenbait ezaugarri urtsu dagozkie, emakume itxura izatearren. Ezagunena, esate baterako, ahate oinak izatea da, gehienetan ezkutatuak gona azpian. Mutil, artzai edo nekazariarekin ezkontzerakoan, gizakiak azken unean emaztegai ederraren izaera ohartzen du, eta lamia penaturik bere osinera itzultzen da:

- (M15). Bizkaiko Arangio haitzetan artzai gaztea lamiekin dantzan aritzen omen zen. Orduan, taldeko lamiak eta mutilak elkar ezkontzea erabaki zuten. Ireluak eraztuna sartu zion hatzean. Pozik etxera itzuli, eta amari berria eman zion. Baina, emakumea alaitasun ez, eta apaizari arazoa azaldu zion: ezkondu baino lehen, mutilak emaztegaiaren oinak ikusi behar zituen, bada ez bada ere. Horrela egin omen zuen senargaiak, eta ahate oinak zituela behatu zuen. Eraztuna itzultzera-

152. Barandiaran, J.M.; “Diccionario ...”, 110.

153. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 110-114.

154. Quijera, J.A., “Aspectos culturales en torno al agua en la tradición riojana”, Revista de Folklore aldizkarian, 116 zb., 63-67 or. (Valladolid 1990).

koan, ezin zuen hatzetik atera, askatasuna lortzeko hatza moztu egin zuen. Korrika abiatu, eta lamia haren atzetik etxeraino. Mutila ohean sartu zen, eta ez zen berriro handik jaiki¹⁵⁵.

Antzeko kontu ugari jaso egin dira Euskal Herria osoan¹⁵⁶. Lamiek emakume dirudite, eta emakume itxuraz agertzen zaizkie mutilei. Eredu anitzetan, mutil hauek artzainak dira, eta gure ustez, honen arrazoi bat hauxe da: lamiak esnezaleak dira, esnea nahi dute, eta artzaina esnearen jabea da¹⁵⁷. Baina ezkontza horiek ez dira inoiz posible bilakatzen (azken unean lamiaren nortasuna argitzen da, ezaugarri urtsuak nabarmentzen). Berriro bi mundu kontrakoak, elkartezinak: bata gizakiarena, bestea ireluarena. Haietako erakusleen arteko harremana kontraturazkoa da.

Beste leku batzuetan, izakiaren ezaugarri berezia ez datza bakarrik oinetan:

(S45). Lamiek, gerritik gora emakumeak dirudite, baina gerritik behera arrainak direla esaten zuten Bizkaiko Galdakaon¹⁵⁸.

Haitzulo eta ur lurtar arteko harremana M. Eliadek sakonki aztertu zuen, parekotasun handiak behatzean maila berdineko hierofanien aurrean aurkitzen garelarik¹⁵⁹. Orduan, beste ideia bati, aspalditik ezaguna ikerlarien artean, heldu behar diogu:

3.2.2. Bigarren ezaugarria: lamiak urzaleak dira, ur ztonikoekin zuzenki elkartuta daude mundu horretako deidadeak direla eta

Era berean, lamiak suaren aurkako lekuan kokatzen dira. (S30).aren bitartez aipatzen zen bezala, sua erreka, ibai, iturri eta osinetako urak purifikatzeko erabiltzen da, esparru horretan kokatzen diren ireluak desagertaraztean, eta haien artean lamiak, jakina. Ideia hau babesteko, ondoko kontakizuna behagarria dagokigu oraintxe, Bizkaiko Zeberio herrian jasotakoa:

(M16). Atxondoko haitzulo inguruan ikazkinek haien lana betetzen zuten. Txondorrari sua eman eta gar ikaragarriak sortzen ziren. Orduan, haitzulotik lamien irrintzi eta karraxiak entzuten ziren, sua itzal zezaten eskatuz. Orduan, txondorra ondo estali zuten sua kontrolatzeko asmoz eta lamiak isildu ziren¹⁶⁰. Suaren aurretik lamiak beldurtzen dira, eta

155. Azkue, R.M., "Euskalerrriaren ...", II, 53-54.

156. Ikus: J.M. Barandiaran, "Diccionario de mitología vasca", 114-115. Azkueren "Euskalerrriaren jakintza" bilduman beste aldaera batzuk jasotzen dira.

157. Horrekin batera, adierazi behar da badagoela beste arrazoi bat behintzat: lamiak izadiko ireluak dira; aitzitik, artzaina zibilizazioaren erakuslea izanda, gainera bere jardura berariazkoa izadiaren gune barnean garatu behar du.

158. Azkue, R.M., "Euskalerrriaren ...", I, 363.

159. Ikus: M. Eliade, "Tratado ...", V kapitulua: "Las aguas y el simbolismo acuático".

160. Etxeberria, J.M., "Tradiziozko ipuingintza": "Herri ipuinak", Zeberion jasotako materialak, 109 (Bilbo 1988).

orduan haien garrasien bidez adierazten dute. Nolabait, arrisku handian aurkitzen dira.

3.2.3. Hirugarren ezaugarria: lamiak ez dira inolaz ere sutuak. Bai ordea, suaren aurkako esparruan kokatzen dira

Jo dezagun orain laugarren nortasun ezaugarrian: esnezaletasuna. Horretarako, J.M. Barandiaranek jasotako lamien elikaduraz ondoko sineskizuna ohar dezagun:

(S46). Pitxar bat sagardo sotoan utzita gauez, lamiak edaten zuten. Berdin ogia uzten bazitzaieen sukaldean (Orozkoko eta Donamartiriko siniskeria). Beste lekuetan, lamien bizilekuak ziren haitzuloetara artzaiek esnea eta mamia eramaten zituzten eskaintza¹⁶¹.

Beste esnekiak egokiak dagozkie, eta produktu horiek lapurtzera ausartzen dira asko atsegín baitituzte. Luzaideko kontuan, esate baterako, lamiak etxean sartu, eta “urin-prox” deritzan arto hirin eta gurinez egindako janaria eskatzen zuten. Ipuinean berean, lamia ezabatzeke aipaturiko elikadura erreketan aurpegiara bota omen zioten¹⁶².

Lamientzako opalkuntza moduan eraman daitezken elikaduren artean esne eta mamiak, esnekiak orokorki esanda, lehenengoaren produkto eratorriak, parte handia hartzen dute. Artzaieen eskaintzak dira, eta hori interesatzen zaigu hain zuzen. Zergaitik, bada? Erantzun egokia oraingo egoeran: materialki, artzaiek bi emaitza horien jabeak direlako.

3.2.4. Laugarren ezaugarria: lamiak esnezaleak dira batez ere

Hots, horrek ez du esan nahi ezin dutenik beste zaletasunik ere izan! Nortasunaren ezaugarriak ez dira mugatzen aspektu bakarrean. Baina, beste ezaugarri horiek hildo berdinean zabalduko dira, kontzeptu sistemaren logika une guztietan gordetzen delarik. Bai ogia, bai sagardoa, substantzia egosiak dira, lehen erabilitako terminologiaz baliaturik. Gari edo artoak ogi bihurtzeko gizakiaren lana eskatzen dute eta suaren bidez lortzen da. Sagardoaren egoera zertxobait aldatzen da. Gizonak sagarra jaso, prestatu, baina gero salda, muztio, bere kabuz lagatzen du, eta “egosketa” bera bakarrik gertatzen da, gainera surik gabe, jakina, baina era berean beroa askatuz! Azken hau esnearen lekura asko hurbiltzen da, ez bada multzo berdineko jakia. Esnea, azken buruan, elikadura berezia da, eta lehen esan den bezala, mitoetan balore sakratuak jasan ditzake.

Kontuetan era guztietako jarrerak behatzen dira lamietan: batzuetan ontasuna dakarte, beste batzuetan gaiztakerien jabeak dira. Askotan gizakien ekintzak

161. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 114.

162. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, II, 214-215.

sufritzen dituzte, bestetan haiek nozitzen dute. Orduan, maila horretan rol anbigua daramate.

Lamien hizkera hitzaren bidez finkatzen dela mito gehienetan behatzen da, gizakiekin eta baita haien artean ere hitz egiten dutenean.

Lamiak gautarrak dira. Haien ekintzak aurrera eramateko gaua aukeratzen dute asko eta askoetan. Gainera, egiteko gauza diren lanak ez dira batere arruntak, eta horri lotuta ere, langile on eta azkarrak. Gizakiarentzat eginezinak diren lanetan aritzen dira gauez, eta gauan berean amaitzekotan, baina zerbaitengatik ezin dute bukatu. Beti aspektu zehatz txiki bat kolokan gelditzen da. Horra hor haien egiletasun sinadura:

(M17). Zuberoko Ligiko zubia lamien lana omen da. Hauen artean, badaude onak eta gaiztoak, jendearen artean gertatzen den moduan. Lexarantzü mendiko Ligian zubi handia egitea erabaki zuten ibai gainean. Horretarako, gauez eta isiltasunean iardun zuten lanean. Horrela, sorturiko zubia ez zen gizakiek egin zezaketen modukoa, handiagoa, eta era berean, itxura bereziko. Lan zaila! Gau erdian, okinak labea piztu zuen, eta oilarra kantari hasi zen, dirdirapenez engainatua eta egunsentiaren ustean. Une berberan, lamiak azken harria jartzekotan zeuden, baina oilarraren kantua entzun, harria uretan bota bere lekuan jarri gabe, eta korrika iluntasunean ezkutatu ziren. Harri horren kokapenean sorturiko zuloa ikusgarria da oraingoz¹⁶³.


Oraingoan, lamien gauzaletasuna ere aipatzen da. Oilarrak, berriro, parte hartzen du, egunsentiaren aurkezle gisa:

(M18). Martxoko halako gauean, ikaslea etxetik kanpora abiatu zen, abereei ura emateko asmoz, eta lamien beldurrez, oilarra deitu egin zuen. Hegazia kantuan hasi zen, eta lamiak, haserre bizian, desagertu ziren¹⁶⁴.

Oilarra ez da batere lamien laguna. Zergatik hori? Orain arte kapitulu hone-tako informazioa ikusirik, erraz ulergarria dela iruditzen zaigu: hegazia egunaren aintzindaria da, bere egunsentiko kantuz argitasuna adierazten du. Lamiek, aitzitik, gauekoek hain zuzen, iluntasuna aukeratzen dute haien ekintzetarako. Gaueko ireluak dira. Gizakia, ordea, egunzalea da, egunekoa, eta gauez etxetik abiatzen bada, arrisku handian jartzen du bere burua. Laister puntu horretan berriro jotzen dugun arte, hona hemen ideia hori adierazteko erlazio eske-ma:

163. Azkue, R.M., "Euskalerraren ...", II, 233-234.

164. Azkue, R.M., "Euskalerraren ...", II, 437-438.



Orain arte dakigunez, lamiaren nortasuna ezaugarri hauek direla eta, beste batzuen artean eta inolaz ere baztertu gabe edo ukatu gabe, oinarritzen da:

- (L5). **Lamia:**
- Emea
 - Ur lurtarretako deidadea, urzalea
 - Esnezalea
 - Gauekoa
 - Mina edo ontasuna ekar ditzake (anbiguotasuna)
 - Hitzez mintzatzen da
 - Emakume itxura, zehaztasun adierazgarri batean ezik

Baina, lamiei esnezaletasuna nondik datorkie? Esneari dagokion (L4) laukia eskuetan hartuz, lamien nortasunaz lortutako (L5) laukiarekin konparatuko dugu. Lamia deidadea da, eta esnea ireluen (edo deidadeen) elikadura mota. Era berean, biek ur ztonikoarekin zerikusi handia dute. Biak ere suaren kontrako lekuan agertzen zaizkigu kontzeptu sisteman. Ondorioz, Lamiei dagokien elikadura (maila gorenekoa edo sakratua) aproposena esnea da.

Beste aspektu zehatz eta esanguratsuari behatu behar diogu orain: esnea, sua eta lamiaren beldurra. Esnea egosterakoan, sutan erortzerakoan beldurtzen dira gure lamiak, eta mutuak iruditzearen aho zabalik adierazten dute haien beldurra. Ondoko mitoaren bidez lamia eta esnearen artean beste zubia eraikitzen da, beti suaren aurkako kokapen zehatzetik abiatuz:

(M19). Gipuzkoako Mendaro herrian lamia harrapatu omen zuten. Etxera eraman eta han hitz eginarazten aritu ziren, baina lamiak ez zuten tutik esaten. Orduan, esnez beteriko ontzia sutan jarri zuten. Esneak irakitean, ontzitik igo eta sutan erortzeko arriskua ikusirik, lamiak ahoa ireki eta garrasika hauxe esan zuten: “txurie gora!”¹⁶⁵.

Hurrengoaren gunea berdina da, hau da, lamia mintzaraztea suaren bitartez, ontzian dagoen esnea erretzeko arriskuan aurkitzen delarik. Zeberioako kontaktuzuna da:

(M20). Artzainak lamia harrapatu eta etxera eraman zuten, zenbait abentura lehenago gertatu ondoren. Egunak igaro eta lamiak ez zuten hitzik esa-

165. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 116.

ten. Orduan, etxekeok sutan ontzi bat esne jarri zuten, eta urina garretan erortzekotan zegoenean, ireluak haxe esan zuen: “Txurie gora! Txurie gora!”, dirudienez, berari hainbeste gustatzen zitzaion esnea galtzeko zorian aurkitzen zelako¹⁶⁶.

Hona hemen kontakizun berdinarene beste aldaera bat. Oraingoan, lamiene urzaletasun eta esnezaletasuna jakinarazten zaigu. Baita ere, beste ezaugarri berri bat adierazten da, ez hain ezaguna edo aipatua kontuetan: Bizkaiko Igortarrentzat, lamiak itsuak ziren:

(M21). Lamiak bizi ziren erreka ondoan, Igorreko baserri batek orrazia aurkitu zuen, eta lekutik jaso. Orduan, objektuaren jabea zen lamiak itzul ziezaiola eskatu zion. Gizonak, indar handikoa, irelua lepotik hartu eta etxera eramane zuen. Lamia, bere antzeko guztiak bezalakoa, itsua eta esnezalea zen, eta ez zuen tutik esaten, mutua zirudien eta. Halako batean, sukaldean esnea irakiten hasi zen, eta lamia asko beldurtu zen, esnea sutan erori eta gal zitekeelako. Orduan, horrela esane omen zuen: “Txuria gora, txuria gora!”. Handik aurrera, hitz eginarazteko tramankulua jakinda, lamia guztiak ezabatzeke metodoa jakin egin zuten Igorrekeok, eta ireluak galdu zituzten betirako¹⁶⁷.



7. Irudia. Lamia (John Will Waterhouse. 1909).

166. Etxeberria, J.M., “Tradiziozko ...”, 95-96.

167. Azkue, R.M., “Euskalerraren ...”, II, 217-219.

Aurreko kapituloetan eta hemengoan egindako azterketak ikusi gabe, zaila li-tzaiguke azken kontakizunak zentzuz betetzea, baina egoera hobean aurkitzen gara orain. Lamiaren garrasia zergatik aipatzen da?. Ekintza honen bultzadaz, lamiak zergatik hitz egiten du haren isiltasunari amaiera emanez?. Erantzuna euskal kontzeptu sistemaren logikan zeharo oinarrituta aurkitzen da. Lehen esan den moduan, esnea ezin da suarekin kontaktuan sartu, ezin da erre. Era berean, esneak lamiaren nortasuna osatzen du. Haien zatia da. Esnea erreko balitz, lamia erreko litzateke (edo behiaren errapea, lehen aipaturiko sineskizunetan azaltzen den bezala).

Lamia ez da inoiz erre behar, urtsua baita, ur ztonikoetako irelua hain zuzen. Sua-ren bidez ur lurtar hauen ireluak desegiten dira, likidoa purifikatzen da eta. Hor dago koxka!. Nolabait, esnearen errekuntzak lamiaren suntsidura dakar. Orduan, berari dagokion oinazeari amaiera emateko isiltasuna hausten du, behartuta dago horre-tara. Haren garrasia oso adierazgarria da. Zuria, esnea, gora doa, eta prozedurak ez badu etenik, amaitzean erreko da, ondorio txarrak erakarriz¹⁶⁸.

Beste aspektu ohargarria: lamiek ez dute “esnea” hitza erabiltzen ipuinetan, “txuria” baizik. Lamientzako hitz tabuatua, alegia?


3.3. Sugeak eta lamiak, lagunak ote?

Lehenengoz, sugea aztertzerakoan ondorio batzuetara iristeko aukera izan dugu. Puntu horiek (L1).ean eratuak izan dira, une horretatik aurrera erabilga-riagoak izan zitezten. Orain dela oso gutxi lamiei buruz hizketan ari ginela, an-tzeko moldaera bat jaso dugu, (L5) laukia hain zuzen. Oraingo lana bi eskema horiek konparatzea da, bata bestearen aurrean:

(L1) Sugea	(L5) Lamia
Suaren aurkako izakia	Suaren aurkakoa
Ur lurtarrekin intimoki erlazioatua, zetonikoa	Ur ztonikoko deidadea, urzalea
Emea	Emea
Emakumearekin harremanetan uraren medioz	Emakume itxura, puntu adierazgarri batean izan ezik
Kaltegarria	Mina edo ontasuna erakar ditzake (anbiguotasuna)
Esnezalea	Esnezalea
	Gauzalea
Txistuka hitz egiten du	Hitez mintzatzen da

168. M. Azurmendik, bere “Euskal nortasunaren animaliak” lan interesgarri eta garrantzitsuan, hauxe idazten du arazo horretaz: “Lamien esnezaletasuna aipatuta izan da oso, baina horren adie-raz ez da oraindik deus esan. Nire gaiarekin zerikusirik ezbadu ere, eta oilarraren kantua dela-ta, nik, lamiei dagokienez, azpimarratu besterik ezin nezake =gau/egun, ilun/argi, txuri/beltz= zeinuen erte-ko harremana ... erakarri”, 110 (Donostia 1987). Kontrakotasun horiek nabariak dira korpus folklori-koan, lehen ikusi dugun moduan, eta lamietan behagarriak dira erraz: gaueko ireluak dira, eta egu-nez izkutatzen dira iluntasunean, urzaleak dira eta suaren aurrean beldurtzen dira oso.

Parekotasunak begi bistan daude, baina zenbait ezaugarri desberdinak dira, edo gutxienez ez dira elementu zeharo berdinetan finkatzen. Biak emeak dira, suaren aurkako izakiak eta era berean ur ztonikoarekin zuzenki erlazioatuak. Biak ere esnezaleak dira eta lur-urtarrak. Ezaugarri horiek bi multzoetan gehien-goia osatzen dute eta hor bertan kokatzen da haien berdintasuna edo parekotasuna. Planu berdineko izakiak: ur ztonikoak, ztoniko-neptunikoak baitira. Jarrera berdina erakusten dute suaren aurrean: amaitzen dira, eta egoera horri aurre egiten diote beti. Azken finean, bie esnea dagokie, ur lurtarreko ireluak direlako euskal pentsaera herritarrarentzat. Parekotasuna ondoko hirukiaz azaldu nahi da. Goiko erpinean adostasunari bidea zabaltzen dioten elementuak kokatzen dira, hau da, esnea eta ur lurtarra. Beheko erpinetan adostasunean aurkitzen diren objektuak, sugea eta lamia:



Baina beste puntuetan, gutxitan, jarrera desberdinak erakusten dituzte. Esate baterako, sugea arriskutsua eta beti kaltegarria da, hiltzailea ere gizakiarentzat. Ordea, lamiaren jokabidea ez da guztiz berdina. Mina ekar dezake, egia da, baina ontasuna ere. Anbiguotasunean mugitzen da gizakiaren aurrean. Bestalde, sugea piztia da (emakumezkoaren ileak suge bihur daitezke ur lurtarrei esker, baina alderantziz, hau da, aurkako norabidean ez dago transmisiorik, sugea ez da emakume bihurtzen euskal kontzeptu sisteman) eta bere hizkera txistuaz azaltzen du. Ez dagokio hitza, hauxe bakarrik jendearen ezaugarria delako. Sugea zibilizazioarengandik oso urruti dago, beste puntan, izadian. Lamiaren itxura emakumearena da aspektu txiki eta berezi batean ezik, eta hau beti ezkutatu du. Halaber, hitza dagokio. Lamia sugea baino hurbilago kokatzen da gizakiengandik, zibilizazioarengandik. Sugearen gauzaletasuna ez da aipatzen kontuetan; bai, ordea, lamiarena. Nondik datoz desberdintasun horiek? Gure ustez, nolabait lamiak “emakume”tzat onartzen direlako, emakumezko itxura dute, baina irelu mailako emakumeak. Orduan, emakumeen ezaugarri batzuk dituzte, eta besteak haien berezko kategoriakoak dira.

Ulzama haraneko Arraiz herrian azaltzen den ondorengo ipuina interesgarria da guretzat egoera honetan. Sugeari dagokion kontakizuna lamiengan erortzen da. Gure iturburuko mitoen aldaera bat da, non lamiak sugearen papera betetzen duten:

(M22). Abauntz haitzuloan lamiak bizi omen ziren. Egunero artzainak esnea eskaintza gisa eramaten zien, eta lamiak urrea oparitzen zioten esker

moduan. Behin batean gizonak esnearen ordez kaka eraman zien, eta orduan lamiak asko haserretu ziren. Artzainaren bila joan ziren mina egiteko asmoz, baina hau bere etxera iritsi eta han babestu zen, lamien madarikazioa jaso ondoren¹⁶⁹.

Ondokoa aurrekoaren aldaera bat da. Berrito, lamien esnezaletasuna aipatzen da, gauezkotasunarekin batera:

(M23). Ultzamako Arraitz haitzuloan lamiak bizi omen ziren. Udaberrietako gauetan handik artzaina igarotzen zen, buru gainean gaztanbera abatza eramanez. Lamiak hurbiltzen zitzaizkion, eta horrek zertxobait luzatzen zien jan zezaten. Halako batean, ontzi bat altxirriz bete eta gaztanbera pittin batez estalia oparitu zien. Ireluak jaten hasi ziren, oso pozik, baina laister konturatu ziren. Orduan, haserre bizian mutila harrapatzekotan iardun zuten. Gaueko hamabiak jo zuten, eta artzainak ihes egitea lortu zuen¹⁷⁰.

Sugeari dagokion mitoa lamiek eskuratzea ez da doan gertatzen. Hauen arteko parekotasun intimoek laguntzen dutela ekintza hura begi bistan dago. Esnearen bidez, sugea/lamia eta artzainaren arteko harremana bidezkoa da, baina esnearen faltan sugea/lamia kaltegarria bilakatzen da gizakiarentzat.

Hemen ere bi irelu hauen arteko karaktere desberdina nabaria da. Sugeak ez dakar inoiz ontasunik, kaltearen falta ez bada; lamiek, berriz, esker moduan urrea oparitzen dute esnea dagoenean. Berrito diogu: lamia gizakiarengandik, zibilizaziotik hain zuzen, sugea baino hurbilago dago.

Esnearen faltak elkar ezintasuna erakutsi nahi du. Hasieran, sugea eta artzainaren arteko harremana kontranaturazkoa zela ikusi dugu, zeharo bi mundu kontrakoan aurkezleak baitira. Berdin gertatu zaigu geroxeago lamia eta artzainaren kasuan, ezinezko ezkontzaren bidez adierazitakoa. Berrito, aurkako bi mundu. Gizakiari ez dagokio harremanak finkazea izadiko ireluekin. Horrelako ekintzarik ez dagokio inoiz. Lan horietan jartzen bada, arrisku latentea sortzen da, eta kaltea datorkio. Izadiaren eremu misterioitsu hori tabutzat onartu behar du gizonak. Baina, esnearen bitartez tabu hori gaindi dezake, eta harremanak sortu edo izadian murgildu. Esnearen faltaz tabu hautsiaren gorritasuna zabalik erakusten zaio, gizakia bere barruan akatzekotan.

Ikusgarria da azken bi kontu horien eskema, eta oso erabilgarria izango da guretzat laister, iturburuko kontakizunekin batera. Baina ez gaude oraingoz horretarako prest, zenbait arazo zintzilik geratzen direlarik.

169. Barandiaran, J.M., "Euskal Herriko mitoak ...", 230.

170. Azkue, R.M., "Euskal Herriaren ...", II, 427.

3.4. Esnea: laburpena

Lehenago sugerearen kasuan egin dugun bezala, oraintxe esneaz lorturiko ondorioen laburpena asmatzea beharrezkoa zaigu, erabilgarriagoak izateko asmoz hemendik aurrera. Hona hemen laburpen gisa aurreko kapituloen emaitzak.

Esnea elikagai sakratutzat hartzen da sistema erlijioso askotan irelu eta deidadeen janari bezala, nahiz eta zentzu horretan ez erabili egoera guztietan, noski. Baita, euskal kontzeptu sistemak eta mito-errito arloan ere horrela onartzen du esnea, hau da, ezaugarri erlijiosoak dauzkan elikagai bezala, elikagai sakratu moduan erabilitakoa kontakizun batzuetan, eta antzeko trataera ezartzen zaio sineskeria-korpusean, logikoki.

Esnea ezin daiteke erre, ez dezake suarekin kontakturik izan. Arazo hau esnea eta suaren nortasunen ondorioa da: esnea goi mailako elikagai “egosia” da, gizakiak prozedura horretan inolako parterik hartu gabe, misteriotsu eta ulergaitza nolabait, eta gainera “zuri-garbi” kategoriako elikagaia.

Esnea ez dago suarekin harremanetan, baina bai zuzenki ur ztonikoekin. Bere mamian ur lurtaurrek parte garrantzitsua jasaten dute. Egoera honetan, esnea ur horietako deidadeen elikagaia edo haientzako eskaintza da, suge eta lamiaren hain zuzen ere.

Esneak beste pista bat eskaini digu sugea eta lamiaren arteko elkar puntuak hobeto ulertzeko. Biak eremu berdinean kokatzen diren bi irelu mota dira, mitoen esparru zehatzean, teluriko eta neptunikoak era berean, inola ere ez uranikoak. Maila berdinean lekturik, nortasun ezaugarri mordo garrantzitsu batek paretzen ditu: biak emeak, suaren aurkakoak, urtsuak, lurtaur eta esnezaleak.

Baina, haien desberdintasunak garrantzitsuak dira bi izaki hauen jarrera gizakiaren munduaren aurrean mugatzeko: lamiaren hizkera hitza da eta irelu anbiguoak dira ontasun eta gaiztakerien aurrean. Sugerearen jarrera azken arazoan behin betikoa da: sugea bakarrik kaltegarria da, ez du ontasunik erakartzen inondik, eta gainera haren hizkera txistua da. Lamiaren nortasuna hurbilago dago gizakiaren mundutik, zibilizatuagoa da. Sugearena, orde, zuzenki aurkakoa da, ez-zibilizatua, naturala.

4. ARTZAINA

4.1. Euskal mendietako artzain ona

Gure iturburuetako kontakizunetan (M1-M7) zibilizazioaren papera artzainarengan erortzen da, (M22-23).an ere bai. Zer terminotan finkatzen da jarrera hori? Honetaz zenbait ideia azaldu dira aurreko kapituloetan. Baliabide horiek elkartzeko garaia da.

Artzainak parte eraginkorra darama sarean. Logikoki, esnearen agerpenaren behararen aurrean, hori artzainaren eskutik letorke, gizaki hau lanbidez esnea-

ren jabea dagokigulako hain zuzen ere. Artzaina esnearen sorreraren lekukoa da, substantziaren ezaugarriak ezagutu eta ahal den moduan menperatzen ditu. Orduan, esnearen balore intrintsekoak ulertzeko gai norbait baldin bada, izate hori artzaina da.

Hildo berberean, lamiak esnezaleak direla azaltzen da maiz euskal ipuinetan, eta hemen berriro artzainak parte hartzen du, esnearen jabearen paperaz. Lamiak, mitologiaren arabera, nolabait, sugeak baino hurbilago aurkitzen dira gizakiaren esparrutik (fisikoki emakumeak bezalakoak dira, hain zuzen), baina, hala eta guztiz ere, mundu desberdinak dira, kontrakoak, elkar ezinak. Ezin da inondik iritsi artzai eta lamiaren elkarketara ezkontzaren bitartez. Kontakizun korpusak erakusten duen moduan, artzaina eta lamiaren arteko harremanak sortu, sortzen dira, baina azken finean beti eten eta ukatzen dira. Bien arteko maitasuna ez da inoiz gauzatzen, ez da ahalgarria eta gizarteak berak ez du onartzen. Bien arteko elkarketa beti airean disolbatzen da.

Artzainaren lan eremua izadian zeharo sartzen da, landu gabeko mendietan bizi eta lan egiten duelako. Artzaina mundu gizatiarren aurkezle bihurtzen da kontuetan, baina izadi barnean kokatua. Bere pertsona ugarte bilakatzen da aurkako ingurugiroaren gunean: bordan bizi behar du haren lana aurrera eramateko; zutik mugi eta lekualdatzen da; ez du gaiztakeria onartzen helburutzat, lana baizik; bere hizkera hitzean sustraitzen da, eta gainera kontu hauetan ar gisa aurkezten da, zenbait kasutan eta kontakizunen amaieran haren emaztea agertzen den arren inongo paper berezirik bete gabe (hemen, matiz batzuk ere adieraz daitezke).

Ordea, sugea narrastia da, arrastaka dabil lur gainetik, etzanda, ez zutik, (bertikaltasuna horizontaltasunaren aurka) haitzuloan eta lur azpian bizi da, bere hizkera ez da hitza, txistua baizik, gaiztakerien egilea da eta euskal kontzeptu sistemak emea dela onartzen du.

Ikus dezagun orain kontrakotasun honen beste terminoa: artzainaren helburua lana da, eta berdin esan genezake haren abereez. Azken hauek produktiboak dira. Basapiztien jarrera ez da batere berdina. Ez dute lanik egiten, ez dute gizona laguntzen eta ez dira produktiboak. Gutxiago oraingoz sugea. Honek ez du esnerik, eta artzainari edo bere abereei kentzen die. Bata langilea, eta honen kontra bestea lapurra da (horrela azaltzen zaigu bi aldaeretan). Sugearen aurrean kokatuta, biak antipodetan finkatzen zaizkigu. Zeharo aurkakoak diren bi mundu desberdinen aurkezleak dira.

Kontakizunetan harremanen sorrera gizakiaren ekimena izan da, eta gizakiaren begietatik ikusita, noski, haren mundua baikortzat hartzen da, beretzat egoia baita. Basapiztien mundua, izadia, irelu gaizto eta kaltegarrien mundua ezezkorra da, ordea. Gizona izadian sartzen denean arrisku handiak nozitzen ditu. Horra hor zenbat mitotan neska eta mutilak desagertzen diren gauaren tabua hausteagatik, edo basoak gurutzatzeagatik, edo irelu basatien aurrean aurkitzeagatik. Nolabait, euskaldunontzat gaua izadia da, izadiko irelu kaltegarrienen esparru-denboraldia. Gauaren erreinuan murgiltzen denean, gizakia kalte eta

gaiztakeriaren munduan bizi da. Egoera kulturala horrelakoa dela eta, kulturalki ere ez da etxetik abiatzen gauez. Tabua hautsita, edozer arazo larri gerta dakioke: sorginekin topo egin eta ondorioak, buruko ilea galdu, betirako desagertu, hil. Gaueko tabua legearen bitartez jakinarazten da: “*Eguna egunezkoarentzat eta gaua gauezkoarentzat*”, edo “*Gaua gauekoarentzat, eguna egunekoarentzat*”¹⁷¹. Euskal mito eta sineskizun bildumak adibidez beterik daude, hemen ez ditugunak errepikatuko, zeharo gai ezaguna delarik¹⁷².

Gure iturburuko kontakizunetan, artzainak izadiaren tabua hautsi du, hau da, basapiztia den izakia nola edo hala hezi egin du. Horretarako erabili duen esnearen bitartez artzainak sugea bereganatu egin du, zibilizaziora ekarri, bere bordara eta, orokorki esanda, bere mundura. Esnea, orduan, muga gainditzeko tresna da. Tabua hautsita, arriskua begibistan geldiro! Esne ikur objektuaren bitartez lortu dena, erraz etenkorra da, eta hausten denean, artzaina galtzailea da. Bere galera ikaragarria da, eta heriotza dakarkioke.

M. Azurmendik, lehen aipaturiko bere “Euskal nortasunaren animaliak” liburuan “behigorri”ren kontakizun multzoa aztertzen du, behi eta beste abere etxetiarrekiko konparaketan. Laburki esanda, multzo horretako ipuinak termino hauetan finkatzen dira: gizakiak behigorria aurkitzen du mendian, eta bai nahian, bai bere beste abereekin nahastuta, baserrira eraman nahi du. Piztiak ez dizkio gauzak errazten; azkenez lortzen du berak artzaina bere haitzulora eramatea, eta gizakiaren izatea han amaitzen da. Horrela dio Azurmendik: “Mendiko eta mendirako sortu izan den animalia basatia etxeratu egin du gizonak, itxi egin, baina bere ganadu horrek etxean ezin du guztiz “bere” egin”¹⁷³, eta oraingoz argiagoa dena: “Ohiturari jarraitu beharra dagoela dirudi: basatia etxetiar bihurtu nahi izatea ez da gaur gero zilegi, galerazia dago”¹⁷⁴.

Eta hortxe dago kokka gure ustez: gizakiak izadia eta zibilizazioaren arteko muga hausteari ekitean.

Gauzak horrela behatuta, artzainaren papera termino nagusi hauetan finkatzen da gure mitoetan: hasteko, mundu zibilizatuaren aurkezlea da. Bigarren, bere ogibidearengatik izadian bizi da, sugearen munduaren barnean kokatuta. Hirugarren, artzaina aurkezle egokiena da esnearen jabea delako. Nekazariak, esate baterako, ezingo luke paper hau hain ongi bete esnea kontuetan premiazkoa baldin bada sugearekin elkar-zubia ezartzeko, edaria bere produktua ez delarik. Eskematikoki, hau da laburpena:

171. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 72, “Gaueko”.

172. .Ikus: J.M. Barandiaran, “El mundo en la mente popular vasca”, I, 89-103 eta R.M. Azkue, “Euskalerraren Yakintza”, I, 62-66.

173. Azurmendi, M., “Euskal ...”, 141.

174. Azurmendi, M., “Euskal ...”, 144-145.

- (L6). **Artzaina:** – Zibilizazioaren aurkezlea (borda, zutik, hitza, ...)
– Izadian kokatua
– Esnearen jabea

5. BIDAIA MITOAREN EGITURAN ZEHAR

5.1. Mitoaren egitura sakontzen

Orain arte iturburuko mitoak (M1-M7) izan direnak, eredu orokorraren aldaerak besterik ez direla onartu dugu. Morfoloikoki, bi kategoritan banatu ditugu, era berean geografikoki erlazionatuta: aldaera atlantiarrak, eta mediterraniarrak. Lehenengo azpimultzoko kontakizunetan artzaina beti hiltzen da sugearen eraginez. Bigarrenetan, ordea, artzainak bizirik ateratzea lortzen du, baina Ama Birjinaren bitartez. Sailkapen horiek guztiak ezagutuz eta ontzat emanaz, erraztasun handiagoz mugitu ahal izan gara. Eredu orokorraren multzoan beste bi mito koka genitzake, konkretuki lamiek sugearen papera esnearen aurrean jasaten dutena (M22 eta M23), haien egiturak oso antzekoak direlako alde batetik (partaideen jokaeretan zenbait desberdintasunez), eta sugea eta lamien arteko paretotasun estuak maila zehatz batzuetan behatu baititugu, bestetik.

Hasierako kapituloetan, mitoaren deskribapena eginda, lehenengo irakurketa moldatzen saiatu gara, euskal kontzeptu sistemak emandako inongo daturik erabili gabe, logikoki hasierako egoera eta oraingoaren artean ez baikenituen ezagutzen artzai, suge eta esnari buruz lortu ditugun ondorioak. Aurreko azterketa luzatu ondoren (non zehazki bilatzen ez genituen beste zenbait informazio eta atarramendu interesgarri lortu dugun), une honetan, zalantzarik gabe, egoe-ra hobean aurkitzen gara bigarren irakurketa bat egiteko.

Oraingo saiakerak sakonagoa izan behar du, eta horretarako lorturiko ondorio guztiak dantzan jarri beharko ditugu. Prestaturiko lauki eskematikoak oso erabilgarriak izan daitezke lan horretarako. Orduan, ondorio moduan zutabe bakoitzaren ezaugarriak gordetzen dituzten (L.1), (L.4) eta (L.6) laukiak buruan eraman ditzagun. Goazen harira.

5.1.1. Bigarren irakurketa

1. Bi mundu kontzeptualki desberdinen aurrean aurkitzen gara. Bata gizakia-
ren mundua, zibilizazioarena nolabait izendatzeko. Bestea, honen aurka kokatzen dena, izadiarena, basatia, arriskutsua gizakiarentzat, ezezkortasunaren irel-
luek gordelekua da. Erljio konparatuaren zientziarentzat bipolaritate hau oina-
rrikoa da, eta sistema erlijiosoen zutaberik nagusienetarikoa da. Jakina, kontrakotasun hura eredu desberdin askoren bitartez ager daiteke, orokorki esanda. Hona hemen, orduan, euskal kontzeptu sistemak kontrakotasuna aurkezteko ontzat ematen duen eredia, baina ez bakarria.

2. Baiezkortasunaren irudikapenean aurkezlearen papera betetzea artzainari dagokio, eta beste polokoa sugeari ezarri zaiona da. Baina, azken honen jarre-

ra lehenengoaren aurrean zehaztuagoa dago. Sugeak, euskal kontzeptu sisteman, balore erlijioso osatua bereganatzen du mito-errito esparruan haren irudia erabiltzerakoan. Ez da bakarrik piztia, deidadea baizik¹⁷⁵. Orduan, zer motatako deidade ote zaigu? Bada, hitz gutxitan esanda, hauxe izango litzateke erantzuna: kaltegarria, hiltzailea ere, ur lurtarrekin erlazonatutako serpe emea, surik gabea. Izaki mitiko honentzako eskaintzarik aproposena esnea da, bere nortasunaren ondorioz.

3. Bi mundu horien arteko harremanetan kaltetua artzaina sortzen da normalki, esnearen jabea den izakia. Baina, oraingo egoeran piztiari dagokion elikagaiaz mantentzen du, hau da, esnearen eraginaren efektua sugEAN nabarmentzen da, azken honek deidade ztoniko-neptunikoa izanez gero edari sakratu hori bereziki dagokiolarik.

4. Bien artean, hau da, artzain gizatiarra eta suge deidadearen artean esnek zubi gisa harremanak posible bihurtzen ditu, eta urina haien artean kokatzen den bitartean, harremanak ez dakarkio minik artzainari. Eskaintzen dion ontasun bakarra, dirudienez, kaltearen falta da. Sugea ez da irudikatzen piztia arriskutsu, hiltzaile eta munstrotsua bezala, txikia eta laztangarri moduan baizik (aldaera batzuetan artzainari suge txiki eta ume ederra ere iruditzen zaiola gogorra dezagun).

5. Zubia hausteko kontzeptu sistemak bi magnitude erabiltzen ditu: denbora (urteak pasatzen dira harremanik gabe), eta espazioa (artzaina oso urrutira joaten da). Biak egoera berdin baten ukapena adierazteko erabiltzen dira, eta horrela esnearen falta begi bistan geratzen da. Artzainak deidadeari ez dio esnerik eskaintzen epe luzean, eta orduan bi mundu hauen arteko eten ahul hura desgiten da.

6. Berriz gizakia serpe itxurazko deidade ur-lurtarraren aurrean aurkitzen da, baina orain ez dakar esnerik eskaintza moduan. Orduan, sugearen jokaera bere onera itzultzen da, piztiari dagokion lekura hain zuzen. Berritoki kaltegarri bihurtzen da: munstrotsu eta ikaragarria, dragoi erraldoia, eta artzaina hiltzen du erdu gehienetan (nolabait izadiaren garaipena da zibilizazioaren aurka). Beste erduetan kristautuagoak gure ustez, deidade indartsuagoaren bitartez emaitzari bira ematen zaio eta gizakiaren mundua garaile bihurtzen da munstroaren aurka.

Bigarren irtenbide horrek, beste gauza batzuen artean, kristautasunaren garaipena erakusten du, eta eskema erlijioso zaharrena birmoldatzen du zertxobait. Kristautasunak ezin du utzi borroka kosmikoan dragoi ur-lurtarrak irabaz dezan irudikapen mota honetan. Mitoaren lehenengo emaitza originalagotzat onartzen dugunez, bide horretatik urrutiago joan gaitzkeela pentsatzen dugu, sakonago murgil gaitzke gure antzinako pentsaeran.

175. Nahiz eta orain arte euskal mitologia hiztegietatik baztertu samarra egon.

Lehen esan den bezala, deidade kaltegarriak bere elikagaia jasotzeko aukera duen bitartean ez dio minik egiten artzainari, baina falta bada, orduan bere aurpegiarik beltzena erakusten du errukirik gabe. Nolabait, izadian bizi den gizonak deidade arriskutsuaren kaltea baztertzea esne eskaintzaren bidez lortzen du, eta hortxe dago gakoa. Sistema askotan, deidade ezezkorrak (anabaseko jainkoak) berari dagozkion opak agintzen ditu kalterik ez egiteko. Normalki deidade hauek ez dute ontasunik ekartzen, bakarrik kaltearen eza opalkuntza eramaten zaion bitartean, baina hauen falta gertatzen bada, izua eta heriotza banatzen dituzte haien akolitoen artean, hau da, ezezkortasunaren jainko menperatzaileak dira, ezezkortasuna gizartearen beharra dela eta. Orduan, haien lana zeharo garatzen dute, haien ardurari askatasuna ematen diote. Beldurrezko jainkoak dira, eta beti itxura ikaragarriaz irudikatzen dira. Ezaugarri hauek guztiak ere gure sugearen ezaugarriak dira. Euskaldunontzat sugeak irelu beldurgarri haien papera betetzen du aldaketa handirik gabe. Ez dugu esan nahi sugea ardura horretan bakarrik aurkitzen denik euskal pentsaera herritarrean, baina aurkezle nagusienetakoa dela aitortu behar da.

Kontakizunean parte hartzen duten hiru elementu nagusi horietan behatu ditugun nortasunezko ezaugarriak, eta barne egitura aztertuta, zalantzarik gabe mito baten aurrean aurkitzen garela onartu behar dugu, orain inongo oztoporik gabe, denboraz ipuin bihurtu dena behar bada baina, halaber, oraingoz bere ikur muin osoa erakus dezakeena. Definizioaren arabera, mitoa historio sakratua dela ez dezagun ahaz.

Mito horretan, artzainak suge deidadeari esne eskaintza egiten dio denboraldi batean. Horrela, irelu gaiztoaren ekintza kaltegarrietatik baztertua egotea lortzen du. Baina, une batetik aurrera artzainak ez dio eskaintza egiten eta deidadeak bere nortasun hondagarri osoa erakusten du, artzaina hiltzerako.

Lehenengo eskuko mitoaren ondorio erraza hau izan liteke: suge ireluaren munduan, izadian, bizi behar duenak narrasti ztoniko-neptunikoari esnea eskaini behar dio, kaltegarria ez dadin izan. Sugeak ikurtzen duen elementuaren bitartez neurri handiko kratofania da, baina zalantzarik gabe botere adierazpen ezezkorra gizakiaren ikuspuntutik. Mito honek gizakiaren jarrera eta jokaera deidadearen aurrean adierazten ditu, eta ondorioak ere aipatzen ditu egoera hori amaitzean. Egin behar dena erakusten du, jokaera erritualaren moduan, eta era berean, izadian arrotzari gerta dakiokeena errituala ez badu betetzen. Beste batzuk ahortzi gabe, mitoen funtzioen artean hauxe da bat hain zuzen: arauak adieraztea, eta haien betetzearen ezaren ondorioak ere erakustea. M. Eliaderen hitzetan, mitoei dagozkien ezaugarrien arteko bat hau da: mitoak eredu imitagarriak dira¹⁷⁶. Gureak ere horren itxura dauka, jarraitu behar den hildo edo jokaera.

Errito hitza aipatu da behin baino gehiagotan aurreko lerroetan. Kontakizunaren arabera, ezin dugu aldizkako erritualari buruz pentsatu. Ez zaigu inongo pistarik eskuratzen horretarako. Hipotesian sakonduz, errituala noiz behinekoa

176. Eliade, M., "Mito y realidad", 7 (Barcelona, 1981).



8. Irudia. Jainko eme sugeduna (Knossos jauregia, Kreta).

izango zen, artzainak izadian murgiltzean egin beharko zuen ekintza kulturala, eta maila sakratukoa ere¹⁷⁷ ziurraski.

Goiko guztia aurrera doan heinean eta horri lotuta, bi izaki hauek, artzaina eta sugea, aurkako bi munduren ordezkariak direla esanda dago. Artzainaren bizitza eta lana, zibilizatuak izan arren, naturaren munduan bilakatzen dira, herritik urruti, oihanean. Esnearen bidez zibilizazioa izadian teilaka daiteke, hau da, aurkako mundu horretako deidadeari dagokion elementua ematen zaiolarik (ordainketa edo zerga eran, esan genezake). Orduan, zerga hori ez bada eskaintzen (esnearen eza), zibilizazioak ez dauka sartzetik, eta bere ordezkaria hiltzen da. Beste hitz batzuetan esanda, tabua gainditzeko eskaintza behar da (ordaindu behar da, gizakia eta irelua elkar daitezke). Horrelakorik ez badago, harremana finkatu nahian gizona ireluaren aurrean hiltzen da.

Mitox intimoki ulertuta, erritoaren bila urratsak luzatzeak emaitzarik erakarriko al digu? Baliteke, ziurtasunez zer ari garen bilatzen baldin badakigu. Mitox ulerturik, legokion erritox hiru elementu horiek parte hartu beharko luke: artzaina, sugea eta esnea, aipaturikox balore sinbolikox apainduak eta antzeko moduan erlaxionatuak. Horretarako egitura simple eta egokia bilatu beharko genuke. Horrelako zerbait, hain zuzen: artzaiek sugexei esnezko eskaintza egiten diete, sugetik zerbait lortzeko nahian. Gainera, guk lorturikox funtzioa bereganatzen badu, behin betirakoagoa izango da. Orduan, deidade hauen ekintza kaltegarriak baztertzea, edo beraiengana sugexen boterea (babesa, behar bada), ekartzea bilatzen badu, adostasuna nabariagoa izango da.

6. ERRITOAREN BILA

6.1. Erritox

Orain arte ikerketa honetan guztian ez gara Euskal Herritik kanpora atera, eta era berean, erabili ditugun baliabideak euskal kultura herritarren elementuak

177. Smith, P., "Aspectos de la organización de los ritos", "La función simbólica" liburuan, 147-179 or., eta erritox sailkapenez 154-155 orrialdeetan, (Barcelona 1979).

izan dira, beste inon ere behatu eta sakondu gabe lorturikoak. Hemendik aurrera jarraitzeko, lan konparatiboa onargarria dakiguke, bilatzen ari garenaren egitura osoa ongi ezagutzen baitugu.

Oraingo atalean artzaina, esnea eta sugeari buruzko errito kanpotar batzuk honera ekartzeko asmoa daukagu. Eta zergatik hau? Aurreko orrialdeetan kontakizuna mitotzat onartu izan dugu, eta azterketa luzatzen zen parean jarrera honek gero eta zentzu handiagoaz, sakonagoaz, apaintzen joan zaigu, aurreko kapitulora iritsi arte, non ez zaigun beste irtenbiderik gelditzen datu, informazio eta ikerketa guztien ondorioz.

Mitota aztertuta, birplasmaketa praktikoa aurkitzeak lana biribilduko luke. Baina, hiru elementu hauek elkartzen dituen erritoren aztarnarik ez da gelditu euskal etnografia edo folklore-bildumetan, gutxienez garatutako ikerketa honetan lortutako ondorioek agintzen eta finkatzen duten ordenamendu logikoan berean. Bai, ordea, Euskal Herritik kanpoko lurralde batzuetan, eta horietatik ondorioak jasotzea hurrengo urratsa izango da.

Gure bildumetan arazo honetaz ezer ez aurkitzeak ez du definitiboki esan nahi ez denik horrelako erritorik egon, berez, mitoa gure aurrean dagoela eta. Mende honetan zehar egindako bildumetan horrelakorik ez agertzeak bederen beste bi bide desberdin irekitzen dizkigu: alde batetik, behar bada etnologoek datu berezi horrekin ez dute topo egin (bilduma etnologiko eta folklorikoak ez daude batere osaturik, askoz gutxiago bukatuta), eta beste aldetik erritua XX. mendean baino lehenago desager zitekeela pentsagarria da. Bi aukera hauek ahalgarriak dira, eta era berean osagarriak ere, inola ere ez aurkakoak.

Berriz errepikatu behar da: bilatzen dugun erritoan hiru elementu nagusik parte hartu behar dute, hau da, artzaina, sugea eta esnea egitura bakunean agertu behar dute. Ziurraski hemen ere gauzak oso errazak izan dira, kultura herritarrean normalki gertatzen den moduan, nahasketatik urrun. Orduan, gure erritoaren oinarritzko eskema horrelakoa izan zitekeela iruditzen zaigu: zenbait lurraldetan artzaiek sugeari esnearen eskaintza luzatzen diete, haien babesela bilatzeko, behar bada, edo haien kaltea baztertzeko, edota bi aukerak elkarrekin. Oraintxe ikusiko dugun moduan, egitura hau adibide kanpotar batzuk jasaten dute, hauen artean bat Euskal Herria ondoan kokatutakoa. Goazen muinera.

6.1.1. Erritual eredu kanpotarrak

Libonian:

Liboniako lurraldean, Baltiko itsasoko ekialdeko kostaldean finkatua guretzat oso erabilgarria izan daitekeen eredu errituala gauzatzen zen: artzaiek mendietako sugeari esnezko eskaintza egiten zieten. Suge hauek, kaltegarriak izan ordez artaldean babesle bihurtzen ziren, ondorioz. Liboniako erritoan hiru elementuok parte hartzen dute eta gainera egitura osoa gauzatuz. Orain bertan aipatutakoa, Liboniako artzaiek egiten zutela eta, errito hau oso baliagarria dagokigu. Aintzi-

nako pentsaera herritarraren muinean oinarrituta,¹⁷⁸ adibide polita da, era be-rean.

Eskoziari:

Gure mitoaren bi aldaeratan sugearen papera lamiek betetzen dute (M.22-23), egoera horretan bi irelu ztoniko-neptuniko horiek parekotasunean aurkitzen direlako. Eskoziako mendietan ere horrelako irtenbidea ikusgarria da. Han artzaiek oihaneko emakume itxuraz ager zitekeen Gruagach deituriko ireluei esnezko oparia eskaintzen zieten artaldean babesleak bihur zitezen, eta horretarako esnea harri berezi batzuetan jartzen zieten¹⁷⁹. Errito honen ondorioa berdina da berriz: deidatea kaltegarria izan ordez babesle bihurtzea. Berdinketa handia dago Euskal Herriko adibidearekin. Gure bildumetan, artzai euskaldunek lamiei esnea eskaintzen zietela egiaztatzen da (jokaera kulturala, behar bada, edo errito zaharraren oroipena). Horra hor errito euskaldunaren aztarna behagarria lamiengan.

Indian:

Ondorengo erritok zertxobait baztertzen dira gure egituratik, baina oso argiztaileak dagozkiguke. Indiako Punjaben mirasandarrek suge artifiziak egiten zuten eta kalez kale erakusten zuten. Gero, lurperatzen zuten eta emakumeak lekura hurbiltzen ziren esne eta mamizko opa eramateko sugearentzat. Emakume hauek kopetaz lurra sugearen aurrean ukitu behar zuten belaunikatzerakoa, eta gero mamia haurrei ematen zieten¹⁸⁰. Sugeari, berriz, esnezko eskaintza dagokio. Kasu honetan, eta guk jakin dezakegunez, sugea irudikatzen da, eta orduan bere irudiaren aurrean erritok garatzen dute.

Galizian:

Iberiar Penintsulako leku batzuetan artzaiek sugeak harrapatzeko esnea erabiltzen zuten. Horrela, Galizian ere sugeak oso esnezaleak direla sinesten zuten, eta behi, ardi edo emakumeen titietatik esnea zurgatzen zuten, Euskal Herrian onartzen zen moduan, edota gure mitoan azaltzen den bezala. Orduan, sugea modu horretaz esnea lapurtzen ari zela pentsatzen bazuten, ontzi bat esne amuzki gisa jartzen zuten sugea harrapatzeko¹⁸¹. Era berean, eta azterketa horren hasieran azaldu dugun moduan, Euskal Herriko antzeko mito ugari aipatzen dira, zenbait lekutan. Galizian, Leongo mendietan, Errioxan, e.a. Esandako erritok degradatua aurkezten da: sugearen esnezaletasuna begi bistan dago (Galizia, Leon eta Errioxan, esate baterako, gurearen antzeko mitoak ere kokatzen dela errepikatu behar da eta segidan, egoera horrek pentsaera erlijiosoaren

178. Noël, J.F.M., "Diccionario de mitología universal", II tomoa, sarrera: "Serpiente", 1174-1175 or. (Barcelona, 1991).

179. Frazer, J.G., "Folklore ...", 313.

180. Frazer, J.G., "La rama ...", 605.

181. Bermejo, J.C., "Mitología y mitos de la Hispania prerromana", 263 (Madrid, 1986).

bipolaritatea batzen duelako, hau da, mito eta errittoa eskutik helduta). Baina orain esnea opa ordeztu suga erakarri eta harrapatzeko teknika gisa erabiltzen da. Errittoa kategoriatan desberdinak dira, ondorioen arabera.

6.1.2. Zenbait ondorio

Liboniako erritualak, oso sinpleak baina, hala ere, elementu guztiez osatuta, gure lorturiko ondorioekin adostasun osoan dago: artzaiek suga esnezko eskaintza egiten diete irelu hauen jarrera baikorra bereganatzeko asmoz, kalte baztertzeko duten heinean.

Eskoziakoa ere oso hurbil dago. Aipaturiko beste ereduetan aldaera batzuk beha daitezke. Hala ere, suga deidadetzat onartzen da eta esnezko opa luzatzen zaio.

Euskal Herriko errittoa, inoiz izan baldin bada, jakina, eta horrela pentsatzeko datu ugari badauzkagu azterketaren une honetan, logikoki eta ziurtasun handiz Liboniako antzeko ereduak izan behar izan du, hango errittoa gure mitoaren elementu guztiak elkartzen dituelako parekotasunezko egiturari. Azterna kultural bakarra gure lurraldean, horrela dei baldin badezakegu, lamiei artzaiek egindako esnezko eskaintza da, parekotasun kategoriatan. Errittoa nolako izan zitekeenaz, kanpoko ereduak ideia zehatza ematen digute.

6.1.3. Suga sakratuak

Lurralde gehienetan sugaren inguruan sorturiko mito eta errittoa ugariak dira, eta orain ere “suga” hitza erabiltzen dugunean ikerketa honi buruz lorturiko ondorioz hornitzen da: emea, ur lurtarra, kaltegarria, ez-sutsua, esnezalea, e.a. Askotan, deidadetzat onartzen den serpeari pareko trataera ematen zaio. Kasu hauetan suga dragoi ztoniko eta neptunikoaren papera betetzen du, nolabait gure mitoan bezala. Kultura batzuk bi dragoi eredu desberdin onartzen dituzte, zeinetan horretaz aparte dragoi uraniko eta sutsua agertzen den, Euskal Herrian ere gertatzen den bezala. Horrek suposarazten duena argi dago: serpe guztiak ez dira berdinak kontzeptu sistema batzuentzat, eta prozedura mentalen ondorio desberdinen fruituak dira. Hildo berean, tratamendu espezifikokoak eskatzen dituzte¹⁸².

M. Eliaderen ustez, serpeak sinbolismoz beterik daude, eta gainera ia sinbolismo gehienak jasan ditzakete egoera desberdinetan. Ikerlari honen iritziz, aspektu honen iturburua arazo zehatz baten emaitza da: suga hilezina da bere burua berriztatzen duelako (urtero azala aldatzen du)¹⁸³. Baina, kontuz! Horrek ez du esan nahi serpeak egoera eta une konkretu batean sinbolo posible guztiak elkartzen dituenik. Egoera desberdinek beraien bideetan planu sinboliko des-

182. Ikus: D. Beresniak, eta M. Random, idazleen “El dragón” liburua, adibide ugari apaindutakoa.

183. Eliade, M., “Tratado ...”, 245.



9. Irudia. Naga jainko emeak, itsas, aintzira, ibai eta osinetako serpe itxurazko deidaak tradizio induista.

berdinetara gidatzen gaituzte, eta emaitzak ezin daitezke berdinak izan. Arazo honen adibide asko jaso dute etnologo eta folkloristek. Gai horretaz hau esan nahi dugu: sinboloak lantzerakoan ordena, sailkapena eta aukeraketa beharrezkoak dira, egoera bakoitzak eskatzen duen (edo dituen) sinbolo zehatzak hautatzean, beraien sarean nahastu eta ito gabe.

Gerta daiteke, eta ez da batere gauza arraroa, mitoaren azterketan elementu konkretuarentzat kontzeptu sistemak onartzen edo jasaten ez duen sinboloak jokuan sar daitezzen ikerlariak saiatzeari, onargarriekin nahastuta zakuan berean, edo azken hauek ahaztu ondoren. Horrela lortzen diren emaitzak oso bitxiak izan daitezke, baina fikzioan murgildurik hiltzen dira, azterketarako erabili ditugun baliabideak ez dagozkigularik egokienak diren bakarrak. Lan metodoek depuraketa eskatzen digute beren fruituak emateko.

Euskal mitologian egindako bidaia hau produktiboa izan dela pentsatzen dugu, batez ere gure mito sarean nahasturiko zenbait elementutan, gutxitan hala ere, ordenamendua ezartzeko. Euskal mitologia ikertzea erraza ez dela aitortu behar da, egun arte iritsi zaizkigun baliabideak nahaste handian aurkitzen direla eta. Horretarako ere denborak bere lana egin du. Hala ere, metodologia egokiak zabaltzen digun tratamenduaren bidez ondorio azal eta argigarriak lortzea bidezkoa da zeharo. Edozein teoria behin eta berriz errepikatzeak, eztabaidatu gabe, biraka jartzen gaitu emaitzik ikusi gabe. Ateak zabalik daude.

7. ERANSKINAK: ZUHAITZ MITOLOGIKOAREN ADARRAK

7.1. Mitoaren adar luzeak

Aurreko orrialdeetan kontakizunaren zentzua ulertzen saiatu gara, eta horretarako hiru elementu nagusi eta haien arteko harremanak aztertu ditugu: sugea, esnea eta artzaina. Asmo horretarako, horien inguruko sineskizun eta mito ugari erabili dira.

Era berean, errito eta mito kanpotarrei eten gabe so ez egoten saiatu da, euskal kontzeptu sistematik ez urrutiratzeko asmoz alde batetik, eta konparaketa nahasiaren kutsadura baztertzeko ahal den neurrian. Kate baten mailak jarraitu

ditugu, hildo sendoa eta oso esangutasua. Behin eta berriz, itzulerako bidea agertu zaigu, feed back prozedura finkatu da eten gabe, non mito eta sineskizun katea bere baitan isten zen askotan jatorria elikatuz, aurrerako bidearen atea zabalik irauten zuen une berean. Horrela, ondorio interesgarri batzuetara iristeko gauza izan gara: esate baterako, mitoaren egitura sakona, eta posiblea den erri-toaren era mugatzea. Hiru zutabe nagusi (artzaina, sugea eta esnea) horien arteko harremanak antzeko bideetatik finkatzen al dira Euskal Herriko kanpo? Puntu interesgarria da azken hau gure ustez, eta erantzuna bilatzea premiazkoa bilakatzen zaigu oraintxe.

Sugoi/Sugar/Majuri buruz zertxobait esanda dago aurreko horrietan, oraingoz gaiarekin amaitu ez dugun arren. Lehenagoko ikerketan zenbait zalantza eta galdera airean gelditu dira, ordea. Esate baterako, Sugoi bezalako deidatea zergatik agertzen da euskal mitologian? Haren funtzio nagusia zein da gure mito sisteman? Eta kategorian berberean, gaur egun, edo hobeto esanda, ikerlariek haren mito eta siniskizunak jaso zituztenean, jadanik zergatik ez zen lehenengo planuko irelua?

Kontu berdinean aurkitzen gara sugearen aurrean: ez dago dana esanda. Piztiarentzat nortasun ezaugarri batzuk mugatu ditugu: urtsua, kaltegarria, ur ztonikoetako deidatea, e.a. Sugeari nortasun zehatz hura nondik dator, bada?

Goiko puntuei eranskin bana eskaini zaizkie. Baita, eta sarreran idatzi egin den moduan, erabilitako mito eta sineskizunen laburpen zerrenda ere agertzen da. Azkenez, bibliografia aipatzen da, bai Euskal Herriaz, bai kanpoko mito, sineskizun eta erritoez. Horra hor beste bi eranskin, irakurle eta ikerlariak aurreko azterketa osatuagoa aurki dezan, hutsuneak betetzeko baliabide lagungarriak besterik ez baitira. Orduan, euskal mitologiaren adar batzuk hauexek dira:

- I. eranskina: konparaketarako mito eta errito kanpotarrak
- II. eranskina: Mariren maitalea
- III. eranskina: sugea, amaitu gabeko birjaioa
- IV. eranskina: mito eta sineskizun zerrenda
- V. eranskina: bibliografia

7.2. I. Eranskina: konparaketarako mito eta errito kanpotarrak

Sugea eta esnearen inguruan egin dugun ikerketak ondorio interesgarriak ekarri dizkigu. Adibidez, euskal pentsaeran suge deidateak bete behar izan zituen paperak. Horrez gain, horren nortasun mitikoaz zerbait gehiago jakitea lortu dugu: urarekiko harremanak, suaren kontrakotasuna, esnezko eskaintzaren aurreko jarrera, e.a. Gauzak ez dira bakarrik Euskal Herrian horrela gertatu. Beste lekuetako sistema erlijioso anitzetan antzeko egoera aurkezten du sugeak, mito eta sineskizunetan azpimarratzen dena. Lan honen ondorioak babesteko mito, erritual eta sineskizun kanpotar horiek, kopuru handian, erabilgarriak dira baliabide gisa. Zerrenda oso zabala izanik, eta ikerketa konparatiboa ez luzatzeko, bakarrik adibide sorta orokor eta laburra aurkeztea nahiko dela pentsatzen dugu, "Errittoa" izenburuko atalean erabili diren baliabidei gehitzeko. Geroago

aipaturiko bibliografian material hauek kopuru handian aurkitzea erraza izango zaio irakurleari.

1. Emakumea, sugea eta ilea Grezia klasikoan: Greziako mitologian emakume, ile eta sugearen arteko harremana azpimarratuta dago deidade eme zehatz batean: Medusa. Emakume hau, Gorgona bat, oso ederra zen, batez ere bere adatsarengatik. Beste batzuen artean Neptuno (ur ztonikoetako jainkoa) maitemindu zen, eta Medusa hartuta Minerbaren tenplora eraman zuen, non maitasunean murgildu ziren. Minerbaren haserrez, Medusaren ileak suge bihurtu ziren, eta haren begiek harrapatzen zutena harri bilakatzen zen. Noël, J.F., "Diccionario de mitología universal", 856-857 or., (Barcelona, 1991).

2. Emakumea, sugea eta ezitia Amazonasen: ondoko mitoa Ameriketako Vapidianan kokatzen da. Emakumea suge eztijale bihurtzen da. Ezitia eta esnea berdintasun handian kokatzen dira janari sakratu mailan: emazteak senarra erail ondoren, azken hau zerura igotzen da Orion kostelazioa sortuz. Mendeku moduan, haren suhiak andrea zuhaitz barnean harrapatzen du. Orduan, emakumea suge ezti jalea bihurtzen da. Leví-Strauss, C., "De la miel a las cenizas", (Mexiko, 1987), 182 or.

3. Emakumea, sugea eta esnea Galizian: Galizian, sugeek esnea edatea asko atsegiten dute. Noizean behin, lehiotik sartu eta emakume edo behiaren esnea zurgatzen dute, hauek konturatu gabe. Haurrak negar egin ez zezan, isatsaren muturra ahora sartzen zion. Antón, F.M. eta Mandianes, M., "La serpiente y los habitantes del agua", "El agua. Mitos, ritos y realidades" idazlan eta hitzaldi bilduman, 1992ko Granadako Mintegia (Barcelona, 1995).

4. Sugea eta sua Ginea Berrian: Ginea Berrian, norbaitek ibiltzerakoan sugea hiltzen badu, piztia erre behar du eta lortutako hautsa iztarretan eman. Horrela sugeak ez dio koska edo kalterik egingo. Frazer, J.G., "La rama dorada", 56 or., (Mexiko, 1979).

5. Sugea eta ura Egipto klasikoan: antzinako Egipton, sugea lur eta uraren ikurra zen era berean. Noël, J.F.M., "Diccionario ...", 1.174 or.

6. Sugea, deidadea Afrikan: Afrikako leku askotan sugea deidadea da. Iraganeko Fernando Poon, esate baterako, sugearen azala zuhaitzean zintzilikatzen da errito bereziaren bidez. Gero, herrixkako jai berriek sugea eskuz ukitzen dute. Senegalen eta Afrikako beste lekuetan sugea haurren babeslea da. Frazer, J.G., "La rama ...", 569 or.

7. Sugea eta ur ztonikoa Afrikan: Afrikako kafreengan sugea deidadetzat onartzen da. Norbaitek hiltzen badu, hiltzailea aste batzuetako egunetan erreka barnean etzanda gelditzen da. Halaber, sugea ohorez lurperatzen da. Frazer, J.G., "La rama ...", 265-266 or.

8. Sugea, ur ztonikoetako deidadea Zelebe uhartean: Zelebe uharteko torajarren ustez, suge ireluak osin eta erreketan bizi eta ezkutatzen dira. Beldurgarri

eta kaltegarriak direnez gero, errekek gurutzatzerakoan irtenbide erlijiosoak erabiltzen dituzte arriskua baztertzeko. Frazer., J.G., "Folklore en el Antiguo Testamento", (Madrid, 1981), 341 or.

9. Sugea, iturriaren jabea Grezia klasikoan: Grezia klasikoaren mito batzuetan beleak euria dakar baina, ura bereganatzeko asmotan iturrira zuzentzen da, lehorketetan zerutik ezin duelako ekarri. Sugea iturriaren jabea da eta ez dio baimenik ematen txoriari iturrira hurbiltzeko. Leví-Strauss, C., "Lo crudo y lo cocido", (Mexiko, 1978), 236 or.

10. Sugea eta esnea Indian: Indiako Madrasen sugea deidadea da berriz. Hemen, piztia hil ondoren erre egiten dute, gizakiekin egiten duten moduan, eta hiltzaileak hondakin gainean esnea isurtzen du. Frazer, J.G., "La rama ...", 266 or.

11. Sugea eta esnea eslabiarren lurraldean: eslabiarrentzat sugea lehenengo mailako deidadea zen. Haren kultoan, esnea eta arrautzak eskaintzen zituzten. Noël, J.F.M., "Diccionario ...", 1.175 or.

12. Sugea eta eztia toba herriaren artean: mito toba batean suger eztizaleak gizakiak irensten ditu. Ezti bilatzaileek sorturiko zarataz erakarriak, suger erraldoiak horiei txistuka hitz egiten die eztia eskatuz. Gizakiek, piztiaren aho barruan janaria sartu behar dute, eta pertsonak hurbiltzen zaizkionean sugerak irensten ditu. Leví-Strauss, C., "De la miel ...", 280 or.

13. Eztia, jainkoen edaria Mesoamerikan: "Balché" deritzan edaria jainkoentzako eskaintza zen (eta oraingoz horrela omen da talde etniko batzuegan) Mexiko eta inguruko herrialdeetan. Eztiz egina, edari hordigarria da. Gonzalez, Y., "Diccionario de mitología y religión de Mesoamerica", (Mexiko, 1991), 21 or.

14. Sugea, deidadea Liberia eta Bengalan: Liberia eta Bengalan ere suger deidadea da. Han, otoi egiten dute haren omenez lehorte handiak baldin badaude euria erakartzeko. Lubbock, J., "Los orígenes de la civilización", 242 or., (Barcelona, 1987).

15. Sugea, deidadea Ginean: Ginean, jainko garrantzitsuenak itsasoa eta suger dira. Azken horri batez ere eskaintzak luzatzen zaizkio apaizen ekimenaren bitartez. Lubbock, J., "Los orígenes ...", 240 or.

16. Sugea, etxeen deidadea Lituania: Lituania, sendi bakoitzak suger etxe barruan zaintzen zuen, denen babeslea izan zedin. Lubbock, J., "Los orígenes ...", 241 or.

17. Sugea ezin da erail Afrikan: iraganeko Biafra eta Fernando Poo aldean, suger mota bat erailtzea britaniarrei debekatu zitzaizen, herritarrentzat jainkoa zela eta. Lubbock, J., "Los orígenes ...", 243 or.

18. Sugea, deidadea eta esnea Europako lurralde askotan: sugerean inguruko kultua Lituania, Estonia, Libonia, Prusia, Samogitia eta Europako beste leku

askotan garrantzitsua zen. Deidadetzat onartuta, esne eta arrautzezko eskaintza luzatzen zien artzaia. Noël, J.F., “Diccionario ...”, 1174-1175 or.

19. Sugea, bere erailketa eta gauzen jatorria Brasilen: bororoentzat (Brasil), suge hil baten odolak emakumea ernaldu zuen. Orduan, jaio zen umeak suge itxura zeukan. Suge hau beti amaren umetokian ezkutatzen zen. Emakumearen anaiek lortu zuten piztia harrapatzea eta hil egin zuten. Gero, haren gorputza erre zuten eta errautsetatik tabakoa, artoa, kotoia, zuhaitz mota bat eta beste gauza batzuk jaio ziren. Lévi-Strauss, C., “Lo crudo ...”, 107 or.

20. Sugea, ur ztonikoetako deidadea Mesoamerikan: Mesoamerikako olmekentzat sugeak ibai eta osinetako uren ikurra ziren. Esate baterako, Tlatilko hiriko grabaketa batean sugea horrela irudikatzen da. Sugeak lurreko uretan bizi ziren. Piña, R., “Quetzalcoatl. Serpiente emplumada”, (Mexiko, 1990), 14-15 or.

21. Zeruko suge hegalaria eta euria Mesoamerikan: Mesoamerikan ere, serpe zerutar deidadeak Quetzalcoatl zuen izena. Azala lumaz estalia, hegalaria zen, haren eskutik euri emankorra zetorren. Garrantzia handiko jainkoa, haren apaizek deidadearen izena jasotzen zuten, beren izenen aurrean hain zuten. Jainko hau, kultura desberdinetan oso zabaldua, sinkretismo erlijioso sakonaren azken emaitza izan zen. Piña, R., “Quetzalcoatl...”, 70 or.


22. Zeruko serpea eta euria Mesoamerikan: Borgia multzoko kodizeetan serpeen marrazkiak oso ugariak dira. Horien artean, zerutik zintzilikatuta aurkitzen denarengandik euria erortzen da. Euriaren deidaea da. Sten, M., “Ponte a bailar, tu que reinas”, (Mexiko, 1990), 95 or.

23. Serpeak eta ur desberdinak “uichole”en artean: Mexikoko talde etniko honentzat, bi serpe mota daude, ireluak direnak: hodei ilunak eta eurijasak zeruko serpe lumadun hegalaria dira. Bestalde, itsasora zuzentzen diren ibaiak serpe lurtarrak dira, ingurugiro horren deidadeak. Era berean, tximista eta sua zeruko serpeak dira, itsasoa eta itsas uhinak suge neptunikoak diren birtartean. González, Y., “Diccionario ...”, 154-155 or.

24. Serpe erako jainkoak aintzinako Babilonian: Babiloniako mitologian Ozeanoa (ur gozoa) eta Tamat (itsasoa, ur gazia), hierogamian batzen dira. Hemendik bi serpe mota jaiotzen dira; bata arra, mundu zerutar eta arraren ikurra, eta bestea emea, mundu lurtar eta emearen sinboloa. Sten, M., “Ponte a bailar, ...”, 132 or.

25. Esnea, eskaintza Erroma klasikoan: Erromatarren artean esnearen eskaintzak arruntak ziren. Nekazariak Ceres deidadeari luzatzen zioten, artzaiek Palasi eta Soldaduek Merkuriari. Noël, J.F., “Diccionario ...”, 781 or.

26. Esnea, eskaintza tartariar lurraldean: tartariarren artean, beren jainkoentzat luzatzen zen eskaintza ardi eta behorren lehenengo esnea zen. Noël, J.F.M., “Diccionario ...”, 980 or.



10. Irudia. Naga, ur eremuetako suge-emakume deidadea mitologia indiarrean.

27. Esnea eta sua Afrika eta Europan: esnea ezin dela erre leku askotako sineskizuna da. Esate baterako, Afrikako artzai kulturentzat lege bilakatu da: Nunda, Masai, Bahima, Baganda, e.a. Halaber, Europako lurralde askotan esnea erretzea tabutzat hartzen zen. Estonia eta Bulgarian, adibidez. Jokabide berbera Marokkoan kokatzen zen. Leku hauetan guztietan esnea erretzen bada behiaren errapeak hondatuko direla sinesten dute. Frazer, J.G., “Folklore ...”, 485-506 or.

28. Su justiziaria Indian: antzineko Indian sua deidadea zen, garrantzia handikoa gainera, eta ondoko esaera hau liburu sakratuetan behagarria da, “Justizia Sua da, Egia Eguzki hura da; edo hobeto, Justizia Eguzki hura da eta Egia Su hau da”. Satapatha Brahmana, 4, 4, 10, (600-800 urte K.a.).

29. Su justiziaria Kolumbian eta Siberian: Kolumbia aldeko indiarrentzat sua jainko nagusia zen. Eskaintzak luzatzearen, sua epailea zen, pertsonen ekintza baikorrak sarituz, ezezkorrak zigortzen zituen heinean. Siberia aldeko talde etniko batzuen artean antzeko jarrera izaten zen su jainkoaren aurrean. Noël, J.F.M., “Diccionario ...”, 593 or.

30. Bi motatako urak Galizian: Galiziako nekazal munduarentzat bi motatako ura gauzatzen zen, goiko ura, euri eta ekaitzaren eskutik datorrena, eta beheko ura. Azken honetan, beste bi aukera sortzen ziren: giza eremuko (herrietako putzu eta iturrietakoa), eta ez-giza eremuko (itsasoa, meategi lagatuak, ibaiak). Azken hau igartze erritoetan erabiltzen zen. Antón, F.M. eta Mandianes, M., “La serpiente y ...”

31. Euria eta ekaitza jainko bikotearen eskuetan Mesopotamian: Sumerko “Iskur” (ekaitza) jainkoak, akadiarren “Adad”, eta Siriako kulturentzat “Hadad”, goiko uraren bi aurpegi elkartzan zituen, alde batetik, euri lasai eta emankorraren jabea zen; eta bestetik, uholde larria, tximista, eta kazkabarra menperatzen zituen. Ar honen eremua atmosferaren goi geruzak ziren. Haizearen bitartez ibiltzen zen, zeruetan hodeien gainera. Bere emaztea “Sala” jainkosa zen. Biak elkarrekin, tximistak botatzen zituzten dragoi hegalarien gainean mugitzen ziren. Biluzik, jainkosak euria askatzen zuen bere eskuetatik. López, J. eta Sanmartín, J., “Mitología y religión del Oriente Antiguo. I: Egipto - Mesopotamia”, (Bartzelona, 1993), 287-289 or.

7.3. II. Eranskina: Mariren maitalea

Euskal mitologiari buruz asko, edo dena, idatzi eta esan egin dela pentsa daiteke. Baina, egindako hainbat idazlanetan sakonki behatzen badugu, ideia eta hipotesiak berberak behin eta berriro errepikatzen direla onartu behar da, zirkuluan ibiliz. Duela lau hamarkadatik hona, entzungarriak diren teoriak behin eta berriaz ahozkatuak izan dira. Hauxe oso nabaria da, esate baterako, Mari deidadearen kasuan (ez da adibide bakarra). Aitzitik, haren maitaleari buruz, Sugoi (Sugar, Maju), oso gutxi esana dago, eta ia ezer bikoteari buruz gune sortzailetzat hartuta. Gure iritziz, antzinako euskal kontzeptu sistemak intimoki elkartu egin baditu, herri pentsaerentzat tratamendu hori beharrezkoa zelako gertatu da, eta ikerlariok kate edo korrelazio mitologiko hura ezin dezakegu moztu, baizik eta, bere barnean aritu.

Aurreko orrietan Sugoi deidadeari buruz zerbait esan da, hitz gutxi oraingoz. Inongo zalantzarik gabe zeresan handia dago Mariren senarrari buruz. Bi izaki horien trataera isolatuetatik abiatuz gero, bikotearen muinera iristea errazago bihurtzen da. Era berean, Sugoiri buruz zertxobait gehiago jakitera iritsi gaitzke. Roslyn M. Franken lan metodoa hizkuntzalaritzaz eta Mircea Eliaderena erlijio konparatuaz baliaturik, gure ustez euskal mitologian zama handia jasan duen bikote kosmologikoaren aztarnetatik jarraitu nahi dugu, gaur egungo egoerak uzten duen leku eta uneraino. Horretarako, haien arteko harremanetaz dakiguna gogoratuko da berriro, abiapuntutzat ardatz egokiagorik ez baitago. Orduan, hona hemen J. M. Barandiaranek gazteleraz emandako hitz batzuk: “En una leyenda de Azcoitia se dice que Mari tiene un marido que se llama Maju, el cual aparece en forma semejante a la de aquélla. Cuando ambos se encuentran, desencadenan una furiosa tormenta con lluvia y pedrisco. Maju debe ser el mismo genio que en Goyeri se llama Sugaar -culebro-. Es personaje que figura poco en la actual mitología vasca. En una leyenda de Zumaya se dice que visita a Mari en viernes a las dos de la tarde: va a peinarla”¹⁸⁴.

Zarautzen, elkarketa mitikoa ostiraleetako arratsaldeetan gertatzen omen da, Maju Mariren ilea orraztera hurbiltzen delarik¹⁸⁵. Elkarketaz gain, berriro “orrazte” ekinga agertzen zaigu.

184. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 131.

185. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 189.

Ondokoa ere interesgarria da gure azterketan erabiltzeko, Barandiaranen hitzak: “Sugoi es el nombre del -culebro- de la cueva de Balzola (Dima), a cuya leyenda va incorporado uno de los temas del relato sobre el origen de los señores de Vizcaya. Es uno de los genios estrechamente ligados al ciclo de Mari. Hay aspectos que le asimilan a Sugaar o Maju, marido de Mari; los hay también que le asimilan a Mikelats y Atarrabi, hijos de Mari y compañeros de Axular en una caverna de Sara¹⁸⁶”.

7.3.1. Hazitarako jainko zerutarra

Zer dakigu, oraintsu, Sugoiri buruz? Aurreko orrialdeetan muga hauetaraino iritsi gara: deidade uraniko arra, sutsua, ongarrri edota justiziaria, goiko uraren arartekoa. Nortasunaren ezaugarri hauek guztiak sistema askotako deidade uranikoetan arruntak dira, oinarritzkoak.

Nola iritsi da Sugoi egoera honetara? Prozedura ulertzeko puntu bat aldame neratu behar dugu: garraio hau Mariren eskutik gertatu da, hau da, Mari deida-dea bere lekuan jartzeko prozedurak berak Sugoi irelua bereganatu du, biak elkar eustean bikote bezala. Eliaderen hitzetan, gizarte atzeratuetan eta han hemenka sorturiko deidade nagusi uranikoak, aurreratua diren gizarteetan desagertu dira. Denboraldi luzean nekazarien kulturen sorkuntza eta garapena zela eta, jainko desberdinen hierarkizazioan aldaketa garrantzitsua sortzen da: hortik aurrera Jainkosa Handiak, Ama Jainkosak, eta haien senarrak, Ar Nagusiak, lehenengo planuraino altzatzen dira¹⁸⁷. Marirengan jokaera hau behin baino gehiagotan aipatuta izan da zenbait ikerlariren lanetan, baina bakarki behatuta, hau da, Mariren kasura jotzen duenez, haren senarra azterketatik baztertu ta lagatuz¹⁸⁸.

Zer zentzu beregana lezake Lurreko Jainkosak ernalketarako, zeruetako Jainkorik ez balego? Zalantzarik gabe, goi mailako egitura mitologikoan deidade uraniko arrak oreka dakar, izaki teluriko emearen aurrean edo ondoan kokatua. Zenbait sineskizunetan euri emankorra, eta era berean ekaitza, Mariren eskutik datozkigu, senarra aipatzen ez den heinean, baina mitologia sakonago aztertzean, osagai hierogamiko arraren agertzea ikusgarria da: ernalkuntzarako beharrezkoa da, izaki arraren lana eta papera betetzen duelarik. Horretarako euria haren eremura eskuratzen du. Euria, ekaitza, kazkabarra, botere sutsu eta eman kor horren ondorioak dira, kratofania zoragarrienetarikoak.

Sutsua dela esan da orain bertan. “Su”ren EMS-an “sutsu” hitzak suaren kontzeptua dakarkigu burura (sua daukana), eta era berean osagai sexuala bereganatzen du (sutsua izatea harreman sexualetan, maitasunean). Biak jainko zerutarraren ezaugarriak dira¹⁸⁹.

186. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 131.

187. Eliade, M., “Mitos, sueños y misterios”, 148 (Madrid 1991).

188. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 127-139.

189. Frank, R.M., “En torno a un mito ...”, 135-173.

Euriaren arazoan, gainera, jainko uranikoen espezializazioak ekaitz eta euriaz (arrunta izaki hauetan, eta biak elkarrekin normalki) badu bere zergatia, bikoitza gainera: alde batetik, jainko horien geldotasunarengatik, eta haien erraztasunarengatik lekua beste hierofania zehatzagoi lagatzeko (izaki pertsonifikatuagoak, gizakien lekutik hurbilagoak direnak)¹⁹⁰. Hazitarako ahalmen eta botere harrigarria ere jainko horien espezializazioa da, goikoarekin batera, hau da, “goikotasuna”.

Bestalde, Sugoiren ez-agerpenak prozedura kosmologikoaren aurrerapenean badauka bere lekua. Azken denboraldian, Sugoiren agerpenaren eskasia nabaria da. Eremu mitologikoan zama handia eramaten duenik ezin dezakegu esan. Nolabait, bigarren planuko irelua da, beti edo gehienetan Mariren eskutik, atzetik, edo gutxienez honen laguntzailea, baina inola ere ez lehenengo mailako deidadea. Mito gutxitan, egia esan behar dela eta, bera da protagonista bakarra. Arazo hau ere, arrunta bihurtzen da izaki ar uranikoetan. Kosmogonia, jainko uranikoen ahalmena izanda, hierogamiak gaintutua geratzen da: jainko ernerazlearen lana ez da, hortik aurrera, mundua sortzea, ernaltzea baizik. Kultura askotan gainera bigarren planura jaisten da arra, eta orduan Jainkosa Handiak mundu osoaren ernalketa bideratzen du. Denbora aurrera doan neurrian, senarrak lan hura bere semeari uzten dio, amaren maitale bihurtzen dena¹⁹¹, dio Eliadek jainko uranikoen bilakaerari buruz panorama mitologikoan. Eta esandakoa zeharo erortzen da euskal mitologiaren mailan. Denbora igaroz, izaki zerutarrak astiro boterea galtzen du, haren emazteak, jainkosa telurikoak, indarra irabaz dezan, eta ondorioz arra sistema mitologikotik desagertzen doa. Hurrengo urratsean, honen papera emearen semearengana igarotzen da, eta azken honek bere aitaren ezaugarriak beregana ditzake alde batetik, eta amaren maitalea bihur daiteke bestetik, intzestu ekimenean.

Hasieran erakarritako Barandiaranen hitzetan desagerpena, nahasketa edo egoeraren eraldatze hau nabaria dagokigu. Alde batetik Sugoi/Sugar/Maju euskal mitologian ez da maiz agertzen, eta gainera zenbait mitotan ez da zuzenki Mariren semeengandik desberdintzen, biek izakia bera diruditelarik. Azkenez, mito batzuetan jainko zerutarraren ekintzak Mariren eskutik erakusten dira bakarrik, maitalea zeharo ahaztuta¹⁹².

Euskal mitologiaren azterketetan, denboraldiak egituretan ekarritako nahasketa aitzakitza jo da, iluntasunetik ateratzeko bideak ez direlarik aurkitzen, baina maila mitologiko batzuen egituretan nahasketak ez daude baliabide biltze metodoetan oinarrituta, edo ez dira berezko bilketaren emaitza, zeharo funtzionalak baizik, hau da, gure begietan nahasketa moduan agertzen diren objektu mitologiko batzuk egituraren partaideak dira zeharo. Ezagutu ez den beste irtenbidea erabili du kontzeptu sistemak hutsunea betetzeko, baina besteak bezain logikoa ez denik ezin da esan. Euskal mitologiaren bikote hierogamikoaren kasua

190. Eliade, M., “Tratado ...”, 111-112.

191. Eliade, M., “Mitos, ...”, 149-150.

192. Barandiaran, J.M., “Diccionario ...”, 134.

adibidea da. “Topiko” eta “ez-topiko” kontzeptuak ikerlarien burutik abiatzen dira, ezagumendu falta edota metodo desegokien erabileraren ondorioz.

7.3.1. Hierogamia eta egituren aldaketak

Lehen idatzi den moduan, bikote hierogamikoaren gorakada nekazaritzaren eskutik etorriko zen (nekazaritzari dagozkion aspektu sinbolikoei helduta, eta ez teknika bezala). Baina, horrek ez du esan nahi jainko eme telurikoa une horretan sorturiko elementu berria denik. Ezta gutxiago ere, jainko eme lurtarrak aurrera-gotik ezagunak izango lirakeela onartzen dute erlijio konparatuen zientzilariek¹⁹³. Zehazki, Paleolitos Aroan bazeuden jo eta ke leku askotako panorama mitiko-erritualetan. Aurrerago, Neolitos Aroan, nekazaritzaren bidez lehenengo mailara igoko ziren, eta naturgaineko ikur eskema berrian kokatzeko aurkako partaidea, ar uranikoa, beharrezko bihurtu zen.

Zaila da esatea, oraingoz, Sugoi/Sugar/Maju izenetako deidadea maila kultural paleolitikoko jainko zerutar bakarra eta bakartia izan zen ala ez. Jainko uranikoa aipatzeko badaude beste izenak euskaraz: Orzi eta bere aldaerak, Jaungoiko eta bereak. “Orzi” hitzaren erroa, “ortz”, eta haren aldaerek zeru eta zeruarekiko hitzetan parte hartzen dute: ortziri, ortzantz, ozkarri, ozpinarri, ortzadarra, e.a.¹⁹⁴. Beste aldetik, “jaungoiko” hitza eta haren aldaerak behatuz, goiko jaunaren kontzeptuaren aurrean aurkitzen garela pentsagarria da era sendoan, beste zenbait hipotesi aukera urrikoak direlarik¹⁹⁵. Bi izen hauek tabua-tuak dira, hau da, ez dira jainkoaren izenak, ezaugarria baizik, kalitatea aipatzen dutenak hain zuzen ere, Mariren maitaleren kasuan gertatzen den moduan. Hala ere, dakigunez, euskal kontzeptu sistemak korpus mitologikoaren bitartez jainko eme lurtarrarekin elkartzan duen izakiaren izenak hamaika aldiz errepi-katu ditugu: Sugar, Sugoi, Maju.

7.4. III. Eranskina: sugea, amaitu gabeko birjaioa

Sugeaz mintzatzean, noraino iritsi garen gogora dezagun orain, (L1). laukia-ren bitartez: sugea suaren aurkako izakia da; ur lurtarrekin intimoki erlazionatua aurkitzen da; emea da eta ura dela medio emakumezkoekin harremana egokitzen da; izaki ztonikoa; esnezalea; kaltegarria, hiltzaile izatera iristen da; eta txis-tuka hitz egiten du.

Ez da termino hauetan bukatzen sugearen nortasuna. Beste ezaugarri beha-garriak badaude. Baina punto haiek ikusi baino lehen, aurreko guztia babesten duen baliabide batzuk erabiltzea ez legoke soberan.

Kristautasunarentzat, Ama Birjina sugearen aurkako burruka kosmogologiko-aren irabazle handia da. Bestalde eta une berean, sugea txistuka mintzaten

193. Eliade, M., “Mitos, ...”, 186-187.

194. Caro Baroja, J., “Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco”, 13-32 (Madrid 1980). Beste aldetik, zenbait ikerlarien ustez, izen hori ez da jatorriz euskalduna.

195. Caro Baroja, J., “Sobre la religión ...”, 16.

dela eta sugea egoera zehatzean emakumezkoarekiko erlazioan aurkitzen dela gogora ditzagun. Orduan, hau guztia dela eta, galdera zehatza airera daiteke: zer gertatuko litzateke neskak txistuka hitz egingo balu, hau da, egoera horretan bere antzekoa den piztia madarikatuaren hizkuntza erabiliko balu? Hona hemen sineskizun korpusaren bidez ematen den erantzuna, euskal pentsaera herritarrean zeharo sustraitua:

(S47). Neska txistuka aritzen bada, Ama Birjinak negar egiten duela esaten da Gipuzkoako zenbait tokitan. Euskal Herriko beste lekuetan ere, berdin sinesten da¹⁹⁶.

Hau da, txistuaren bidez emakume eta sugearen artean beste zubia finkatzen da. Emakumea “txistulari” bihurtzen zaigunean, piztiaren polora hurbiltzen da oraingoz gehiago, baina polo hori ezezkoa da euskal kontzeptu sistemarentzat (eta ez horrentzat bakarrik). Biraketa ezezkor horren bitartez, bi izakien arteko korrelazioa ikusgarriago bihurtzen da. Logikoki, ekintza kaltegarriaren ondorioz sugearen irabazlea nolabait galtzaile bilakatzen da, Ama Birjina: emea emeen aurrean, Maria emakumea da, eta emakumerik nagusia jatorrizko sugearen aurrean. Ez da horrelakorik aipatzen gizonaz (aurrekoa ikusita, ez luke logika handirik izango).

Neska txistuka aritzea ez da batere egokia, deitoragarria baizik. Ondoko esatera zaharraz baliatuko gara orain, aurreko ideia babesteko:

(E1). Hauxe, Olaetako esaera zaharra da: “neska txistularia, mando ostikaria”¹⁹⁷.

Sugea beheko uretako deidadea dela badakigu. Txistuaren arazoa lagatu gabe oraingoz, ondoko sineskizunak sugea, txistua eta ura (egarriaren bitartez azaldua) harremanetan jartzen ditu:

(S48). Sugearen txistua entzutean, kontuz ibili behar da, egarriak dago eta¹⁹⁸.

Hemen, txistua sugearen ahoskapena dela aipatzen zaigu, eta era berean, txistuka zer azalduko du, bada? Erantzuna logikoa: uraren beharra. Sugeak berriz dagokionaren falta edo beharra bere hizkera bereziaz jakinarazten du.

Deidade ztonikoa da, lurtarra, lurretik mugitzen da. Goiko eremua mugatua, debekatua, dagokio:

196. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 154 eta 242.

197. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 154.

198. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, I, 440.

(S49). Sugea jendearen atzetik korrika hasten bada pertsona harrapatu nahian, ez da behertutz joan behar ihes egiteko asmotan, goruntz baik¹⁹⁹.

Lehenengo onartu behar duguna hau da: sugeak ez dira hasten korrika jendea harrapatzekotan, gutxienez hemen, Euskal Herrian. Hori formulazio kulturala da eta inola ere ez errealitatea. Ihes egiteko asmotan, logikoki, lurretik baztertu behar da, sugeari urruti edo iristeko ezinezkoa dagokion eremura igaroz: goialdera. Hots, lurra behean, zerua goian!

Sugea urtsua da, eta era berean suaren aurkako izakia. Suaren bitartez amaitzen da, haren umekiak bezala (emakumezko eta behorren ileak). Zenbait mitotan, sugea suaren aurrean beldurtzen da, hiltorian aurkitzen baita. Ondoko mitoan sugea munduko piztia kaltegarri eta madarikatuaren ikurra da, eta gainera suaren aurrean garrasika bere beldurra azaltzen du:

(M24). Sugeak gizakiaren indarra frogatu nahi zuen. Horretarako bere haitzulotik atera zen, eta errementariengana zuzendu zen. Bisitaren xedea adierazi zion piztiak gizonari, eta honek baldintza bat jarri zuen: lehenengo berak heldu behar zuen sugea, hark nahi zuen lekutik. Eta narrastiak onartu zuen. Orduan, errementariak suhatza sartu zuen sutan, eta goritu ondoren, sugea alboetatik heldu zuen tresnaren bidez. Narrastia asko beldurtu zen eta garrasika pakean lagatzeko eskatu zion errementariari, azken hau bera baino indartsuagoa baitzen. Orduan, munduko piztia kaltegarri guztiek gizonari beldurra hartu zioten²⁰⁰.



11. Irudia. Serpe irudizko hilarria (San Telmo Museoa, Donostia). Hilarrietan suge irudiak ez dira arraroak. Adibide honetan, bi serpe elkar gurtzatzen dute, amaitu gabeko eitea sortuz.

Geuri oso ederra eta interesgarria iruditzen zaigun kontakizun hau mito konplexua da. Hemen, gauza behagarri asko adierazten dira: sugea haitzuloetako piztia madarikatua izateaz gain, bere antzeko animalia guztien zaintzindaritzat hartzen da. Gizonarekin burrukan hasten da (berriro, kontrakoak diren bi munduren arteko burruka kosmologikoa planu sinbolikoan). Gizonak irabazten du sua duelako, hau da, sua bere mesederako menperatzen baitu. Sugeak galtzen

199. Azkue, R.M., "Euskalherriaren ...", I, 440.

200. Barandiaran, J.M., "El mundo ...", II, 128.

du gizakiaren suaren aurrean. Burrukarako aukeratzen den gizakia errementaria da, berari dagokiolako sua batez ere (zenbait euskalkitan errementariaren sinonimoa “su-arotza” da²⁰¹). Jakina, gizonak garailea izan behar du, eta sugeari burruka irabazteko errementaria da egokiena, horrek sua menperatzen duelako. Horixe bera da, hain zuzen, sugearentzat armarik beldurgarriena gizakiaren eskuetan.

Goazen aurrera oraingoz, eta horretarako beste sineskizun bat azter dezagun:

(S50). Sugeari buruz mintzatzean, “suge handia” ezin daiteke esan, bestela animalia gero eta handiago bihurtzen da. Orduan, “suge mortala” esan behar da²⁰².

Magia homeopatikoko prozeduraren bidez, sugea handiago bihurtzen da, ikaragarri eta kaltegarriago. “Handia” erabili ordez, “mortala” erabili behar da, eremu berberean kokatzen den terminoa. Sugea beti da kaltegarria, bide batetik edo bestetik, euskal pentsaera herritarrarentzat.

Sineskizun hauek guztiak sugeaz lehenago lortu dugun ideiarekin adostasunean aurkitzen dira. Baina, sugeari nortasun zehatz hau nondik datorkion jakin al daiteke? Hau izango da gure hurrengo urratsa sugearen mamiaz mintzaterako.

7.4.1. Sugearen birjaioa

M. Eliadek sugearen sinbolismoa aztertu egin du, ez helburu bezala, elementu langungarri moduan baizik. Bere berbetan, sugearen ikurra balore kopuru ulertezina eskuratzen du, baina balore horiek guztiak ideia nagusira zuzentzen dira: hilezina da bere burua berritzen duelako²⁰³, eta oraingoz gehiago, sugeak esanahi desberdinak bereganatzen ditu, eta nagusienetarikoa bere birsortzea da²⁰⁴.

Sugearen berrikuntza kualitate kulturala da. Sugeak hiltzen direla badakigu. Baina kontzeptu sistema askorentzat, gurearentzat ere, aldizkako azalaren aldaketa hark amaitu gabeko berrikuntzaren ideia zeharo babesten du. Piztiak urtero aldatzen du azala. Hauxe da, hain zuzen, urtero pairatzen duen birjaioa. Orduan, sugea, kulturaren terminoetan hitz egiten, ez da hiltzen, eta hor kokatzen da batez ere bere nortasunaren gunea. Horrexegatik da deidatea sugea. Puntu honen bilakaeraz, eta baita piztiaren behaketaz ere, nortasun mitikoaren osagarriak diren beste ezaugarriak sortzen dira, lehen aipatu ditugunak. Sugearen azalaren aldaketaz eta haren birjaioaz hil gabe, ba al dago arrastorik euskal kontzeptu sistema ingurutik kokatzen diren mito eta sineskizun korpusean? Zalantzarik gabe, baietz erantzun behar da.

201. Ikus Mugicaren hiztegia, 963 or., “Herrero”: “su-arotz” AN; baita ere eta hildo berdinetik, hauek: “suatz” AN, “su-gizon” ANB, “sugin” B, “sugille” eta “sukin” ANS.

202. Azkue, R.M., “Euskalerriaren ...”, I, 439.

203. Eliade, M., “Tratado ...”, I, 199.

204. Eliade, M., “Tratado ...”, I, 202.

Sugeak azala urtean behin aldatzen duela ohartu dugu euskaldunok, eta zenbait esaera zaharretan oroipena marraztu dugu:

(E2). “Urthean behin baizik eztu athorra aldatzen”²⁰⁵.

Noski, esaeraren esanahia ez da plasmitzen sugean, baizik eta sugetik abiatzen da, beste planu erabilgarriagoan finkatzeko, baina baliabide bezala sugea eta haren izakera aldakorra behatu eta onartzen da.



12. Irudia. Ouroboros (grekeraz, “bustan jalea”). Bere buztanari kosk egiten dioen sugearen ikurra hilezinarekiko adigairekin zuzenki lotuta dago. Alkimistek ongi uztiatu zuten ikurra da, baina aintzineko Egiption erabilian mende eta mendeak lehenago, nondik Europara garraiatua izan zen.

Bizitzaren amaigabeko jarraipena adierazteko sugea erabiltzen da berriz ondoko esaera zaharretan:

(E3). “Sugea ilagatik sugakumea bizi”²⁰⁶.

Nahiz eta sugea hil, sugakumea bizi izaten da (eguneroko planu erabilgarrian, nahiz eta zerbait txarra amaitu, haren ondorioek irauten dute, esate baterako). Ideia hori adierazteko ez da beste animaliarik erabiltzen, sugea baizik, bere bizi-zak ziklo berezia jasotzen duelako, hau da, birjaiotzea.

(E4). “Suak sua dakarki, sugiak sugakuma noski”²⁰⁷.

Hemen ere, jarraipen fonetikoa adieraz daiteke “sugeak” eta “sugakuma” erabiltzeko, “sua” eta “sua” hitzen arabera, jakina. Baina, hauen orde

205. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, III, 390.


206. Azkue, R.M., “Euskalerrriaren ...”, III, 71.

207. Zavala, A., “Esaera zaarren bilduma berria”, II, 111.

“otsoa”, edo beste edozein animalia egokia litzaiguke esaeraren esanahia aldatu gabe. Aitzitik, gure narrastiari dei egiten zaio. Sugeak sugakumea dakar, eten gabe, suak beste suteak sortarazten dituen moduan berebean. Berriz bere bizitzaren zikloa aipatzen da adibide gisa. Ez da gauza berdinik esaten beste animalietaz.

“Hil” hitza tabuatuta dago sugeaz mintzatzerako. (S4). sineskizunaren bitartez ikusi dugun moduan, Euskal Herriko leku batzuetan “sugea hil” ezin daiteke esan. Euskal pentsaerarentzat sugea ezin delako hil, hitz hau erabiltzea tabuatua aurkitzen dela pentsa dezakegu. Horren ordez, beste hitzak erabilgarriak dira, (S5). sineskizunean ikus daitekeen moduan: “amaitu, kalitu, autsi, akabau, akabatu, eho”. Nolabait, narrastiaren bizitzaren mugapena azaltzen da, baina ez hilketa edo heriotza.

Orduan, eta atal hau amaitzeko, (L1). laukia horrela osa dezakegu, sugearen nortasun mitikoa biribiltzen:

- 
- Sugea:**
- Hilezkorra
 - Ur lurtarrekin intimoki erlazionatua
 - Emea
 - Ur ztonikoa medio, emakumearekin erlazioan
 - Ztonikoa bera
 - Esnezalea
 - Kaltegarria
 - Txistuka hitz egiten du

Oraingoz dena ez dagoela esanda aitortu behar da. Sugearen azal azpian gauza gehiago ezkututzen dira. Baina guk horietako batzuk kanporatu ditugu, ikur elementuak beti. Nolabait, sinboloen bidez objektuak elkartzeko gai bihurtzen dira, benetako kateak sortuz, edo hobeto esanda, zirkuluak biribilduz, bai Euskal Herriko pentsaera herritarrean, bai beste lekuetakoetan ere. Sugezko iturriari ez zaio oraingoz ura amaitu, sugea ez delako inoiz hilko.

7.5. IV. Eranskina: mito eta sineskizun zerrenda

Aurreko orrietan erabili diren euskal mito eta sineskizun zerrenda da hurrengo. Bakoitzari dagozkion laburpena, eta kokapen geografikoa ere aurkezten dira erreferentzia gisa.

7.5.1. Mitoak

M1. Ataun (Gipuzkoa). Artzainak suge txikia jaso, esnez elikatzen du eta txistuka deitu. Gizona menditik joaten da, eta berriz agertu ondoren sugea piztia erraldoi bihurtzen da gizakia hiltzeko.

M2. Mutriku (Gipuzkoa). Artzainak sugea esnez elikatzen du. Gero, desagertzen da eta itzuli ondoren sugeak gizona hiltzen du.

M3. Andoain (Gipuzkoa). Artzainak sugea esnez elikatu eta txistuka deitzen du. Alde egiten du, eta berriz agertzerakoan sugea piztia erraldoi bilakatzen da gizona erailtzeko.

M4. Kortezubi (Bizkaia). Gizonak sugea jaso eta esnea ematen dio. Halaber, txistuka deitzen du. Halako batean, gizona esnerik gabe agertzen da eta sugeak hiltzen du.

M5. Saratsu (Araba). Artzainak sugea esnez elikatu eta txistuka deitzen du. Joan egiten da eta gero emaztearekin agertu. Esnea ez dagoela eta, piztiak biak hil nahi ditu. Bikotea elizan sartu, eta sugea hiltzen da.

M6. Apinaniz (Araba). Gizonak sugekumea esnez elikatzen du. Gero, joan egiten da, eta denbora igaroz emaztearekin agertzen da. Ez dakarte esnerik eta suge ikaragarriak erail nahi ditu. Eliza barruan sartu, eta piztia hiltzen da.

M7. Gorriti (Nafarroa). Artzainak sugea jaso eta esnez elikatzen du. Gizona desagertu eta berriro hurbiltzerakoan ez dakar esnerik eta sugeak hiltzen du.

M8. Igorre (Bizkaia). San Pedrok ez du mezara joan nahi, apaiza txarra dela eta. Bidean iturri berezia aurkitzen du: sugearen ahotik ura dariona. Jesukristok bere lagunari kargu hartzen dio handik ura edateagatik.

M9. Igorre (Bizkaia). Dimako Balzoi haitzuloan Sugoi agertzen da bi anaien aurrean. Batek buztana harrika mozten dio. Anaia onari urrezko oparia ematen dio, eta besteari suzko gerrikoa.

M10. Mundakan Sugarrak Eskoziako erregearen alabarekin lo egiten du. Ondorioz, Jaun Zuria jaiotzen da.

M11. Ataun (Gipuzkoa). San Migel eliza azpian bizi den herensugea Goñiko Jaunak hiltzen du, neska gaztea salbatuz; haren kateak hausten ditu.

M12. Ainhua (Lapurdi). Artzainak herensugea hiltzen du, neska gaztea salbatuz (erregingia). Piztiaren zazpi buruak ebakitzen ditu.

M13. Atarratze (Zuberoa). Artzaiek herensugea hiltzeko txahal larrua bolboraz beterik ematen diote. Piztia lehertu eta itsasora zuzentzen da.

M14. Barkoxe (Zuberoa). Zazpi buruko herensugeak bolbora jaten du. Itsasora zuzentzen da, han bertan lehertzeko.

M15. Otxandio (Bizkaia). Lamia eta mutilak elkarrekin ezkondu nahi dute. Ireluak eraztuna oparitzen dio. Baina, lamiak ahate oinak dituelako, senargaiak konpromezua hausten du, eta eraztuna itzuli.

M16. Zeberio (Bizkaia). Ikazkinek su ikaragarria egiteagatik, sua itzal dezaten lamiek garrasika eskatzen dute.

M17. Atarratze (Zuberoa). Lamiak gauez zubi erraldoia egiten ari dira. Okinak labea piztu, eta oilarra esnatzen da, Kantatzen hasten da. Egunaren etorreraren aurrean, lamiak ez dute lana amaitzen.

M18. Aezkoa harana (Nafarroa). Mutila gauez etxetik atera, eta lamien beldurrez oilarrari deitzen dio. Hegazia kantuan hasi, eta lamiak desagertzen dira.

M19. Mendaro (Gipuzkoa). Lamia mintzarazteko, esnea sutan jarri eta irakiterakoan urina erretzeko arriskuaren aurrean lamiak garrasika “txurie gora!” esaten du.

M20. Zeberio (Bizkaia). Harrapatu-rikoko lamiak hitz egin dezan, esnea sutan jarri eta irakitean “txurie gora!” esaten du.

M21. Igorre (Bizkaia). Gizonak errekan lamia harrapatzen du. Etxera eraman, eta esneak irakitean erretzeko beldurrez, lamiak “txuria gora!” esaten du.

M22. Zugarramurdi (Nafarroa). Esnea eskaintzen dien gizakiari lamiak urrea oparitzen diote. Behin batean, esnearen orde- z kaka eraman eta lamiak haserretzen dira.

M23. Ultzama (Nafarroa). Artzainak lamiei gaztanbera oparitzen die. Halako batean, esnekia kakaz trukutzen du, eta ireluak asko haserretzen dira.

M24. Kortezubi (Bizkaia). Sugeak errementariarekin burrukatzen du. Gizonak, sua erabiliz irabazten du. Munduko animalia madarikatu guztiek gizonari beldurra diote une horretatik aurrera.

7.5.2. Sineskizunak

S1. Zugarramurdi (Nafarroa). Mondarrain mendian dagoen urre mehategian ezin daiteke sar suge eta beste piztia arriskutsu eta kaltegarriak daudelako.

S2. Leitza (Nafarroa). Sugeak kosk ez dezan egin, salbea alderantziz esan behar da.

S3. Elorrio, Dima (Bizkaia); Arroa (Gipuzkoa); Baztan harana (Nafarroa); Gara- zi (Nafarroa Beherea); Haltsu (Lapurdi). Kosk egitean, zauria labanez irekitzen da gurutze forman.

S4. Zornotza, Urkiola (Bizkaia); Leitza (Nafarroa). Sugeaz ezin da “hil” hitza erabili.

S5. Xulapain (Nafarroa), Barkoxe (Zuberoa). Sugez, “hil” hitza erabili orde- z badaude beste aukerak.

S6. Amezketa, Arrona, Ursuaran (Gipuzkoa); Larrabetzu (Bizkaia). “Suge han- dia” orde- z, “suge mortala”.

- S7. Larraun (Nafarroa). Hiru suge aurkitu ondoren, bekatuaren seinalea da.
- S8. Dima (Bizkaia). Baratzuria sugerearen haginkadaren aurka.
- S9. ... (Zuberoa). Zauria baratzuriz erre.
- S10. Baztan harana (Nafarroa). Baratzuria sakelean sugerearen hozkadatik babesteko.
- S11. Xulapain (Nafarroa); Barkoxe (Zuberoa). Sakelan, sugerearen azala eraman, horren haginkadatik babesteko.
- S12. Matximenta (Gipuzkoa); Arratia harana, Elorrio (Bizkaia). Sugea erailtzeak ontasuna dakar.
- S13. Ursuaran (Gipuzkoa). Garbitokitik arima askatzeko, sugea hil eta kredoa esan.
- S14. Euskal Herriko toki askotan. Sugeak amaren esnea zurgatzen du, hark haurrari titia ematerakoan.
- S15. Elorrio (Bizkaia); Garazi (Nafarroa Behera); Arroa (Gipuzkoa). Sugeari larru zaharra lapurtzerakoan, horrek txistuka erakusten du mina.
- S16. Bera, Baztan harana, Erronkari (Nafarroa); Olaeta, Elorrio, Dima (Bizkaia); Arroa, Ataun, Ursuaran, (Gipuzkoa); Barkoxe (Zuberoa); Garazi (Nafarroa Beherea). Ilea uretan lagatuta suge bihurtzen dira, batez ere eta oso bereziki emakumezkoarenak baldin badira.
- S17. Elorrio, Dima (Bizkaia). Zaldi ileak suge bihurtzen dira.
- S18. ... (Bizkaia). Emakumezkoen ileak suge bihurtzen dira hormetako zulotan uzten badira.
- S19. Ezpeleta (Lapurdi). Behorraren ileak uretan suge bihurtzen dira.
- S20. Haltsu (Lapurdi). Behorren ileak irentsi ondoren, sugeak umatzen dira sabelan. Baita gizakienak ere.
- S21. Lekeitio, Dima (Bizkaia). Emakume eta behorren ileak suge ez daitezen bihur, sutara botatzen dira.
- S22. Baztan harana (Nafarroa). Pilotaz jolastean, gizona airea da eta emakumea lurra.
- S23. Ataun (Gipuzkoa). Sugarra airetik ibiltzen da suzko itxuraz, eta euria dakar.

- S24. Betelu (Nafarroa). Sugarra suzko eran hegalaria da.
- S25. ... (Nafarroa). Sugarra haitzuloetan bizi da.
- S26. Azkoitia (Gipuzkoa). Maju eta Mari elkartzean, ekaitza hasten da.
- S27. Zarautz (Gipuzkoa). Maju eta Mariren elkarketa ostiraletan gertatzen da.
- S28. Arratia, Zeberio (Bizkaia); Arraioz (Nafarroa); Aiñharbe, Barkoxe (Zuberoa). Gauean, etxeko suaren babeska eskatu.
- S29. Olaeta (Bizkaia); Amezketeta, Ursuaran (Gipuzkoa). Gauez etxera ekarritako ura ez da edan behar.
- S30. Arratia harana, Garai, Ibarruri, Lekeitio, Murelaga, Zeanuri (Bizkaia); Matximenta, Ursuaran (Gipuzkoa). Erreketako ura garbitzeko ireluak hiltzean, ilentia sartzen da uretan.
- S31. Lekeitio, Otxandio (Bizkaia); Larraun (Nafarroa). Erreketako ur gainetik, hiru gurutze marraztu edatekotan.
- S32. Euskal Herriko leku askotan. Lurrera eroritako janaria suari erakutsi.
- S33. Euskal Herriko leku askotan. Sutegiko ikatza kutunak egiteko erabiltzen da.
- S34. Arroa (Gipuzkoa). Bataiatu gabeko haurraren gerrikoan ikatz zatia gorde.
- S35. ... (Bizkaia). Gauez, etxeko suarentzat arao baikorra.
- S36. Euskal Herriko leku askotan. Pertsona eta katu berria etxera ekartzera-koan, kanpotarrak suaren inguruan ibili behar du.
- S37. Larraun, Ultzama (Nafarroa); Donibane Garazi (Nafarroa Behera). Etxeko sua arrotzen salataria da.
- S38. Barkoxe (Zuberoa). Etxeko sua berri etorreraren eta bekatuen salataria da.
- S39. Baztan harana (Nafarroa). Etxeko suaren zartak eta pekatuak.
- S40. Ezpeleta (Lapurdi). Herensuageren zazpigarren burua sortzean, sutan hasi eta itsasora zuzentzen da.
- S41. Zugarramurdi (Nafarroa). Herensugeari zazpi buru sortzen zaizkio, eta gero itsasora joaten da.
- S42. Arratia, Berriz, Elorrio, Olaeta (Bizkaia); Arrasate, Oñati, Arroa, Deba, Beizama, Matximenta (Gipuzkoa). Esnea irakitean erretzen bada, behiaren titia hondatzen da.

S43. Euskal Herriko toki askotan. Lamiak emeak dira.

S44. Euskal Herriko toki askotan. Lamiak erreka, ibai, osin eta haitzuloetan bizi dira.

S45. Galdakaon (Bizkaia). Lamiak gerritik gora emakumeak, eta behera arrainak.

S46. Orozko (Bizkaia); Donamartiri (Nafarroa Behera); Ultzama harana (Nafarroa). Lamiei eskaintza batzuk dagozkie, batez ere esnekiak.

S47. Matximenta, Arrasate (Gipuzkoa); Olaeta, Arratia harana (Bizkaia); Baztan harana (Nafarroa); Garazi (Nafarroa Beherea); Barkoxe (Zuberoa). Neska txistuka aritzen bada, Ama Birginak negar egiten du.

S48. Barkoxe (Zuberoa). Sugeak txistuka egarria adierazten du.

S49. Baztan harana (Nafarroa); Haltsu (Lapurdi); Arrasate (Gipuzkoa); Barkoxe (Zuberoa). Sugea pertsonaren atzetik korrika hasten bada, goruntz joan behar da, eta ez beheruntz.

S50. Amezketeta, Arroa, Matximenta, Ursuaran (Gipuzkoa); Lekeitio (Bizkaia); Larraun (Nafarroa). "Suge handia" ezin da esan, "suge mortala" baizik, Bestela, gero eta handiago bilakatzen da.

7.5.3. Esaera zaharrak

E1. Olaeta (Bizkaia). "Neska txistularia, mando ostikaria".

E2. Nafarroa Beherea; Lapurdi; Zuberoa. "Urthean behin baizik eztu athorra aldatzen".

E3. "Sugea ilagatik sugakumea bizi".

E4. Legazpia (Gipuzkoa). "Suak sua dakarki, sugeak sugakuma noski".

7.6. V. Eranskina: bibliografia

Eranskin honetan, egindako araketa lana prestatzeko erabili den bibliografia azaltzen da, bi ataletan: "Euskal Herriari buruzko bibliografia", eta "Beste lurraldeetako bibliografia". Baliabide ugari dago euskal kontakizun eta ipuinei buruz. Hala ere, eta aurrean esan den, baliabide asko oraingoz aztertu gabe aurkitzen da, bakarrik bildua izan delarik, inongo azterketaren helburu izan gabe kasu gehienetan. Gainera, erlijio konparatuaz eta hizkuntzalaritzaz oraindano sorturiko materiala oso erabilgarri bihurtzen da oraingoan euskal kontakizunen azterketetan, beste bide interesgarriagoak zabaltzean ikerlariaren aurrean. Horrengatik, nahiz eta testuan ez erabili, horrelako bibliografia oharrak adierazteak komenigarria dirudi.

7.6.1. Euskal Herriari buruzko bibliografia

- ARRIAGA, J.L. *Euskal mitologia*. Burgos, 1984.
- AZKUE, R.M. *Diccionario vasco-español-francés*, bi ale. Bilbo, 1969.
- AZKUE, R.M. *Euskal Herriaren Yakintza*, lau ale. Madril, 1989.
- AZURMENDI, M. *Euskal nortasunaren animaliak*. Donostia, 1987.
- AZURMENDI, M. *El fuego de los símbolos*. Donostia, 1988.
- BARANDIARAN, J.M. *El mundo en la mente popular vasca*, lau ale. Donostia, 1960-1962.
- BARANDIARAN, J.M. *Diccionario de mitología vasca*. Nafarroa, 1984.
- BARANDIARAN, J.M. *De etnografía de Navarra*. Nafarroa, 1987.
- BARANDIARAN, J.M. *Euskal Herriko mitoak-Mitos del Pueblo Vasco*. Donostia, 1988.
- CARO BAROJA, J. *Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco*. Madril, 1980.
- D'ABBADIE D'Arrast, *Charlas sobre el País Vasco: la mujer y el niño*. Donostia, 1959.
- ESTORNES, B. *Mundua Euskal Erriaren gogoan-El mundo en la mente popular vasca*, bi ale. Donostia, 1962.
- FRANK, R.M. *En torno a un mito: el euskara y el indoeuropeo*. Donostia, 1980.
- KALZAKORTA, X., LARRINGAN, L.M., ETXEBARRIA, J.M. *Tradiziozko ipuingintza*. Bilbo, 1989.
- LHANDE, P. *Dictionnaire basque-français*. Paris, 1926.
- MUGARZA, J. *Tradiciones, mitos y leyendas en el País Vasco*, bi ale. Burgos, 1981.
- MUGICA, P. *Diccionario castellano-vasco*. Bilbo, 1965.
- ORTIZ-OSÉS, A. *El inconsciente colectivo vasco*. Nafarroa, 1982.
- ORTIZ-OSÉS, A. *El matriarcalismo vasco*. Bilbo, 1988.
- QUIJERA, J.A. "Aspectos culturales en torno al agua en la tradición riojana", *Revista de Folklore*, 10.2, 63-67 or. Valladolid, 1990.
- QUIJERA, J.A. "Naturaleza y cosmovisión de Euskal Herria". In: *Montaña y aventura*. Bilbo, 1996.
- QUIJERA, J.A. "Escenarios del relato mítico. Mitología del paisaje". In: *Geografía simbólica. Cultura de los espacios*. Bilbo, 1999.
- ZAVALA, A. *Esaera zaarren bilduma berria*, bi ale. Nafarroa, 1985.

7.6.2. Beste lurraldeetako bibliografia

- BERESNIAK, D.; RANDOM, M. *El dragón*. Barcelona, 1989.
- BERMEJO, J. *Mitología y mitos de la Hispania prerromana*, bi ale. Madril, 1982-1986.
- BLAZQUEZ, J.M. *Imagen y mito: estudios sobre religiones mediterráneas e ibéricas*. Madril, 1977.
- ELIADE, M. *Mitos, sueños y misterios*. Madril, 1991.
- ELIADE, M. *Tratado de historia de las religiones*, bi ale. Madril, 1974.
- ELIADE, M. *Herreros y alquimistas*. Madril, 1974.
- FRAZER, J.G. *Folklore en el Antiguo Testamento*. Madrid, 1981.

- FRAZER, J.G. *La rama dorada*. Mexiko, 1979.
- FRAZER, J.G. *Mitos sobre el origen del fuego*. Bartzelona, 1986.
- GONZÁLEZ ALCANTUD, J.A.; MALPICA CUELLO, A. *El agua. Mitos, ritos y realidades*. Bartzelona, 1995.
- GONZALEZ TORRES, Y. *Diccionario de mitología y religión de Mesoamérica*. Mexiko, 1991.
- IZARD, M., SMITH, P. *La función simbólica*. Bartzelona, 1989.
- JAMES, E.O. *Introducción a la historia comparada de las religiones*. Madril, 1973.
- JENSEN, A.E. *Mito y culto entre pueblos primitivos*, Mexiko. 1966.
- LÉVI-STRAUSS, C. *Lo crudo y lo cocido*, Mexiko. 1978.
- LÉVI-STRAUSS, C. *De la miel a las cenizas*. Mexiko, 1987.
- LÓPEZ, J.; SANMARTÍN, J. *Mitología y religión del Oriente Antiguo. I: "Egipto - Mesopotamia"*. Bartzelona, 1993.
- LUBBOCK, J. *Los orígenes de la civilización*. Bartzelona, 1987.
- MORLEY, S.C. *La civilización maya*. Mexiko, 1991.
- NOËL, J.F. *Diccionario de mitología universal*, bi ale. Bartzelona, 1991.
- PIÑA CHAN, R. *Quetzalcoatl. Serpiente emplumada*. Mexiko, 1990.
- EPRANZ, B. *Los dioses en los códices mexicanos del Grupo Borgia*. Mexiko, 1973.
- STEN, M. *Ponte a bailar, tu que reinas. Antropología de la danza prehispánica*. Mexiko, 1990.
- VAILLANT, G.C. *La civilización azteca*. Mexiko, 1990.